



OIARTZUNGO  
UDALA

## *OIARTZUNGO PAREKIDETASUN DIAGNOSTIKOA*

**2008**



**EMAKUNDE**

EMAKUNDEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eraldiak Autonomiak

**EUSKO JAURLARITZA**



Gobierno Autónomo

**GOBIERNO VASCO**

*EMAKUNDEk diruzlagundutako proiektua.*

*Egilea: Clara Wolfram, berdintasun teknikaria*

11  
12  
13  
14  
15  
16  
17  
18  
19  
20  
21  
22  
23  
24  
25  
26  
27  
28  
29  
30  
31  
32  
33  
34  
35  
36  
37  
38  
39  
40  
41  
42  
43  
44  
45  
46  
47  
48  
49  
50  
51  
52  
53  
54  
55  
56  
57  
58  
59  
60  
61  
62  
63  
64  
65  
66  
67  
68  
69  
70  
71  
72  
73  
74  
75  
76  
77  
78  
79  
80  
81  
82  
83  
84  
85  
86  
87  
88  
89  
90  
91  
92  
93  
94  
95  
96  
97  
98  
99  
100

## AURKIBIDEA

### AURKEZPENA

1. PAREKIDETASUN EKIMENAREN TESTUINGURUA.....	3
2. OIARTZUNGO PAREKIDETASUN DIAGNOSTIKOA (2008).....	5
2.1 DIAGNOSTIKOAREN METODOLOGIA.....	6

### OIARTZUNGO DIAGNOSTIKOĀ: ATALAK

I. UDAL ERABAKIGUNEAK.....	11
II. UDAL LANGILERIA .....	19
III. KULTURA.....	25
IV. HEZKUNTZA.....	53
V. GAZTERIA ETA AISIALDIA.....	91
VI. KIROLA.....	99
VII. HAURREN ZAINZA.....	133
VIII. GIZARTE LAGUNTZA ETA ENPLEGUA.....	145
IX. OSASUNA.....	181
X. HIRIGINTZA ETA GARRAIOA.....	189

## 1. PAREKIDETASUN EKIMENAREN TESTUINGURUA

XX Mendean mugimendu feministak herrialde ezberdinetan bultzatu zuen emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldarrikapena orain dela 30 urte bere lehenengo nazioarteko frutu juridikoak eman zituen. Euskal Autonomia Erkidegoan, gaur egun, tresna juridiko eta tekniko egokiak ditugu emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatzeko. Beraz, parekidetasunaren aldeko hainbat eragileei esker, eta batez ere mugimendu feministari esker, erakunde publikoek aukera berdintasunaren aldeko legeak eta planak onetsi dituzte.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (4/2005) jasotzen duen moduan, Emakumeen Aurkako Bereizkeria Era Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioak (Nazio Batuen Erakundeak 1979ko abenduan onetsita) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Nazioarteko konbentzio horren bigarren artikuluan NBEko kideek berdintasunaren printzipioa "legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuek erabiliz benetan betearazten bermatzeko" konpromisua hartu zuten.

Europa Batasunak 1999ko maiatzean Amsterdamgo Ituna indarrean jarri zuenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren oinarritzko printzipio bihurtu zen. Europar Batasunaren Ituneko 3.2 artikulua arabera, Batasuneko eta kide diren estatuetakoko politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1 artikuluan berdintasunerako eskubidea eta sexu bereizkeriarik eza aldarrikatzen da. Bestalde, Eusko Legebiltzarrak 1988an EMAKUNDE sortu zuen (Emakumearen Euskal Erakundea), hortarako 2/1988 Legea onetsiz. Lege horretan sexu bereizkeriari aurre egiteko beharra azpimarratzen zen, eta hortarako beharrezkoak diren neurriak hartzera konprometitzen zen, EMAKUNDE erakundearen gidapean.

Azken 20 urteotan Eusko Jaurlaritzak emakumeentzako ekintza positiboko lau plan garatu ditu. Teorikoki EAEko administrazio guztiek planaren garapen praktikoa bultzatu behar zuten, baina horrela gertatu ez denez oso neurri murriztan ezarri dira aukera berdintasunerako politikak. Hori dela eta, Eusko Legebiltzarrak 2005ean (4/2005 Legea) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea onetsi zuen, eta horren aplikazio praktikorako 2006an EAEko IV Berdintasunerako Plana onartu zuen (VIII Legealdirako Jarraibideak).

Bestalde, emakumeen kontrako biolentziari zehazki aurre egiteko, EAEn 2001ean *Ettxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko erakunde arteko akordioa* sinatu zuten arlo honetan zerikusia duten euskal erakunde guztiek. Akordio horren Jarraipen Batzordeko kide gisa, EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarteak) erakundeak eta EMAKUNDEk lankidetzeta hitzarmen bat sinatu zuten 2005eko otsailean Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea abian jartzeko –Berdinsarea-.

Eusko Jaurlaritzak Udalek lehenengo urratsak emateko dirulaguntza ematen du –diagnostikoa egiteko eta plana diseinatzeko-, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Parekidetasun edo Berdintasun Planan jasotzen diren ekintzak garatzeko dirulaguntza ematen du.


Beraz, tresna juridiko eta tekniko egokiak ditugu gaur egun Oiartzunen Parekidetasunerako Udal Plan bat sortzeko, baita lan horretarako beste erakundeei dirulaguntza eskatzeko. Plan hori modu egokian diseinatzeko diagnostiko hau burutu dugu.

## 2. OIARTZUNGO PAREKIDETASUN DIAGNOSTIKOA (2008)

Ia hamar mila pertsona (9928) osatzen dute Oiartzungo biztanleria.

Emakumeen eta gizonen kopuruak parekoak dira adin tarte guztietan, batean izan ezik: 80 urtetik gorako hiru biztanleetatik bi emakumeak dira. Beraz, Oiartzunen ere gure gizartean ematen den zahartzaroaren "feminizazioa" antzematen da, emakumeen bizi itxaropena gizonena baino 9 urte luzeagoa delako.

2008KO OIARTZUNGO BIZTANLERIA  
9928 pertsona: 4956 emakumezko / 4972 gizonetzko



Oiartzungo Parekidetasun Diagnostikoa 2008an burutu da, eta parekidetasunaren alde lan egiteko oinarri modura jorratu da. Hau da, **Udalaren eta herriaren jarduera arloz arlo aztertu dugu**, eta arlo bakoitzean ematen diren **parekidetasun defizitak detektatzen saiatu gara**.

**Udalak lehenengo urratsa eman du**, beraz, parekidetasunaren alde lan egin ahal izateko.

**Bigarren urratsa**, oraindik gauzatu ez dena, **parekidetasun plana sortzea eta garatzea** litzateke. Hau da, arloz arloko defizit zehatz bakoitzari aurre egiteko ekintzak antolatzea.

## 2.1 DIAGNOSTIKOAREN METODOLOGIA: DATUAK ETA PARTE-HARTZEA

Diagnostikoa osatzeko *informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa* bilatu dugu, eta datuen interpretaziorako *herritarren parte-hartzea* bilatu dugu.

*Informazio kuantitatiboa* biltzeko, bigarren mailako informazio-iturriak erabili ditugu:

Informazio kuantitatiboaren bitartez Oiartzungo Emakumeen eta Gizonen parekidetasun inguruko argazkia egitea izan da atal honen helburua. Horretarako adierazleak finkatu eta horien inguruko informazioa bilatu dugu. Beraz, adierazle horiek Oiartzungo emakumeen eta gizonen errealitatearen isla eskeini behar digute, ikuspuntu ezberdinetatik begiratur: demografia, enplegua, hezkuntza, kultura, gizarte-bazterketa, zerbitzu sozio-komunitarioak, kirola ekipamenduak, parte-hartzea erabakietan, etabar.

Datu hauek biltzeko hainbat informazio-iturritara joko dugu: Oiartzungo Udala, Oarsoaldea Enplegu Zerbitzua, Eustat, etabar.

*Informazio kualitatiboa* jasotzeko, modu ezberdinetan jardun gara:

- Sakoneko elkarrizketak egin ditugu.
- Datuak interpretatzeko gaikako lantaldeak antolatu ditugu.
- Sexismoaren transmisio maila neurtzeko, eskoletan ikasleekin jarduerak antolatu ditugu, horien bitartez sexu estereotipoen eta mitoen inguruko perzepzioak jaso ditugu.

*Elkarrizketak:*

- Oiartzungo Udalaren hainbat sailtako sailburu eta teknikariarekin elkarrizketak izan ditugu. Hortarako arlo bakoitzari egokitutako galdetegi bat erabili dugu. Guztiei, hala ere, beren arloko zerbitzuen datuak eskatu ditugu, sexua bereizirik:

1. Gizarte Zerbitzuak eta Hezkuntza
2. Kultura
3. Kirola eta Gazteria
4. Langileria eta Barne Antolaketa

Elkarrizketa eta datu eskaera ere egin diegu hurrengo erakundeei:

Osasun erakundeak:

5. Oiartzungo Osasun Zentrua

Hezkuntza erakundeak:

6. Oiartzungo Udal Ikastola Patzuergoa
7. Elizalde Ikastetxea
8. Elizalde Herri Eskola
9. Haurtzaro Ikastola

Helduen hezkuntza erakundeak:

10. Helduen Hezkuntza (EPA)
11. Helduen Tailerrak
12. AEK

Enplegu zerbitzuen inguruan informazioa jasotzeko

13. Oarsoaldea Enplegu Zerbitzua

Musika jardueren informazioa jasotzeko

14. Ibagain Musika Eskola
15. Herri Musika Txokoa

Gazteen lokalen informazioa jasotzeko

16. Goiko Eskola / Mendibil / Iurrita eta Gaztetxeko kideekin

---

Elkarrizketetan jasotako informazioarekin lehenengo txosten-bat osatu dugu.

Ondoren, datuen interpretazioa egiteko *metodologia parte-hartzailea erabili dugu*. Izan ere, herritarrez osatutako bost lantalde antolatu ditugu herriko datuen interpretazioa egiteko.

Esparruaren arabera eragile ezberdinak gonbidatu dira lantaldera. Adibidez, haur eta gazte hezkuntza lantaldera hezkuntzarekin lotura duten eragileak gonbidatu dira: guraso taldeak, eskolako orientatzaileak, zuzendariak. Esparruak definitzeko orduan, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV Planean (2006) lehentasuna duten ekintza esparruak kontuan hartu ditugu, eta Oiartzunen dauden erakundeen jarduera esparruekin alderatu ditugu. EAEko Plan hori Berdintasun Legearen (2005) aplikaziorako diseinatu zen.



Lantaldeak	Gonbidatuak	Parte-hartzaile
<b>Kultura</b>	Kultura elkarteak eta eragileak	9
<b>Hezkuntza</b>	Hezkuntza langileak: Oiartzungo Udal Ikastola Patzuergoa; Elizalde Herri Eskola eta Haurtzaro Ikastolako gizarte mintegiko kideak; guraso elkarteak.	8
<b>Kirola</b>	Oiartzungo Kirol elkarteak eta eragileak	8
<b>Zaintza</b>	Haur txikien gurasoak	7
<b>Gizarteratzea eta osasuna</b>	Gizarte gaiak jorratzen dituzten Oiartzungo elkarteak eta eragileak; eta osasun eragileak.	11
<b>Parekidetasun lantaldea</b>	Oiartzungo Emakume Taldea HELTA, Kilirrikupe Emakumeen Taldea, herrian dauden beste emakume feministak; aukera berdintasunerako beste eragileak	23
<b>Parte-hartzaileak</b>		<b>67</b>
Errepikatu duten parte hartzaileak		-9
<b>Parte hartu duten herritarren kopurua</b>		<b>58 herritar</b>

Lantaldeetan aurkeztutako herriko datuen interpretazioa egin da. Parekidetasun lantaldeak gainera diagnostikoaren diseinuan parte hartu du: lantaldekideek arlo bakoitzean zeren inguruan galdetu behar zen definitu dute. Guztira 58 pertsona parte hartu dute.

Beraz, lantaldeen ekarpena oso garrantzitsua izan da diagnostikoa osatzeko, bai datuen interpretazioa egiteko bai eta parekidetasun defiziten aurrean zer egiten ahal den aipatzeko.



# **OIARTZUNGO PAREKIDETASUN DIAGNOSTIKOA**

## **I UDAL ERABAKIGUNEAK: EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA ERABAKIETAN**

AURKIBIDEA: UDAL ERABAKIGUNEAK

*Sarrera*

1. Udal Korporazioa
2. Udal Batzordeak
3. Udal Aholku Kontseilua
4. Partaide Anitzeko Erakundeak: Oiartzungo ordezkariak
5. Udal erabakiguneak: emaitzak

## *Sarrera*

**Nolakoa da emakumeen eta gizonen presentzia Udal erabakiak hartzen diren gunetan?**

**Parekoa ala desorekatua?**

**Oraindik gizonen ahotsa emakumeena baino oihartzun handiagoa du erabakietan?**

**Eta sexu-genero joerak antzematen al dira ardura banaketetan?**

Parekidetasun lantaldean adierazitako galdera hauei eta beste batzuei erantzuna ematen saiatu gara atal honetan. Emakumeak historikoki botere guneetatik baztertuta izan dira. Emakumeen parte-hartzea politikaren erabakigunetan azken hiru hamarkadatan zabaldu bada ere, oraindik ez gara benetako parekidetasun egoerara heldu. 1979ko Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Udal hauteskundeetan, zinegotzi guztien %7 soilik emakumeak ziren. 2003ko hauteskundeetan, berriz, emakumeek EAeko zinegotzi postu guztien %28 okupatzen zituzten (Eustatek ez ditu 2007ko hauteskundearen datuak eman). 2003an, alkate guztien %14 soilik emakumezkoak ziren.

Erabakigunetan ematen den parekidetasun maila herrian dagoenaren isla izaten da. Ondorengo ataletan Oiartzungo egoera islatzen dugu.

### **1. UDAL KORPORAZIOA**

Oiartzunek ez du inoiz emakumezko alkaterik izan. Oraingo alkatea ere gizonezkoa da. Alkateordea, berriz, emakumezkoa da.

Hamairu zinegotziek osatzen dute Oiartzungo Udalaren Korporazioa, horietatik zazpi ezker abertzalekoak dira eta beste sei Oiartzun Bai-koak (PNV, EA eta independenteak) dira.

**Sexuari erreparatuz, guztira bost emakumek eta zortzi gizonak Udal Korporazioa osatzen dute.** Hau da, emakumeak osatzen dute korporazioaren %38 eta gizonak %62.

Talde politikoen arabera honako hau da emakumeen eta gizonen presentzia:

<b>Talde politikoa</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Gizonak</b>
Ezker Abertzalea	3	4
Oiartzun Bai	2	4

## 2. UDAL BATZORDEAK

Udal politikaren erabakiak batzordeetan hartzen dira. **10 arlo batzorde** eta **3 bestelako batzorde** daude (bozeramaileena, kontratazio mahaia eta gobernu batzordea). Emakumeen eta gizonen parte-hartzea batzorde bakoitzean aztertu dugu. Taulan datuak islatzen dira:

ARLO BATZORDEAK	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK	BATZORDEBURUA
OGASUNA ETA KONTU BEREZIAK	1	4	GIZONEZKOA
HIRIGINTZA	1	4	GIZONEZKOA
PLANEAMENDUA	1	4	GIZONEZKOA
INGURUMENA eta MENDIAK	1	4	GIZONEZKOA
OBRAK ETA ZERBITZUAK	2	3	GIZONEZKOA
KULTURA	2	3	EMAKUMEZKOA
EUSKARA	2	3	GIZONEZKOA
LANGILE BATZORDEA	2	3	GIZONEZKOA
GIZARTE ONGIZATE	3	2	EMAKUMEZKOA
GAZTERIA ETA HEZKUNTZA	3	2	EMAKUMEZKOA
<b>BESTELAKO BATZORDEAK</b>			
BOZERAMAILEEN BATZORDEA	0	3	GIZONEZKOA
KONTRATAZIO MAHAIA	1	4	GIZONEZKOA
GOBERNU BATZORDEA	1	3	GIZONEZKOA
<b>GUZTIRA</b>	<b>20</b>	<b>42</b>	<b>10 GIZON.+ 3 EMAK.</b>

Oharra: Taulan islatzen da emakumeen eta gizonen presentzia batzorde bakoitzean. Noski, guztira ez dira 20 emakume eta 42 gizon baizik eta 20 emakumezko ahotsak eta 42 gizonezko ahotsak. Hau da, zinegotziek batzorde batean baino gehiago parte hartzen dute, eta hemen islatzen dugun datua da emakumezkoen eta gizonezkoen parte-hartze proportzioa batzorde bakoitzean.

- **EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA:**

Batzorde guztien kideak batuz gero, **%32 emakumezkoak dira eta %68 gizonezkoak.**

Hau da, batez beste **hiru kideetatik bi gizonezkoak eta bat emakumezkoa da.**

Batzordeburuen artean emakumezkoak are gutxiago dira: **13 batzordeburutik 3 bakarrik emakumezkoak dira.**

Beraz, gaurko egoerak oraindik ez du parekidetasuna islatzen.

- **EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARDURA BANAKETA**

*Emakumeek gehien parte hartzen duten batzordeak honako hauek dira: gizarte ongizate eta gazteria eta hezkuntza. Batzorde hauetan emakumeen presentzia gizonena gainditzen du kide batekin (3 emakumezko eta 2 gizonezko). Gizarte Ongizate, Gazteria eta Hezkuntza, eta Kultura batzordeburuak emakumeak dira. Bestalde, Kultura, Euskara eta Langile Batzordeetan bi emakumezko eta hiru gizonezko kidek parte hartzen dute.*

*Gizonezko kideak gehiengoa diren batzordeak, berriz, honako hauek dira:*

*Ogasuna, hirigintza, planeamendua, ingurumena eta mendiak.*

Batzorde guzti hauetan bost kideetatik bat bakarrik emakumezkoa da, eta batzordeburua gizonezkoa da.

**Ardura banaketan, beraz, nolabaiteko genero joera antzematen da.**

Izan ere, **gizonezkoek batez ere arduratzen dira tradizionalki arlo publiko modura konzeptualizatu diren gaietaz (ogasuna, hirigintza, planeamendua eta ingurumena eta mendiak), eta emakumezkoek hartzen dituzten ardurak zeozer ikusirik dute tradizionalki arlo pribatuarekin lotu diren gaiekin, pertsonen zaintzarekin, gazteria eta hezkuntzarekin.**

Kultura, nolabait, bi genero joera hauen arteko arloa da: tradizioaren eta ohituren transmisioarekin zerikusirik badu, baina baita ere artea eta pentsamenduaren zabalkundearekin. Kultura batzordeburua Oiartzunen emakumeakoa da.

### 3. UDAL AHOLKU KONTSEILUA

19 ordezkariak aholku kontseiluan parte hartzen dute. Udalak gonbidapena luzatzen die hainbat erakundeei, eta erakunde bakoitzak (elkartea, sindikatua edo bestelakoa) ordezkari bat eta ordezeko bat izendatzen du. Taulan gonbidatutako erakundeak eta ordezkarien sexua islatzen da:

ERAKUNDEA	ORDEZKARIA	ORDEZKOA
LAB	GIZONA	GIZONA
EKOLOGISTAK MARTXAN	GIZONA	EMAKUMEA
EHNE-BEHEMENDI LANDA GARAPEN ELKARTEA	GIZONA	EMAKUMEA
TTUR TTUR EUSKALZALEEN ELKARTEA	EMAKUMEA	GIZONA
GAZTE MUGIMENDUA	GIZONA	GIZONA
GAZTE MUGIMENDUA	GIZONA	GIZONA
ALDEGUNA ELKARTEA	GIZONA	GIZONA
ARTASO ELKARTEA	GIZONA	GIZONA
GIRIZIA ELKARTEA	GIZONA	GIZONA
UGALDETXXO KULTUR TALDEA	EMAKUMEA	GIZONA
ARRAGUAKO HIRIGINTZA BATZORDEA	GIZONA	GIZONA
IBARGAIN ELKARTEA	GIZONA	GIZONA
GIRIZIA MENDIZALE ELKARTEA	GIZONA	GIZONA
EZKER BATUA – BERDEAK	GIZONA	EMAKUMEA
OIARTZUN BAI	GIZONA	GIZONA
ZUTIK	GIZONA	GIZONA
ITURRI MERKATARI ELKARTEA	GIZONA	GIZONA
ERGOIENGO JAI BATZORDEA	EMAKUMEA	GIZONA
KALAPIE HERRI TXIRRINDULARI ELKARTEA	GIZONA	
<b>GUZTIRA</b>	<b>16 GIZON 3 EMAKUME</b>	<b>15 GIZON 3 EMAKUME</b>

Beraz, kontseiluko kideak 16 gizon eta 3 emakume dira.

Izan ere, gizonek osatzen dute kontseiluaren %84 eta emakumeek kontseiluaren %16.

Parte hartzen duten emakume guztiak kultur jardueren ordezkariak dira.

Oiartzunen dauden emakumeen taldeak (Oiartzungo Emakume Taldea HELTA eta Kilirikupe Emakumeen Taldea) ez dute ordezkariarik aholku kontseiluan.

#### 4. PARTAIDE ANITZEKO ERAKUNDEAK: OIARTZUNGO ORDEZKARIAK

Oiartzungo Udala hainbat partaide anitzeko erakundeen kidea da.

Erakunde **bakoitzak lurralde proiektzio eta helburu ezberdinak** ditu. Batzuen lurralde eremua Euskal Herri osoa da (Udalbiltza), beste batzuk dira eskualdekoak dira (Oarsoaldea, San Markos Mankomunitatea), beste batzuk herri zehatz batzuetan edo Oiartzunen soilik eragina dute (Elizalde Herri Ikastetxea eta Udal Ikastola Patzuergoa).

Helburuen aldetik oso anitzak direnez, ezin dira erraz klasifikatu.

Taulan erakunde hauetan parte hartzen duten Oiartzungo ordezkarien sexua islatu dugu, baita erakundeen erabakietan parte hartzen duten Oiartzungo parte-hartzaileena.

ERAKUNDEA	UDALAREN ORDEZKARIA	EMAKUMEZKO PARTE-HARTZAILEAK	GIZONEZKO PARTE-HARTZAILEAK
UDALBILTZA	GIZONA		1
OARSOALDEA	GIZONA		1
LANBARREN Parke Logistikoa	GIZONA		1
JAIZKIBIA	GIZONA		1
AÑARBEKO URAK	GIZONA		1
SAN MARKOS Mankomunitatea	GIZONA		2
UEMA Udal Euskaldunen Mankom.	GIZONA	2	1
AIAKO HARRIA Parke Naturala	GIZONA		1
UDAL IKASTOLA PATZUERGOA	EMAKUMEA	1	
ELIZALDE HERRI IKASTETXEA	EMAKUMEA	1	1
EUSKAL FONDOA	GIZONA	1	1
PETRA LEKUONA ZAHARREN EGOITZA	EMAKUMEA	1	
<b>GUZTIRA</b>	<b>9 GIZON + 3 EMAKUME</b>	<b>7 EMAKUME</b>	<b>11 GIZON</b>

**Oiartzungo Udalaren lau ordezkarietatik hiru gizonezkoak dira, eta bat soilik emakumezkoa.** Azken hiru emakumezko hauek hezkuntza eta gizarte zerbitzuko erakundeetan Udala ordezkatzan dute. Beste infrastrukturen erakundeetan, baita lurralde erakundeetan, gizonezkoak dira Oiartzungo Udalaren ordezkariak.

Beraz, hemen ere **genero joerak** antzematen dira: emakumeen presentzia hezkuntza eta gizarte zerbitzuko erakundeetan ematen da, eta beste erakunde guztietan gizonezkoak dira ordezkariak.



## 5. UDAL ERABAKIGUNEAK: EMAITZAK

- Emakumeek hainbat Udal erabakigunetan presentzia badute ere, **oraindik ez dira gizonekin egoera parekide batean**. Orokorrean gizonen parte-hartzea batzordeetan emakumeena bikoizten du, hau da, emakumeek osatzen dute orokorrean erabakietan parte hartzen dutenen herena, eta gizonek beste bi heren osatzen dituzte. Aholku kontseiluan eta partaide anitzeko erakundeetan emakumezko ordezkarien portzentaia are txikiagoa da.  
**Konsistorioan emakumeen presentzia gizonena baino txikiagoa da (%38).**  
**Udal batzordeetako kideen %32 bakarrik emakumezkoak dira.**  
**13 batzordeburuetatik 3 bakarrik emakumezkoak dira.**
- Hiru batzorde berezietan emakumeek ez dute ia presentziarik:  
**Bozera maileen batzordean ez dago emakumerik.**  
**Kontratazio mahaian bost kideetatik bat bakarrik emakumezkoa da.**  
**Gobernu batzordean, lau kideetatik bat bakarrik emakumezkoa da.**  
Hiru batzorde hauen batzordeburuak gizona zkoak dira.
- Aholku Kontseiluan emakumezko kideak %16 bakarrik osatzen dute, eta gizona zkoek %84. Oiarzungo emakumeen taldeak ez dute ordezkariarik aholku kontseiluan.
- Partaide anitzeko erakundeetan ere Udalaren ordezkari gehienek gizona zkoak dira.  
**12 ordezkarietatik 3 emakumezkoak dira.**
- **Sexu-genero joerak eta arduren banaketa:**  
Bai gizonen bai emakumeen parte-hartzean erabakietan genero joerak edo genero ardura banaketa antzematen da. Izan ere, **gizona zkoek batez ere arduratzen dira tradizionalki maskulinoztat jotzen diren gaietaz, arlo publikoari lotzen direnak (ogasuna, hirigintza, planeamendua eta ingurumena eta mendiak), eta emakumezkoek dituzten ardura nagusiak tradizionalki femininoztat jo diren gaien ingurukoak dira, famili arloari lotzen direnak: pertsonen zaintzarekin, gazteria eta hezkuntzarekin.**



# **OIARTZUNGO PAREKIDETASUN DIAGNOSTIKOA**

## **II OIARTZUNGO UDAL LANGILERIA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA**

AURKIBIDEA: UDAL LANGILERIA

*Sarrera*

1. UDAL LANGILERIA: KATEGORIA ETA SEXUA
2. UDAL LANA ETA FAMILI ARDURAK UZTARTZEKO BALDINTZAK
3. EMAITZAK

## *Sarrera*

**Zenbat emakumek eta zenbat gizonek osatzen dute Udal langileria?**

**Zertan aritzen dira emakumezko langileak eta zertan gizonetzkoak?**

**Sexu-genero joerak antzematen al dira lanbideen aukeraketan?**

**Eta lanbide feminizatuak modu egokian baloratzen al dira?**

Parekidetasun lantaldean adierazitako galdera hauei erantzuna ematen saiatzen gara atal honetan. Horretarako, azaleko azterketa egin dugu, Udal langileriaren sexu eta talde datuak gurutzatuz.


2008ko urrian Oiartzungo Udalean 84 pertsona lanean aritzen ziren, horietatik lauk lanpostu politikoetan (alkatetzan hiru gizonetzko eta emakumezko bat, azken hau idazkaria). Lanpostu hauek ez ditugu kontuan hartu datuak aztertzerakoan, langileriaren argazkia ahalik eta zehatzen eman ahal izateko.

**Beraz, kontuan hartu ditugu 80 langileen sexu eta talde datuak, guztiak Udalak zuzenean kontratatukoak. Datu hauen azalezko azterketa soilik egin dugu, udal langileriaren irudia eman ahal izateko. Azpikontratazioaren bitartez Udalaren zerbitzuetan lan egiten dutenen datuak ez ditugu jaso, horrelako analisia lan zabalagoa eskatzen baitzuen.**

## 1. UDAL LANGILERIA: TALDEA ETA SEXUA

Oiartzungo Udalean guztira **41 emakumezko** eta **39 gizonzko** lan egiten dute.

Sexua eta taldea kontuan hartuz gero, honako irudia dugu:



**“A” taldea: hirutatik bi emakumezkoak dira.**

7 emakumezko eta 3 gizonzko langile daude.

*Emakumezkoak dira:* artxibozaina, administrazio orokorreko teknikaria, bi ekonomilari, liburutzaia, euskara teknikaria eta berdintasun teknikaria.

*Gizonezkoak dira:* arkitektoa, mendi-ingurumen teknikaria eta kultura teknikaria.

**“B” taldea: emakumezkoak gehiago dira.**

5 emakumezko eta 3 gizonzko langile daude.

*Emakumezkoak dira:* lau gizarte langile eta arkitekto teknikoa.

*Gizonezkoak dira:* langileria teknikaria, gizarte langile bat eta gazteria dinamizatzailea.

**“C” taldea: sexu lan aukeraketa nabari: administratiboak eta lan fisikoen arduradunak.**

15 emakumezko eta 6 gizonzko langile daude.

*Emakumezko guztiak administratibo lanetan aritzen dira:* 6 idazkaritzan, 5 ekonomia arloan eta beste lau arlo ezberdinetako administratiboak dira.

*Gizonezkoak dira:* udal obren arduraduna, udal zerbitzu arduraduna, ur arduraduna, elektrizitate arduraduna, informatika arduraduna eta delineatzailea.

**“D” taldea:**

**sexu-lanbide banaketako “gizonezkoen” taldea: udaltzainak eta lan fisikoetako ofizialak**

26 gizonezko eta 3 emakumezko langile daude:

*Gizonezkoak dira:* 14 udaltzain, 10 eginkizun anitzeko ofizialak, bedel bat eta mendizaina.

*Emakumezkoak dira:* bi udaltzain eta kazetari bat.

**“E” taldea:**

**Emakumezko zaintzaileak eta gizonezko langile ez kualifikatuak**

*Emakumezkoak dira:* 9 etxez etxeko laguntzaileak.

*Gizonezkoak dira:* bi peoi arruntak eta eskolako atezaina.

## **2. LAN ORDAINDUA ETA FAMILI ARDURAK UZTARTZEKO BALDINTZAK**

Edozein langilek eduki dezake lan ordaindua eta famili ardurak uztartzeko zailtasunak, batez ere seme-alabak baldin baditu edo ezintasuna / gaixotasuna duen pertsona bat bere kargu baldin badu (gehienetan adineko gurasoak). Emakumeek gizonek baino gehiagotan zailtasun hauek pairatzen dituzte, famili zaintza ardurak maizago bere kargu hartzen dituztelako.

Legez neurri batzuk ezarri dira zailtasun hauei aurre egiteko (“Ley de Conciliación de la Vida Laboral y Familiar). Bestalde, hainbat Udal eta administrazio publikoetan bestelako neurriak ere ezarri dira zailtasunei erantzuna emateko (ordutegi malgutasuna, bereziki sartzeko orduan, eta amatasun edo aitatasun lizentzia luzatzea).

Oiartzungo Udalan dagoen egoera honako hau da:

- **ORDUTEGI MALGUTASUNA:**

Salbuespenak ezik (Udaltzainak...), langile guztiek lan ordutegi berdina dute: **goizez lan egiten dute, eta 08:00ak baino lehen sartu behar dira. Ez dago malgutasunik beranduago lanera sartzeko, seme-alabak eskolara eramán ahal izateko.**

- **JARDUNALDI MURRIZKETA:**

Famili ardurei aurre egiteko legez eskatzen ahal den jardunaldi murrizketa (6 urte

azpiko haurren gurasoak, edo ezintasuna duen senide baten kargu daudenak) gutxitan eskatu izan da Oiartzungo Udalean. Momentu honetan **bi langile eskatu** dute jardunaldi murrizketa. **Edozein langilek (finkoa aldi denboraldi baterakoa) eskatu dezake murrizketa hau** aipatutako egoeran baldin badago. 2009ko Udalhitz-an aurreikusten da jardunaldi murrizketa eskatu ahal izatea seme-alabak 12 urte bete arte.

- **UDALAREN HOBEKUNTZAK: AMATASUNA**

Oiartzungo Udalak urteotan Udalhitzan hitzartutako amatasun lizentzia hobetu du, hau da, 10 egun gehiago eman izan ditu (Udalak guztira 130 egun amatasun lizentzia ematen du). Urte hauetan Udalhitz-an adostatutako egun kopurua ere handitzen joan da, eta gaur egun 4 egunetako aldea dago (Udalhitzan 126 egun amatasun lizentzia).

Aitatasun lizentziari dagokionez, Udalak Udalhitzan hitzartutakoa ezartzen du, gaur egun 15 egun.

### 3. UDAL LANGILERIA. EMAITZAK

#### LANGILERIA: SEXUA ETA TALDEA

- **Oiartzungo Udalan emakumeak nagusitzen dira ardura eta kualifikazio gehien duten lanpostuetan. “A” eta “B” kategorietako hiru langileetatik bi emakumezkoak dira.** Inguruko administrazio publikoetan egoera antzekoa ematen da gaur egun. Arlo pribatuan, berriz, sexuen arteko proportzioa goiko lanpostuetan hain justu kontrakoa da: %32 emakumezkoak dira eta %68 gizonezkoak (2006ko Estatuko datua). Administrazio publikoan aukera berdintasuna bermatzen da langileen aukeraketa sistemaren bitartez (oposaketak). Arlo pribatuan, berriz, aukera berdintasuna ez da beti bermatzen, are gutxiago goiko lanpostuetan, eta aukeraketan gizartean ematen diren aurreritzi sexistak eragiten ahal dute.
- **Sexu-genero joerak oso nabariak dira lanbide aukeraketan:**  
41 emakumezko langileetatik 28 lanbide “feminizatueta” jarduten dira: 15 emakumezko administratibo lanetan aritzen dira, 9 etxez etxeko laguntzaileak eta 4 gizarte langileak dira.

Gizonezko gehienek, berriz, koncentratzen dira udaltzain lanpostuetan eta lan fisikoetan. 39 gizonezkoetatik 14 dira udaltzain, eta beste 10 eginkizun anitzeko ofizialak. Bestalde, hirigintza edo obretako arduradun ia guztiak ere gizonezkoak dira. Hala ere, 2008an bi emakumezko udaltzain lanean jardun, bata finkoa eta bestea ordezkapenak egiten dira.

- **Etxez etxeko langileak “E” taldean: zaintzaileen kualifikazio “naturala”**

Zaintzarekin lotzen diren hainbat lanpostuen kualifikazioa historikoki ez da formalki onartu, zaintzarekin beharrezkoa den ezagutza “naturalki” emakumeei egokitu zaielako, nahiz eta errealitatean lana behar den bezala burutzeko ezagutza espezifikoa beharrezkoa den. Oiarzungo Etxez Etxeko Zerbitzuaren langileek “E” taldean daude, nahiz **2008an izandako bi lanpostuen oposaketan** eskatzen zen ezagutza formakuntza zehatz bati dagokion (etxez etxeko laguntzaile formakuntza). Beraz langile hauen kategoria ez litzateke kualifikazio zehatza eskeintzen ez duen batena izan behar. Berez, oposaketa horretan Etxez Etxeko laguntzaile titulua edukitzea lehiaketaldian baloratzen zen.

#### LAN ORDAINDUA ETA FAMILI ARDURAK UZTARTZEKO BALDINTZAK

- **Ez dago ordutegi malgutasun nahikorik seme-alabak eskolara eramane ahal izateko.**
- Gutxi dira jardunaldi murrizketa eskatu duten langileek (“Ley de Conciliación”).
- **Udalak amatasun lizentzian** Udaltzain hitzartutakoa baino 4 egun gehiago ematen ditu. Aitatasun lizentzia Udaltzainakoa da.



***OLARTZUNGO PAREKIDETASUN DIAGNOSTIKOA***

**III KULTURA ATALA**

## KULTURA AURKIBIDEA

### *Sarrera*

1. XANISTEBANAK 2008
2. HERRIKO PLAZAN EGINDAKO JAIALDIAK
3. KULTUR EKITALDIAK KIROLDEGIAN
4. ANTZEZLANAK
5. IKERLANAK
6. ERAKUSKETAK
7. MUSIKA JARDUERAK:  
IBARGAIN MUSIKA ESKOLA, HERRI MUSIKA TXOKOA ETA MUSIKA TALDEAK.
8. GAZTE LOKALEN BESTELAKO KULTURA JARDUERAK
9. OIARTZUNGO EMAKUMEEN TALDEAK: HELDUEN TAILERRAK + KILLIRIKUPE.
10. HIZKUNTZA ETA IRUDIEN ERABILERA SEXISTAREN AZTERKETA.

OHARRA: Kultura esparrua hain zabala denez, atal asko aztertu behar izan ditugu azalezko argazki bat eman ahal izateko. Hori dela eta, azterketaren **emaitzak atal bakoitzaren bukaeran** kokatu ditugu, irakurketa ez konplikatzeke.

## *Sarrera*

Oiartzungo Udalaren Kultura politika *herriko ekimenak sustatzea du helburu*. Beraz, Udalaren inizatibaz antolatzen diren kultura jarduerak oso gutxi dira. Helduentzako kultura ikastaroak, adibidez, Oiartzungo Emakumeen Taldeak antolatzen ditu. Inauteriak, Oiartzungo jaiak, etab., herriko taldeek eta jai batzordeek antolatzen dituzte, noski, udalaren laguntza ekonomikoa eta teknikoarekin, baina ez Udalaren ekimen modura.

*Azalpen hau beharrezkoa da, atal honetan aztertutakoa ulertzeko: ez dugu zehazki Udalaren kultura jarduera genero ikuspegitik aztertzen, baizik eta herrian ematen den kultura jarduera*. Udalaren Kultura arloko memoriarik osatzen ez denez, gehienbat 2008ko datuak bildu ditugu. Urtekari bat osatzen da, baina bertan ez da emakumeen eta gizonen parte-hartze inguruko daturik jasotzen. Beraz hemen islatzen den informazio gehiena hainbat elkarriketetan oinarritzen da: Kultura Batzordeburuarekin (Idurre Bera) eta udal kultura teknikariarekin (Joxean Eizmendi) egon gara; Oiartzungo Ibergain Musika Eskolako eta Herri Musika Txokoaren zuzendariekin ere bildu gara; eta hainbat bilera izan ditugu Oiartzungo Emakumeen Taldeko kideekin (Oiartzungo Emakume Taldea HELTA) eta Oiartzungo Musika Taldeen Elkarteko kideekin. Musika jardueretan eta Helduen tailerretan emakumeen eta gizonen parte-hartze kopuruak jaso ditugu.

Txosten honetan urtero errepikatzen diren herriko kultur ekintzak azalez aztertu ditugu, eta Oiartzungo emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako **indarguneak eta ahuleziak** detektatzen saiatu gara.

*Jardueren protagonistak zeintzuk diren, eta ea sustatutako jarduerak bereziki gizonen edo emakumeen interesak asetzen dituzten, aztertu dugu.*

## 1. XANISTEBANAK 2008

Oiartzungo Xanistebanen egitaraua aztertu dugu, emakumeen eta gizonen protagonismo maila gaur egun zein den jakiteko. Jaien antolakuntzaren inguruko azterketa zehatzik ezin izan dugu burutu, baina etorkizun hurbilean gai honi ere heltzea espero dugu. Kultura zinegotziak azpimarratu zuenez, azken finean garrantzitsua da emakumeen eta gizonen protagonismoa espazio publikoan, baina baita ere jakitea gaur egun nola banatzen diren lanak jaietan (txoznetako txandak, sukaldaritza lanak eta garbiketara lanak, eta etxeko edo haur zaintza lanak). Garrantzitsua litzateke jakitea ea emakumeek eta gizonak jaietan beren aisialdiaz gozatzeko tarte berdina hartzen duten. Hala ere, aurten ezin izan dugu gau hau aztertu, baina aurrerantzean jai batzordeekin horren inguruan gogoeta egitea komeni litzateke.

### *Emakumeak eta gizonak: noiz protagonista*

Espazio publikoan historikoki gizonak izan dira jabe eta protagonista. Emakumeek gaur egun espazio publiko horretan askatasunez mugitzeko eta protagonista izateko eskubide osoa badute ere, hainbatetan tradizioak eta ohiturak oraindik bigarren plano batean uzten ditu. Hori dela eta, interesgarriz jo dugu kultura ekitaldietan emakumeen eta gizonen protagonismoa aztertzea, baita zeinen interesen arabera antolatzen diren ekitaldiak.

Izan ere, herriko jaietan protagonista izatea, hau da, begiraden jopuntua izatea, espazio publikoan ekiteko eta espazio horretan askatasun osoz jokatzeko ateak irekitzen ditu. Adibide sinple gisa: inoiz neskek ez badituzte buruhandiak eramaten, zaila izango da inoiz neskek pentsatzea beraiek ere horretan aritzen ahal direla, beraiek ere besteek "harrapatzen" ahal dituztela. Neskak ekintza horretan ikusten baldin badituzte, berriz, beraiek ere egunen batean hor egoteko eskubide osoa izango dutela ikasiko dute. Beraz, nesken eta emakumeen protagonismoa arlo publikoan ezinbestekoa da parekidetasuna benetazkoa izateko.

Jai Batzordeek antolatzen dituzte jaiak, eta bertan hainbat herriko eragile eta elkarteekin koordinatzen dira. Beraz, sortzen den egitaraua eragile ezberdinek egindako proposamenak elkartzen ditu. Batzordeko bileretan ez dira beti pertsona berdinak agertzen, baina orokorrean emakumeek gizonak baino gehiago parte hartzen dute.

Aurtengo Xanistebanetako Jai Batzordean emakumeek gizonek baino gehiago parte hartu dute, eta txoznen txandetan emakumeen eta gizonen presentzia parekatua izan omen da. Baina emakumeak batzordean parte hartzeak ez du parekidetasuna ziurtatzen egitarauan, tradizioak eta ohiturak neurri batean bakarrik eraldatu direlako, eta oraindik gizonek protagonismo gehiago eskuratzen dute.

#### *EMAKUMEAK / NESKAK NOIZ BEREZIKI PROTAGONISTA?*

- *Kartela*: irudian agertzen da emakume bat dantzan.
- *Udalaren 2008ko Sariak*: herritarrek hautatutako saridunak emakumeak izan dira. Udalak antolatuta, 2008ko sariak herritarrek txartel baten bitartez hautatutako pertsonak jaso dute. Bi emakume aukeratu izan dira: Maixabel Arbide Arrieta, misioetan hainbat herrialdeetan aritutakoa; eta Izaskun Zubizarreta Gerendiain, 2008ko munduko eski txapelketetan parte hartu duen kirolaria.
- *Antzerkia*: *Txirene Antzerki Taldearen "Gezurretazko Printzearen"* lanan Edurne Agirrezabala bakarrik aritzen da. Tratu txarren gaia jorratzen da.
- *Eskulanen eta margolanen erakusketa*.

#### *GIZONAK / MUTILAK NOIZ BEREZIKI PROTAGONISTA?*

##### **Hainbat kirol ekitaldietan...**

- Oiarpek antolatutako *Aspe etxeko pilota partida*
- *Herriko pilotarien eskuz banakako finalak*.
- *Haurren pilota txapelketa herrikoia*.
- *Txirrindulari lehiaketa*: gizonezko lehiaketa da, soilik. 23 urte azpiko gizonak / mutilak lehiatu ziren.
- *Joko Garbiko I Txapelketa*. Mutilek / gizonek bakarrik parte hartu zuten.

##### **Herriko ekitaldietan...**

- *Suziria bota zutenek*: Abegi Elkarteko kideak izan ziren lehenengo suziria bota zutenek. Bi gizonezko agertu ziren Udaletxeko balkoian.
- *Sokamuturra*: mutilek eta gizonek ia soilik parte hartzen dute horrelako jardueretan non arrisku fisikoa hartzeko "ausardia" azpimarratzen den.
- *Pottokak eta zezen txikiak*: gehienbat mutilek parte hartzen dute.

- *Ehiza zakur lehiaketa*: parte hartzaileak gizona ziren (artzaiak).
- *Idi Dema*. Udalak berri egindako idi demarako plazan gizonak izan ziren.
- *Herri Kirolen Jaialdia*. Harrijasotzaileak eta aizkolariak gizonak ziren.
- *Erraldoiak eta buruhandiak eramatea*: horien kalejirak, topaketa... gizonak bakarrik eramane zituzten erraldoiak, horien artean mutil batzuk erraldoi txikiak eramane zituzten. Mutilek bakarrik eramane zituzten buruhandiak.

### **Kultur ekitaldietan**

- *Zinema gauean*: proiektatu ziren hiru pelikulen gizonetzko protagonistak zituzten: Donkey Xote, Hiru Mosketariak eta Nomada TX.
- *Juan Mari Beltranen liburua*ren aurkezpena.

## **BAI GIZONAK BAI EMAKUMEAK PROTAGONISTA**

Hurrengo ekintzetan bai gizonak bai emakumeak parte hartu zuten. Hala eta guztiz, emakumeen protagonismoa hainbatetan txikiagoa zen, hala nola, sega txapelketan, pala txapelketan, herri krossan eta beste hainbatetan.

- *Soka-dantza*. Zinegotzien artean emakumeen eta gizonen kopuruak parekoak zirenez (3/4), protagonismoa orekatua izan zen. Hala ere, soka dantza honetan gizonetzko dantzari adituak (2) protagonismo nagusia dute (tarteka banaka dantzatzen dira).
- *Lartaun Abesbatza*: emakumeen presentzia abesbatzan gizonena gainditzen du.
- *Kalean ibili diren musikariak eta dantzariak*, orokorrean *kalejirak*: Oiartzungo soinu jotzaileak eta txistulariak (goiz eresia eta kalejirak), Oarsoaldeko eta Donostialdeko dultzaineroak eta danbor jotzaileak, kanpotikan etorritako Britainako gaiteroak, Cerdanyolako musikariak, kantu kantarian aritutakoak... emakumeak eta gizonak ziren.
- *Trikitilari eta dantzari gazteen txapelketetan*: trikitilari ia guztiak neskak ziren (nahiz eta kartelean gizonen irudia agertu), eta dantzariak neskak eta mutilak ziren.
- *Txistularien kontzertu herrikoian*: emakumeak eta gizonak jo zuten, gizon baten zuzendaritzapean.
- *Helduen eta haurren danborradak*. Neska-mutilak, emakumeak eta gizonak parte hartu zuten. Hala ere, kantineraren figura –neska polita, geldia eta pasiboa- mantentzen da, nahiz honen figura ezaugarri sexistak izan.

- *Sega txapelketa*: gizon gehiago parte hartu bazuten ere, emakumeak ere lehiatu ziren.
- *Areto-futbol txikia*. Nesken eta mutilen taldeak baziren.
- *Pala txapelketa herrikoia*:  
Neskak erabateko gutxiengoa baziren ere, hor aritu ziren ere bai.
- *Zozongó*: talde honetan emakumeak dantzan aritzen dira eta gizonek perkusioa jotzen dute. Gizonak gehiengoa izan arren, biek dute protagonismoa ekintzan.
- *Rock Jaialdiak*: talde gehienen kideak gizonak izan arren, emakume batzuk ere protagonista ziren, hala nola, Zea Mays taldearen abeslaria.
- *Herri Krossa*, nahiz gizon eta mutil gehiago parte hartu.
- *Soka-tira txapelketa*. Mutilen taldeak gehiago baziren ere, neskek ere parte hartu zuten.
- *Truk txapelketa*. Gehienbat gizonek parte hartu zuten, baina emakume batzuk baziren.
- *Dantza ikuskizuna*: Sehaska.
- *18. Ardi Gazta Lehiaketa*.
- *Euskal Karaokea*.
- *Oiartzunen 1936an fusilatuen eta desagertuen inguruko erakusketa*. Kattin Ttiki taldeak prestatutako erakusketan gehienbat gizonak agertzen badira ere, emakumeen presentzia ere espreski islatzen saiatu dira, bai paneletan bai dokumentalean.

Nahiz eta jarduera gehienetan emakumeek eta gizonen parte hartu...

- **Oraindik gizonen emakumeek baino gehiagotan izaten dira protagonista bakarrak.**
- **Gehiago dira gizonen interesa bakarrik jasotzen dituzten ekitaldiak, gehienek tradiziozkoak edo kirolari lotutakoak (zezenak, idi dema, txirrindularitza, eskupilota...)**  
Honek ere esan nahi du infraestruturaren publikoen dedikazioa, baita gastua, handiagoa izaten da bereziki gizonen intereserako diren ekitaldietan.
- **Emakumeek bereziki protagonista izan diren jarduerak** infraestruturaren publikoen dedikazio edo gastu txikiagoa eskatzen zuten: eskulanean eta margolanen erakusketa kontsejupean... Antzerkia izan ezik.
- **Hala ere, Udalaren esku zeuden bi egoeretan protagonistak izan dira emakumeak:**  
**Kartelean** emakume baten irudia agertzen zen;  
**Udalaren sari nagusiak emakumeentzat izan dira.** Modu horretan, emakume horien izenak nolabait **herriko historia bihurtzen dira**, eta agian egunen batean herriko kale bat izendatzeko erabiliko dira.

*Jaietan parekidetasuna sustatzeko hainbat proposamen praktiko:*

➤ *Nesken eta emakumeen protagonismoa areagotzea “eszenatokian”*

Urtean zehar badira hainbat jarduera non emakumeak edo neskek bereziki parte hartzen duten, hala nola, *sabel-dantza* ikastaroa (Helduen Tailerrak), *dantza garaikidea* (76 neska) edo *gimnasia erritmikoa* (95 neska). *Jarduera horiek jaietan ere plazaratzea, neskei eta emakumeei protagonismo ematea*, interesgarria litzateke. Bestalde, kontzertuen *musika taldeen aukeraketan* emakumeak ekartzeko ahalegina areagotzea ere interesgarria litzateke. Jaietan hasierako ekitaldian, *suzirian*, emakumeen eta gizonen presentzia parekoa izatea interesgarria litzateke. Balkoian agertzen direnak bai emakumeak bai gizonak izatea erreferentziala da. Omendutako emakumeak eta gizonak tartekatzea urtez urte, edo elkarte bat omentzen denean emakumezko kideen presentzia eskatzea komenigarria litzateke.

➤ *Danborradan “kantineraren” figura eraldatzea*

Kantineraren figurak dituen ezaugarri “sexistak” eraldatzeko aukerak bilatzea, adibidez, “polita eta pasiboa” izatearen ordean, dantzari trebea eta ausarta izatea. Herriko 95 neskek gimnasia erritmikoa egiten dute eta beste 76k dantza garaikidea, beraz aukera egongo



litzateke horrelako papera jokatu nahi duen neskarik, edo mutilik, topatzeko. Luzaroan figura hori ezaugarri sexistekin, eta sexua berarekin lotua ez izatea, interesgarria litzateke.

➤ *Jai egitarauan kirol jarduerak behar den moduan izendatzea*

*Jaien egitarauan hainbat kirol jardueretan ez zen zehazten bakarrik mutilentzako edo gizonentzako zirela, hala nola, “61. Xanisteban Txirrindulari Saria, 23 urte azpiko eta elite mailako txirrindularientzat” eta “Haurren pilota txapelketa herrikoiairen finalak”. Neskek parte hartzen dutenean, berriz, zehazki aipatzen da. Badiru, beraz, kirol jarduerak berez mutilenak direla, eta nesken parte-hartzea berriz salbuespena dela. Azkenfinean, mutil edo gizonentzako bakarrik baldin badira, hori horrela zehaztu beharko litzateke.*

➤ *Emakumeak jaietan gozatzeko aukera berdina izateko kanpaina abiatzea... Etxeko lanen banaketaren alde eta ligatze osasuntsuaren aldeko ekimenak*

➤ *Jai batzordeekin emakumeen eta gizonen presentzia eta ekarpena jaietan aztertzea, bai txoznetako txandetan, bai eta etxeko lanen banaketan. Azterketa egiteko 2008ko argazki bilduma dugu. Interesa sortuko balitz, “Amonak ere gauez parrandan” edo antzeko kanpaina abiatzea.*

## 2. HERRIKO PLAZAN EGINDAKO JAIALDIAK

Done Eztebe plazan gutxi gorabehera hilean behin jaialdi bat antolatu du Udalak, herriko eragileen ekarpena herri osoari zabaltzeko asmoz. 2008ko jaialdietan emakumeen eta gizonen protagonismoa aztertu dugu, baita zein paper edo rolean agertu diren ere.

### Jaialdiak 2008an

- *Kaldereroak eta Iñude eta Artzainak*: neskek eta mutilek, emakumeek eta gizek, parte hartzen dute ekintza hauetan. Iñude eta Artzaien konpartsan neskek iñude papera betetzen dute (haur zaintzaileak) eta mutilak artzainena. Beraz, sexu rolak eta rolaekin lotutako lanak bereziki azpimarratzen dira tradizio honetan. Zorionez, azken dantzan eta minutu batez rolak aldatzen dituzte (mutilak panpina eta neskek makila), baina hori maizago gertatzea komenigarria litzateke. Konpartsan agertzen diren beste hainbat pertsonai iadanik ez dira sexuaren arabera banatzen: bai neskek bai mutilak danborra jotzen zuten, edo neska batek batutarekin erritmoa markatzen zuen.
- *Iñauteriak*: Neskek eta mutilak parte hartzen dute: intxixuak mutilak izaten dira, eta sorginak neskek.
- *Helduen Tailerren erakustaldia*: gitarra eta bertsoak uztartu dira, eta bai emakumeak bai gizonak parte hartu dute.
- *Oiartzungo Musika Taldeen Elkarteak (OMTE)* antolatuta, bi jaialdi egin ziren. Musika jotzen duten guztiek gizonak ziren.
- *Herri kirolak eta bertsolariak*: gizonak eta emakumeak aritu ziren, emakumeak bereziki sokatiran.
- *Loriartzun: Zozongó, Space Mukaki, Trikizio*: emakumeak eta gizonak aritu ziren.

## JAIALDIEN EMAITZAK: EMAKUMEAK GUTXITAN PROTAGONISTA

Emakumeen eta nesken protagonismoa areagotzeko hainbat proposamen egin daitezke:

- OMTerekin aztertzea ea posible litzateken *musika taldeen aukeraketan* emakumezko kideak dituzten talde gehiago ekartzea.
  
- *Jaialdietan nesken eta emakumeen protagonismoa areagotzea "eszenatokian"*  
Urtean zehar badira hainbat jarduera non emakumeak edo neskek bereziki parte hartzen duten, hala nola, *sabel-dantza* ikastaroa (Helduen Tailerrak), *dantza garaikidea* (76 neska) edo *gimnasia erritmikoa* (95 neska). *Jarduera horiek jaialdietan ere plazaratzea, neskei eta emakumeei protagonismo ematea, interesgarria litzateke.*
  
- *Jaialdi tradizionaletan sexu-rol banaketa eraldatzeko aukerak aztertzea*  
Gizartea aldatu den heinean hainbat tradizio ere eraldatu dira, egungo baloreetara egokitzeko. Jaialdi tradizionalen arduradunekin sexu-rol banaketa aztertzea interesgarria litzateke, eta hainbat kasutan modu kreatiboan, edo humorearen bitartez, figura batzuen sexu-rolak eraldatzea. **Behintzat danborradaren kantineraren figura** nola eraldatu aztertzea, polita eta pasiboa izatea "neskaren ezaugarri nagusiak" ez izateko. **Iñude eta artzaien arteko rol banaketa modu kreatiboan, edo humorearen bitartez, eraldatzeko aukerak** ere aztertzen ahal dira: tarteka artzaiak panpina eramatea, eta iñudeak makila. Bukaerako dantzan momentu batean hori egin zen, baina maizagoa izatea komenigarria litzateke.

### 3. KULTUR EKITALDIAK KIROLDEGIAN: PROTAGONISMO PAREKOA

Ekitaldi hauetan 2008an emakumeak eta gizonak eszenatokira igo dira.

Emakumeen eta gizonen protagonismoa parekoa izan da.

- “Ez gaude denok” bertso saioan bi emakumezko eta zazpi gizezko bertsolari parte hartu zuten. Gai jartzailea ere gizona zen.
- Pirritx eta Porrotx: neska-mutilentzako ekitaldia, non protagonismoa mistoa den.
- Burrunka taldearen kontzertua: talde honetan gizonak eta emakumea aritzen dira musikan eta dantzan. Kontzertu hau “Herri bat, Nazio bat” egitarauan kokatuta zegoen. Egitarau horren beste protagonista guztiak gizonak ziren (ipuin kontalariak, idazleak...).

KULTUR EKITALDIAK KIROLDEGIAN: EMAITZAK
---

Emakumeen eta gizonen protagonismoa parekoa izan da.

#### 4. ANTZEZLANAK: EMAKUMEAK BAI, ETA INDARKERIA TAULARATUA

2008an bost antzezlan eman dira Oiartzunen.

- *Ohean*: Emakume bat eta gizon bat eszenatokian. Zuzendaritzan gizon bat. Kultura arloak antolatuta.
- *Tartean*: Emakume baten monologoa. Testua gizon batena. Martxoak 8 egitaraua, Udal Berdintasun Ekimena.
- *Gezurretazko Printzea*: emakume baten monologoa. Jai batzordeak antolatuta.
- *Grönholm Metodoa*: gizon eta emakumeak eszenatokian. Girizia elkarteak antolatuta.
- *Enkantatua*: Emakume baten monologoa. Emakume batek zuzenduta. Azaroak 25eko egitaraua, udal berdintasun ekimena).

**Emakumeek izan dute gizonen baino presentzia handiagoa taularen gainean.**

Bost antzezlanetatik hiru izan dira emakume bakarlariekin lanak: *Tartean*, *Gezurretazko Printzea* eta *Enkantatua*.

Azpimarratzekoa da jaietan antzeztutako “*Gezurretazko Printzea*” obra (*Txirene Antzerkia*), emakume baten monologoa non tratu txarren inguruko gogoeta egiten den. Oiartzungo Xanistebanetako jaietan eta Gurutze auzoko jaietan ere eman izan da. Beste bi obretan ere emakumeen “genero” egoera nolabait aztertzen da: *Tartean* (preso dagoen emakume baten istorioa) eta *Enkantatua* (ipuin tradizionalan emakumeek duten tokiaren inguruko gogoeta), biek Udalaren Berdintasun Ekimenak antolatuta.

#### ANTZEZLANAK: EMAITZAK

Aurten emakumeen presentzia gizonena zertxobait gaintu du. Urtero emakumeen eta gizonen presentzia parekoa izatea komenigarria da. Parekotasun hori Kultura politikan helburu moduan txertatzea interesgarria litzateke.

## 5. IKERLANAK: EMAKUMEEN EKARPENA OIARTZUNGO HISTORIAN?

Ikerlanen atalean lau ikerlan sustatu dira 2008an:

- Oiartzungo Atsotitzak: jasotako atsotitzak herrikoiak ziren, beraz bai emakumeen bai gizonen ingurukoak ziren.
- Juan Mari Lekuonari buruzko ikerlana.
- Sebastian Mendibururi buruzko ikerlana.
- Rafael Picavearen inguruko ikerlana.

Aurreko urteotan Udalak sustatutako beste ikerlanetan ere ez da bakar batean emakumeen historia jasotzen. Beraz, emakumeek espazio pribatuan eta publikoan izan duten presentzia edo bazterketa ez da inon islatu, emakumeak ez baitira ikerlan hauetan ia agertzen (atsotitzetan izan ezik). Ezer gutxi dakigu Oiartzungo emakumeen historiaz, horrelako ikerlanik momentuz sustatu edo proposatu ez delako.

### IKERLANAK: EMAITZAK

**Oiartzungo emakumeen presentzia eta ekarpena herriko historian ez da oraindik dokumentatu**, eta momentuz hainbat gai azertu gabe daude: Oiartzungo emakumeen bizitza gerra zibilaren garaian, gerra ondoko garaian, emakumeen presentzia inguruko industrietan (Lanera...), edo hirietara “neskame” joan zirenen istorioa. Orokorrean, ezer gutxi dakigu Oiartzungo emakumeen historiaz. **Beka baten bitartez, historia hau berrezkuratzeko aukera** egongo litzateke, Oiartzungo historia emakumeen ikuspegitik kontatzeko modua sortuko litzateke. Horren emaitza idatzitako ikerlana edo ikus-entzunezko dokumentala litzateke.

## 6. ERAKUSKETAK:

2008an erakusketa mota ezberdinak antolatu dira, arte eta historia erakusketak batez ere.

### ARTE ERAKUSKETAK...

Udaletxean eta Udal Liburutegian sei arte erakusketa antolatu dira 2008an.

- *Lautan gizonzkoen lanak ikusgai* izan dira:
  - *Titika Rekalt* argazkilaria
  - *Oscar Zapirain* argazkilaria
  - *Moyua* margolaria eta eskulturgilea
  - *Sebastian Mendibururi* buruzko erakusketa
- *Bitan emakumeen eta gizonen artelanak*
  - *Yudith Larreta eta Iñaki Arbelaizen* argazkiak
  - *Jaietako Kartel* lehiaketa
- *Behin emakumeen margolanak*
  - Itziar Urkia eta Maite Beasainen margolanak

### Beste lokaletan...

- Emakumeen Taldeak emakumeen eskulanean erakusketa antolatu du.
- Oiartzungo Garmendia Txokolategian, Makutsun eta beste tabernetan ere erakusketak izan dira, bai emakumeenak bai gizonenak (eskulaneanak, Idoia Montón, Titika Rekalt...).

### HISTORIA ERAKUSKETAK...

#### - Udaletxean edo Herriko Plazan izan dira...

- *Nabarralde elkartearen historia erakusketa (Udaletxean)*
- *Oiartzungo Errepresaliatuak 1936 (Udaletxean)*

Oiartzungo Gerra Zibilean errepresaliatuen historia islatzen duen erakusketan (Kattin Txiki taldeak egindakoa) emakume gutxi agertzen badira ere, haien presentzia islatzeko ahalegin berezia egin dute egileek. Dokumentalean emakumeen testigantzak agertzen dira, eta preso egondakoen emakumeen izenak zerrendatzen dira.

- *Haurtzaro ikastolaren sorreraren inguruko historia (Herriko Plazan)*

## ERAKUSKETAK: EMAITZAK

Erakusketen egileak eta erakusketen protagonistak gehienetan gizonak izaten dira. Beraz, emakumeen presentzia –egile eta objektu modura- oso txikia da. Egoera honen aurrean, hainbat proposamen egin daitezke parekidetasuna bultzatzeko:

### *1. Emakumeak artelanen erakusketak egiteko urtero ekimen bat*

Herrian badira hainbat emakume artelanetan aritzen direnak. Horien ekarpena plazaratzeko ekimena sortzea interesgarria litzateke.

### *2. Historia erakusketetan emakumeen presentzia eta ekarpena bermatzea*

Orokorrean historia erakusketak antolatzen direnean, eta bereziki ikerlanak udalaren dirulaguntza duenean, emakumeen presentzia edo ekarpena historia atal horretan bermatzea.

### *3. Emakumeen eskulanen erakusketarako toki finkoa bermatzea*

Emakumeen Taldeak orain arte erabili duen lokala egun ludoteka da. Beraz, urtero egiten den erakusketa honetarako toki finkoa bilatzea eta horren erabilera bermatzea beharrezkoa da.



## **7. MUSIKA JARDUERAK:**

### **EMAKUMEAK MUSIKA IKASI BAI, BAINA GUTXITAN ESZENATOKIRA IGO**

#### ***Musika ikasleen %58 emakumeak dira***

Musika ikastaroen multzo nagusia Ibergain Musika Eskolan ematen da. Oiertzungo Herri Musika Txokoak ere hainbat ikastaro antolatzen ditu, eta Oiertzungo elkarte batzuk ere horrelako ekintzak aurrera eramaten dituzte (Emakumeen Taldearen Perkusio Tailerra eta Gitarra Tailerra, etab.). Hiru erakunde hauen ikasleak batzerakoan **egoera parekidea** azaltzen da: guztira 329 ikasle izena eman dute. Horietatik 192 neska/emakumeak dira, hau da, 10 ikasleetatik 6 emakumezkoak dira.

***Ibergain Musika Eskolan neskek mutilek baino gehiago parte hartzen dute, eta horrela izan da beti musika eskoletan, Oiertzungo zuzendariak aipatu digunez.***

*2007-2008 ikasturtean 226 ikasle izan dira eskolan: 134 emakumezkoak / 92 gizonetzkoak.*

*Ikasle helduen kopurua parekoa bada ere (21 emakume eta 20 gizon), 18 urtetik azpikoen artean desoreka handitzen zen: 113 neska eta 72 mutil.*

*Aurten, 2008-2009 ikasturtean, desoreka handitu da, hainbat gizonetzko jarduera utzi baitute: 134 neska edo emakume, eta 79 mutil edo gizon.*

***Herri Musika Txokoa, berriz, ikasle helduen artean gizon gehiago parte hartzen dute, baina gaztetxoaren artean parte-hartzea orekatua da:***

*2007-2008 ikasturtean guztira 71 ikasle: 14 emakume eta 10 neska / 45 gizon eta 2 mutil*

*2008-2009 ikasturtean guztira 71 ikasle: 15 emakume eta 9 neska / 35 gizon eta 8 mutil*

***Emakumeen Taldearen 2008ko bi musika ikastaroetan guztira 34 emakume eta 15 gizon parte hartzen dute.*** Izan ere, Emakumeen Taldeak horrelakorik antolatzeak emakume helduen musika jarduera sustatzen du.

Beraz, bakarrik Herri Musika Txokoaren ikastaroetan emakumeen presentzia gizonena baino txikiagoa da. Joseba Zabaleta antolatzailearen arabera, herri musika tradizionala historikoki gizonetzkoen eredia izan da, eta urte gutxi dira emakumeak sartu direla. Hala ere, arlo tradizional hau ere eraldatzen joan da. Duela 30 bat urte txalaparta edo alboka soin-tresna jotzen zuten guztiek gizonetzkoak ziren, eta orain %25 inguru emakumeak dira.

## *Oiartzungo musika taldeetan emakumerik ez*

Musika ikasten dutenen artean neskek mutilek baino gehiago badira ere, *Oiartzungo gazte lokaletan enseiatzen duten 23 rock musika taldeetan<sup>1</sup> neska bakar bat parte hartzen du*, Skotoroto taldearen abeslaria, hain zuzen ere. *Zozongó dantza-perkusio taldean* emakumeek parte hartzen dute, baina batez ere dantzari moduan. Talde honen perkusionistak gizonak dira.

Orokorrean, *Oiartzunen 2008an izan diren kontzertuetan ia bakarrik gizonaek igo dira eszenatokira, eta beraz gizonaek bakarrik protagonismoa eskuratu dute arlo honetan*.

Herriko plazan antolatutako rock kontzertuetan, baita gazte lokaletan izandakoak (Iurritan, Kataxulo Gaztetxean, eta Goiko Eskolan) gehienbat gizonaek musika jo dute, Odei Astibia Oiartzungo Musika Taldeen kideak azaldu digunez. Salbuespenak ere izan dira, baina batez ere kanpoko taldeei esker: Zea Mays eta Ezean (Kataxulo Gaztetxeak antolatutako bi kontzertuetan) eta Sorkun (Iurritako lokalean antolatutako kontzertua).

Kantu klasikoan edo melodikoan (Lartaun Abesbatza, Irati Odriozola...) emakumeen presentzia, berriz, handiagoa da. Baina musika estilo hauek protagonismo publiko txikiagoa dute, bereziki gazteen aurrean presentzia txikiagoa. Irati Odriozolak 2008ko Gipuzkoako Kantu Txapelketa irabazi du bakarlariren sailean.

Musikaren inguruan aritzen diren hainbat pertsoneri musika taldeetan ematen den nesken ausentziaren inguruan galdetu diegu, eta hauek izan dira jasotako gogoetak:

Odei Astibiaren ustez, Oiartzungo rock taldeen sorrera mutil kuadriletan suertatzen da, eta beraz neskek ez dute horietako proiektuetan parte hartzen. Horretaz gain, Oiartzungo talde gehienek rock “gogorra” egiten dute, hau da, bereziki maskulinitzat jotzen den rock estiloa.

Goiatz Labandibar, Kataxulo Gaztetxeko kideak ideei honekin bat dator, eta neskek beste musika estiloetan erosoagoak sentitzen direla azpimarratu du, hala nola, kantu tradizionalan edo musika melodikoan.

Azkenean, Juan Pablo Lizartza Ibagain Musika Eskolaren zuzendariaren arabera, emakumeen agerpen txikia musika eszenatokietan orokorrean musika garaikidearen munduan ematen da. Musika klasikoan, berriz, emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatuagoa izaten da, zuzendaritzan

---

<sup>1</sup> Mendibileko lokalean 10 talde; Goiko Eskolan 6 talde; Kataxulo Gaztetxean 4 talde eta Iurritan 3 talde eta Zozongó.

izan ezik. Oiartzunen ere horrela gertatzen da: *kantu klasikoan edo melodikoan orokorrean emakume gehiago parte hartzen dute Oiartzunen, bai Lartaun Abesbatzan bai eta neska gazteak kantu lehiaketetan*. Lizartzaren arabera, musika garaikidean emakumeak oraindik publikoaren aurrean jarduteko erreferente gutxi dituzte, eta ziurtasun eza somatzen dute. Gizonek berriz erraztasun handiarekin espazio hori berenganatzen dute. Lizartzak azken 30 urteotan aldaketa positiboa somatu du, baina oraindik parekidetasunera iristeko bide luzea egin behar dela uste du, eta prozesu hori sustatzea interesgarritzat jotzen du.

Gaur egun herrian ematen den desoreka hau argiki islatu da 2008ko urrian Oiartzungo hainbat musika taldeek plazaratu duten CDan: "Itoti bat gutxiyo". Bertan 9 rock taldeen lanak, bi bakarlarrienak eta Lartaun Abesbatzaren kantuak batzen dira. Emakumeen presentzia oso murrizta da: Lartaun Abesbatzan abesten dute, eta rock talde baten abeslaria emakumea da (lehen aipatu dugun SkrotoROTO taldea). Beste talde guztiak gizonak bakarrik osaturik dira.

## MUSIKA: EMAITZAK

Musika ikasten dutenen artean emakumeak gehiago badira ere, gutxitan igotzen dira Oiartzunen eszenatoki batera. Egoera honen aurrean hainbat proposamen egin daitezke:

### *1. Emakumeen protagonismoa eszenatokian sustatzea*

Emakumeek osatutako taldeak herrira ekartzeko ekintzak antolatzea. Orokorrean emakumezko kideek dituzten musika taldeen presentzia edozein kontzertuan sustatzea interesgarria litzateke, bereziki talde bat baino gehiago parte hartzen baldin badu.

### *2. Emakume gazteek osatutako musika taldeak sustatzea*

Emakume gazteentzako musika taldeak sortzeko ikastaroa antolatzea, edo baliabide egokiak ziurtatzea.

## 8. GAZTE LOKALEN BESTELAKO KULTURA JARDUERAK

Atal honetan orokorrean emakume eta gizon gazteen parte hartze gazte lokaletan aipatuko dugu. Aurreko atalean musika jarduerak iadanik aipatu ditugunez, atal honetan beste jardueren inguruko informazioa jaso dugu.

Jarduera irekia duten 4 gazte lokal aipatuko ditugu. Guztiak biltzar modura antolatzen dira:

- **Oiartzungo Musika Taldeen Elkartearen lokala (Mendibil):**

Bertan *10 rock talde entseatzen dute*, horietatik bakar batean neska batek parte hartzen du. Asambladan, beraz, mutilak bakarrik parte hartzen dute.

- **Iurrita:**

Bertan *3 musika talde (mutilenak) eta perkusio-dantza talde bat* entseatzen dute (mistoa). *Hilabetero kontzertu bat baino gehiago antolatzen dituzte*, gehienek rock taldeenak.

*Urtean zehar ere hainbat hitzaldi ematen dira, gai ezberdinen ingurukoak.*

*2007an eta 2008an zine proiektzioak antolatu dituzte bi astean behin.*

Ikastaroak antolatzen dituzte:

*2008-2009 ikasturtean bi perkusio ikastaro martxan daude, bat Emakumeen Taldeak eta bestea Iurritak antolatutakoak. Emakumeen eta gizonen parte-hartze horietan parekatua da (ikusita musika atala).*

*2008-2009 ikasturtean zirko ikastaro bat martxan jarri dute -aire akrobaziak-, eta beste hainbat zirko ikastaro intentsiboak antolatu nahi dituzte. Lehenengo ikastaroan nesken parte-hartze nagusitu da (16 neska eta 7 mutil). Emaize Tomasena parte-hartzaileak aipatu digunez, bertan neskek hainbatetan barneratutako beldur fisikoak gainditzeko lana egiten dute. Maidir irakasleak ere ikastaroa neskentzako bereziki erakargarria dela uste du, bertan flexibilitatea eta ausardi fisikoa lantzen direlako.*

*- Iurritako asambladatan 20 bat mutil eta hiruzpalau neska parte hartzen dute. Iurritako gazteek zirko ikastaroen bitartez neskak gehiago parte hartzea espero dute.*

- **Kataxulo Gaztetxea:**

Bertan lau musika talde entseatzen dute, denak mutilek osatutakoak.

2008an Bertso Txapelketaren finala bertan egin zen, nesken eta mutilen parte hartzearekin.

Urtero ekintza finko batzuk antolatzen dituzte:

*- Gaztain jatea: jai honetan nesken parte hartze mutilena gainditzeko du.*

- *Urteurrena*: parte hartze parekatua izaten da, edo neskena zertxobait handiagoa.
- *Kontzertuak*: gehienbat mutilek osatutako taldeak ekartzen dituzte, Oiartzungoak eta kanpokoak. Aurtengo bi kontzertuetan emakumeak ere eszenatokira igo dira musika jotzera (Zea Mays eta Ezean).
- *Inauteriak*: neskez osatutako dantza taldea inauterietan Oiartzungo kaleetara ateratzen da. Neskak janzen dira poxpolinaz eta dantzariak, eta etxez etxez beren dantzak eskeintzen dituzte. Neska gazteak batez ere parte hartzen dute. Goiatz Labandibar azaldu digunez, jarduera honetan neskek urtean zehar beste jardueretan ez duten protagonismoa eskuratzen dute.
- Asambladatan eta antolakuntzan neskak nagusitzen dira.

- **Goiko Eskola:**

6 musika talde entseatzeko dute Goiko Eskolan, denak mutilek osatutako taldeak.

Urtero antolatzen diren ekintzak honako hauek dira:

- Urteurrena: hitzaldiak, kontzertuak eta antzerkia.
- Kalamu festa.
- Baratza eguna.
- Arraguako jaiak.

Nahiz antolatzaileek gehienbat mutilak izan, Goiko Eskolaren urteroko jardueretan nesken eta mutilen parte hartzea orekatua izaten da, gehienetan.

Asambladan gehiengoa mutilak badira ere, neskek ere parte hartzen dute.

## GAZTE LOKALAK: EMAITZAK

Gazte lokal gehienetan nesken protagonismoa txikia da.

Gazte lokaletan parekidetasuna bultzatzeko dugun proposamena honako hau da:

### **1. Nesken parte-hartzea gazte lokaletan sustatzea, ekintz zehatzen sustapenaren bitartez**

Nesken interesa pizten duten ekintzak bereziki sustatu beharko lirateke, modu horretan orokorrean nesken parte hartze gazte lokaletan handitzeko. Hala nola, Iurritak antolatu nahi dituen zirko ikastaroak edo Gaztetxeak antolatzen duen dantza ekintza inauterietan Udalaren laguntza bereziki jaso beharko lukete.

## 9. OIARTZUNGO EMAKUMEEN TALDEAREN 'HELDUEN TAILERRAK'

Aurten guztira 790 ikaslek izena eman dute Emakumeen Taldeak eskeintzen dituen 55 ikastaroetan. Talde honek duen antolakuntza maila izugarria da, hau da, inguruko herrietan Udalak antolatzen dituen helduentzako kultura eta kirol ikastaro guztien parekoa da. Emakumeen Taldeak orain dela 12 urte tailerrak antolatzen hasi zen, eta proiektua urtez urte gero eta arrakasta handiagoa izan du. Antolakuntza lana erabat bolondreskoa da. Herritarren parte-hartze handiak, bereziki emakumeena, talde honek herriaren alde egiten duen lanaren garrantzia islatzen du.

Emakumeen taldeko kideek helduen *tailerren arrakasta hiru irizpidetan oinarritzen* dute:

### ▪ Tailerrak ekonomikoki herritar guztien eskura izatea:

Urte osoko ikastaroak Oiartzuarrentzat 50€ko ordainketa bakarra du. Taldeak prezio hau eskeini ahal izateko Udalaren dirulaguntza jasotzen du.

### ▪ Emakumeen parte-hartze soziokulturalerako topagunea izatea:

Nahiz eta gizonek ere parte hartu (%15), emakumeak dira gehiengoa ikastaro guztietan. Ikastaroen antolakuntzan bereziki emakumeen interesak kontuan hartzen dira: errestaurazioa, esku lanak, margoa, patchwork, yoga, pilates, tai-chi, haur masaia, makillajea, masajea... Interes hauek zabaltzen diren heinean, ikastaro berriak eskeintzen dira, hala nola, aurten perkusioa, informatika, antzerkia, sabel dantza, bertsolaritza, etab.

### ▪ Eskeintza auzo ezberdinetara eramatea:

2008ko ikastaroak herriko zortzi lokal ezberdinetan ematen dira. Garraio publikoarekin guztietara iristen da. Hau garrantzitsua da, adin ertaineko eta adineko emakume askok ez baitute kotxerik gidatzen, edo kotxe propiorik izaten egunean zehar. Honako lokal hauetan antolatu dira aurtengo ikastaroak:

- Udalak Emakumeen Taldeari utzitako bi lokal (Altzibarren eta Mendibilen)
- Elorsoro kiroldegian
- Hautzaro Ikastolako gimnasia gelan - Elizalde Herri Eskolako dantza gelan
- Frontoian
- Iurritan (gazte lokala)
- Arraguako Auzo Elkartean
- Girizia Elkarte gastronomikoan

### *Emakumeen parte-hartze soziokulturala bultzatzea: 'Bolillos' etik bertsolaritzara*

Emakumeen Taldeak 1996an hasi zen Helduen Tailerrak antolatzen. Hasieratik Emakumeen Taldearen helburua emakumeak etxetik ateratzeko eta beste emakumeekin jarduera kulturalen inguruan biltzeko aukera ematea izan da. Hau da, *Helduen Tailerren bitartez emakumeen parte-hartze soziokulturala areagotzea eta giza sarea sortzea.*

Hamabi urte hauetan bai eskaera bai eskeintza handitzen joan da. Hasiera batean eskeintzen ziren ikastaroak gehienbat emakumeen lan tradizionalekin lotura bazuten ere (jostun lanak, bolillos, errestaurazioa...), *azken urteotan tailer eskeintza zabala eta anitza antolatu dute.* Mota askotako jarduerak eskeintzen dira, hala nola, informatika, perkusioa, sabel dantza etab. Aurten 26 ikastaro mota ezberdin eskeini dituzte, eta guztira 51 tailer emango dira Oiartzunen toki eta ordutegi ezberdinetan. Eskeintza dibersifikatu den heinean, gizonek ere parte hartzen hasi dira. Aurten ikasleen %85 emakumeak dira, eta %15 gizonak.

### *Bolondreseko lana, Oiartzuar helduen onerako*

Hamabi urte hauetan Emakumeen Taldearen kideak egin duten antolakuntza lana –dohaina eta bolondresekoa- izugarritzko ekarpena izan da eta izaten da herriarentzat. Eta urte hauetan taldearen kideak horretan trebatu dira. Hasiera batean kuaderno eta boligrafoarekin izenak jasotzen baldin bazituzten, gaur egun ordenagailu portatilarekin dabilzate hemen eta han antolakuntza lanak osatzeko. Besteak beste, lan hauek egiten dituzte, erabat bolondres modura:

- Tailerrak aukeratu eta irakasleak hitzartu.
- Tokiak bilatu (auzo elkarteak, eskoletako gimnasia gelak, kiroldegikoak, frontoia...) eta arduradunekin bildu erabilera eskatzeko eta antolatzeko.
- Triptikoa osatu eta izena emate kanpaina antolatu: bi astetan, goizez eta arratsaldez, txandak egiten dituzte liburutegian izena ematearen kanpainarako. Beste bi astetan, gutxienez, hainbat ordu ematen dituzte liburutegian edo Mendibileko lokalean berandu datozenen eskaerak jasotzeko.
- Udalaren dirulaguntza eskatu, eta irakasleen ordainketa antolatu.
- Diru kontu guztien jarraipena eraman.
- Udalak utzitako bi lokalen kudeaketa.
- Ikastaro guztietan sortzen ahal diren beharrak kudeatu.

**2008-2009 ikasturteko eskeintza: 800 ikasle gora 55 tailerretan banatuak**

Hemen jaso ditugu aurten eskeinitakoikastaroak. Batzuk ordutegi eta toki ezberdinetan eskeini dira. Eskareri aurre egiteko 55 tailer antolatu dira. Datuak matrikulazio epearen bukaeran jaso ditugu, baina ondoren pertsona gehiagok izena eman dute epetik kanpo.

Beraz, guztira, 800 ikasle baino gehio izena eman dute. 7 ikasleetatik 6 dira emakumeak.

IKASTAROA	Parte-hartzaileak		Tailer kopurua	Lokalak
	EMAKUMEAK	GIZONAK		
Antzerkia			0	Mendibil
Bertsolaritza	1	11	1	Frontoian
Bolillos	12		1	Mendibil
Egur taila				Mendibil
Errestaurazioa	17	2	2	Mendibil
Esku lanak	20		2	Mendibil
Euskal dantza	7	3	1	Altzibar
Gimnasia	83	1	4	Kiroldegia / Altzibar
Gitarra	29	10	3	Mendibil
Informatika	5	5	1	Ikastola
Jostunak	38		3	Mendibil
Margoa	36	5	4	Mendibil
Masaia	19	9	2	Altzibar
Patchwork	26	1	2	Mendibil
Perkusioa	5	5	1	Iurrita
Pilates	165	15	11	Kiroldegia / Altzibar
Sabel dantza	24		2	Kiroldegia / Altzibar
Sukaldaritza	16	7	1	Girizia
Yoga	91	10	6	Altzibar / Ikastola
Tai-chi / Chi-kung	28	5	2	Elizalde / Arragua
Haur masaia	4*		1	Ikastola Patzuergoa
Makilajea	15		1	Mendibil
Sukaldaritza energetikoa	19	9	2	Girizia
Etxearen osasuna	11	4	1	Mendibil
Oin reflexoterapia	16	1	1	Altzibar
<b>GUZTIRA 790 IKASLE</b>	<b>687</b>	<b>103 GIZON</b>	<b>55</b>	<b>10 LOKAL</b>

\*Haurrak jaiotzen diren heinean jendea apuntatzen doa.



*Bestalde, Oiartzunen badago beste emakumeen talde bat, Kilirikupe Emakumeen Taldea, urte asko daramazkiena psikologiaren inguruko gaiak lantzen.*

Kilirikupek psikologiaren inguruko formakuntzak antolatzen ditu. Urtero gai berri bat jorratzen dut. 2008-2009ko ikasturtean lantzen ari diren gaia emakumeen sexualitatearen ingurukoa da: “Emakumea eta biografia: sexualitatearen inguruko elkarrizketak. Bi taldetan antolatzen dira, aipatutako formakuntza bai euskaraz bai eta gazteleraz eskeini ahal izateko.

Kilirikupek bere jarduera antolatzeko Udal dirulaguntza jasotzen du, baita Emakunde erakundearen laguntza ere. Saioak Udaletxearen bilera gela batean antolatzen dira.

## HELDUEN TAILERRAK: EMAITZAK

Oiartzungo Emakumeen Taldeak herriari egiten dion ekarpena izugarria da. Ia 800 ikasle parte hartzen dute ikastaroetan, eta gehiengoa emakumeak dira. Beraz, emakumeen arteko sareak sortzeko ezinbesteko proiektua da “Helduen Tailerrak”. Jarduera hauek Udalaren dirulaguntzarekin aurrera eramaten badira ere, oraindik sustapena indartu beharko litzateke, jardueraren kalitatea ziurtatzeko eta emakumeen taldeko kideek egiten duten bolondreseko lana behar den bezala baloratzeko. Helburu hauekin proposamen batzuk egin ditzakegu:

### ***1. Emakumeen Taldeari bigarren lokal bat egokitzea***

Emakume Taldearen jarduerak hasieratik Udalaren dirulaguntza jaso dute, eta Udalaren esku dagoen lokal baten erabilera hitzartua dute. Baina lokal hau ez da nahiko zabala gaur egun dagoen tailer eskaerari aurre egiteko, bereziki kirol jardueren eskaerari (pilates, gimnasia...). Taldekideek beste hainbat lokalen erabilera lortzen badute ere (eskoletakoak, auzo elkartekoak...), premiazkoa dute bigarren lokal bat eskuratzea, hainbat ekintza nolabait elkartzeko eta urtero azken momentu arte lokal faltarengatik ez larritzeko.

### ***2. Erabiltzen duten lokalaren zesioa finkatzea***

Emakumeen Taldeak momentu honetan duen udal lokalaren zesioa finkatu behar da, taldeak antolatzen duen jardueraren jarraipena sustatzeko. Hau da, taldearen Mendibileko lokalen zesioa ez da ofizialki burutu. Beste herriko elkarteek Udalarekin lokalen zesioa burutu duten bezala, Emakumeen Taldeak ere egoera ziurtatzea beharrezkoa jotzen du.

### ***3. Irakasleen jarraipena eta kalitatea ziurtatzeko, Udalaren dirulaguntza areagotzea***

Emakume Taldeak azken urteotan jasotako dirulaguntza murrizta da duen jarduera guztia sustatzeko. 2007an 18.000€ jaso zituzten Gizarte Zerbitzuen atal batetik, emakumeen parte-hartze jarduerak antolatzeagatik. Kulturaren Ataetik ez du dirulaguntzarik jasotzen. Dirulaguntza honekin Emakumeen Taldeak irakasleei eskeintzen ahal dien dirusaria txikia izaten da (18€ ordua). Antolakuntzan ere arazoak sortzen dira, irakasle adituek edozein momentuan hobeki ordaintzen den beste tokietara jotzen dutelako. Izan ere, Emakume Taldeak batzutan zailtasunak ditu prezio horretan lan egiteko konpromisua hartuko duen irakaslerik topatzeko. Irakasleen ordainsaria hobetzea beharrezkoa da jardueraren jarraipena eta kalitatea ziurtatzeko.

#### *4. Emakumeen jardueren erakustaldiak herriko plazara eramatea*

Emakumeen eskulanak urtero martxoaren 8ko erakusketan ikusgarri izaten badira ere, badira beste hainbat jarduera –sabel dantza, tai-chi...- ia erakusten ez direnak. Aurten plazaren igandeko jaialdi bat Helduen Tailerren erakustaldirako bazen ere, gizonak gehienbat protagonista modura agertu ziren (bertsolaritza, gitarra). Beraz, emakumeek gehiengoa diren jarduerak ere espazio publikora eramatea interesgarria litzateke, emakumeen presentzia espazio publikoan areagotzeko.

## **10. HIZKUNTZA ETA IRUDIEN ERABILERA SEXISTAREN AZTERKETA**

Hizkuntzaren erabilera egokia egitea ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen presentzia gizartean modu parekoan agertzeko. *Aipatzen ez dena "ez da existitzen"*. Beraz oso garrantzitsua da **emakumeen eta gizonen ekarpena eta presentzia modu egokian islatzea Udalak argitaratzen dituen dokumentuetan, baita Udalak dirulaguntzen dituen jardueren kartel eta triptikoetan.**

Oiartzungo hainbat dokumentu aztertzerakoan emakumeen presentzia murrizta topatu dugu. *Udalaren 2008ko urtekarian, adibidez, Helduen Tailerrak orri bakar batean agertzen dira, eta ez Kultura jardueran atalean baizik eta "zenbait idazlan" atalean. Beraz, Tailer hauetan parte hartzen duten ia 700 emakumeen kultur jarduera ia ikusezina da urtekarian (aurten 687 emakume eta 103 gizon). Kultura atalean ez agertzea ikusezintasuna areagotzen du. Badirudi emakumeek egiten dituzten kultur jarduerak ez direla "kultura" kategoriara heltzen.*

Bestalde, *dokumentu publikoak aztertzerakoan beste hainbat sexismo arazo topatu ditugu:*

Bai 2008ko *Urtekarian, bai Xanistebanetako Egitarauan eta hainbat kirol elkarten kartel eta triptikoetan, gizonentzako bakarrik diren kirol jarduerak denontzako balira bezala aurkezten dira,*

hau da, inon ez da aipatzen mutil edo gizonentzako bakarrik direnik. Beraz, badirudi kirol informazioak irakurtzen ditugunean gizonetaz ari dela aurreuposatu behar dugula. Nesken edo emakumeen parte hartzea, berriz, salbuespen modura agertzen da, eta orduan bai sexua aipatzen da. Adibide batzuk:

Urtekarian, Oiartzun KEren 2007-2008ko memorian, 92-94 orrialdean.

Xanistebanetako egitarauan agertzen diren hainbat jarduera.

Oiarperen jarduerak, urtekarian edo jai egitarauan.

Oiartzun K.E.ren kartel batean bi kategoria agertu ziren, honelako izenburuekin: *gizonezkoak / neskak*. “Neska” horiek helduak ziren, eta maila nazionalean jokatzeko zuten.

Urtekarian ere arazo antzekoa ematen da.

Kirol arloko jarduera batzuen informazioan badirudi emakumeak betirako “neskak” direla. Gizonak behar den bezala aipatzen direnean (gizona edo gizonezkoak), adin berdineko emakume helduak “neskak” deitura jasotzen dute (Oiartzun KEren kartela eta beste adibide batzuk topatu ditugu).

Azkenean, kirol karteletan eta informazioetan (baita Urtekarian) mutilen informazioa lehendabizi aipatzen da, eta neskena bigarren planoan gelditzen da. Hala ere, Urtekarian praktika onaren adibide batzuk ere topatu ditugu, non mutilen “lehentasuna” ez den azpimarratzen, hala nola, igeriketa elkartearen memorian, 2008ko urtekarian, 95-98 orrialdeetan. Azken artikulua honen ataletan batzuetan neskak agertzen dira lehendabizi, beste batzuetan mutilak.

## HIZKUNTZAREN AZTERKETA: EMAITZAK

Udalak argitaratzen dituen dokumentu eta aldizkarietan ez da sistematikoki hizkuntza eta irudiaren erabilera ez sexista bermatzen. Egoera honen aurrean hainbat proposamen ditugu:

*1. Hizkuntza eta irudi ez sexista egiteko formakuntza eskeini beharko litzateke kultura eta kirol elkartei, beren karteletan, triptikoetan eta argitaratzen diren beste informazioetan sexismoa nola saihestu ikasteko. Udalak dirulaguntzen dituen jardueretan ere hizkuntza eta irudiaren erabilera ez sexista ere bermatu beharko litzateke kartel eta triptikoetan.*

*2. Udalak argitaratzen dituen dokumentuetan (urtekaria etab.) hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu beharko litzateke. Horretarako kultura teknikariak horretan trebatzeko formakuntza jaso beharko luke.*

1  
2  
3  
4  
5  
6  
7  
8  
9  
10  
11  
12  
13  
14  
15  
16  
17  
18  
19  
20  
21  
22  
23  
24  
25  
26  
27  
28  
29  
30  
31  
32  
33  
34  
35  
36  
37  
38  
39  
40  
41  
42  
43  
44  
45  
46  
47  
48  
49  
50  
51  
52

*OIARTZUNGO PAREKIDETASUN DIAGNOSTIKOA*

**IV HEZKUNTZA:**

**HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA ETA HEZKIDETZA  
OIARTZUNGO ESKOLETAN**

## HEZKUNTZA AURKIBIDEA

### **SARRERA:**

#### **HEZKIDETZA ETA HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA:**

NESKEN ETA MUTILEN AUKERA BERDINTASUNERAKO URRATSAK..... 3

### **I ABIAPUNTUA:**

#### **NOLA JASOTZEN DEN HEZKIDETZA ETA HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA OIARTZUNGO IKASTETXEEN HEZKUNTZA PROIEKTUETAN:**

HAURTZARO ETA ELIZALDE..... 4

### **II HEZKIDETZA AZTERKETA:**

#### **INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK HEZKUNTZA JARDUERAN:**

ELIZALDE ETA HAURTZARO .....7

#### **II A HEZKIDETZA AZTERKETA, NERABEEN IKUSPUNTUTIK...**

**ESTEREOTIPOAK, MITOAK ETA GENERO NORTASUNA.**

**NESKA EDO MUTILA IZATEA, ZEREKIN LOTZEN DUTEN?..... 12**

*Ikasleekin jarduera: Sexu estereotipoak eta rolak .....*

*Ikasleekin jarduera: sexu mitoak.....*

*Elizaldeko ikasleekin jarduera: etxeke lanen ginkana.....*

*Haurtzaroko ikasleekin jarduera: neska / mutila izateaz zer gustatu eta zer ez.....*

#### **II B NESKEN ETA MUTILEN PARTE-HARTZEA**

**ESKOLAKO ORDUTEGITIK KANPOKO JARDUERETAN..... 22**

**II C GURASO ELKARTEAK: HEZKIDETZA LANTZEKO PREST..... 26**

**II D IRAKASLEEI EGINDAKO INKESTEN EMAITZAK..... 27**

### **III HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALAREN AZTERKETA..... 30**

**HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA: INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK...**

#### **IV ESKOLAN ERE "ZAINZAILLEAK" EMAKUMEAK:**

**SEXU-ROL BANAKETA IRAKASKUNTZAN.....33**

**V HEZKUNTZA LANTALDEAREN EKARPENA.....35**

**VI EMAITZA OROKORRAK HEZKUNTZA ATALA..... 38**

## HEZKIDETZA ETA HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA: NESKEN ETA MUTILEN AUKERA BERDINTASUNERAKO URRATSAK

Gure gizartean nesken eta mutilen artean aukera berdintasuna bermatzeko, ezinbestekoa da bi gai hauek eskolan lantzea. Bai hezkidetza bai hezkuntza afektibo-sexuala hezkuntza etapa guztietan lantzea komenigarria da, haur bakoitzaren nortasun eraikuntza prozesu etengabea delako, eta genero mugak bizitzaren hasieratik transmititzen direlako, askotan oso modu inkonzientean.

*EAEko Hezkuntza politikan ere berriki eta zehazki jaso da hezkuntza mailan egin beharreko lana emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustraitzeko. DBHko bi ikasgaiak "bereziki landuko dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna": alde batetik lehen mailatik hirugarren mailara bitartean berri ezarritako "Herritartasuna eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza" ikasgaiak, eta laugarren mailan "Etika eta Gizabide Hezkuntza". EAEko Hezkuntza 175/2007ko Dekretuan (EHAA 2007ko azaroak 13) Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak finkatzen da, eta horren 6. artikuluan azpimarratzen denez, bi ikasgai hauek emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna bereziki landuko dute.*

*Hezkidetza lantzea ezinbestekoa da gaur egun, oraindik errepikatzen diren joera sexistak behingoz baztertzeko. Eskola mistoak agertu eta neskek eta mutilek elkarrekin ikasteko aukera izan zuten. Elkartze horren bidez, sinetsita zeuden heziketa prozesuan sexuagatik ematen ziren desberdintasunak desagertuko zirela, eta hori oraindik bizirik dirauen sinesmena da. Baina gaur egun oraindik ere, gizartean bezala, maskulinitasunaren eredia hainbat espazio eta momentutan nagusitzen da eskoletan, eta neskek zein mutilek euren identitate osoa garatzeko oztopoak izaten jarraitzen dituzte. Oraindik ere mutilak sentitzen dira behartuta benetako gizona izaten, gizarteak eta taldeak berak ezartzen dizkien baloreen eta jarreraren ondorioz. Neskek, berriz, sumatzen dute mutilenak direla gizartean baloratzen diren gaitasunak eta, aldi berean, jarraitzen dute pentsatzen benetako emakumea izateko feminitatea garatu behar dutela.*

*Hezkidetza lantzea zera da: jarrera aktiboa hartzea eskolan ematen diren genero desoreken aurrean, eta nesken eta mutilen aukera berdintasunerako estrategiak txertatzea hezkuntza prozesuan. Estrategiak garatu behar dira espazio irekiaren erabilera mutilen eta nesken interesen arabera antolatzeko, askotan espazio handienak "mutilen" gustoko jokuei emanik daudelako (futbola edo pilota). Estrategiak ere materialen erabilera eta zaintza parekatzeko (ikasgelako pilota...); emakumeen eta gizonen ekarpena eta presentzia ikasgaietan modu parekoan islatzeko; sexismoa nondikan datorren eta gaur egun duen eragina ikasleekin batera aztertzeko.*

*Hezkuntza afektibo-sexuala ere ezinbestekoa da nesken eta mutilen garapen osorako. Gorputzaren perzeptio positiboa sortzea bereziki garrantzitsua da neskenentzako, gaur egungo estetika eta erotismo ereduak nesken autoestiman oso eragin negatiboa dutelako. Mutilek ere presio negatiboa jasaten dute mutil indartsu edo futbolzalearen estereotipoa betetzen ez dutenean. Hezkuntza afektibo-sexuala lantzeko komenigarria da genero ikuspegia duten eskolaz kanpoko adituak ekartzea, hau da, sexologian eta genero ikuspegiari formakuntza duten adituak. Izan ere, hezkuntza afektibo-sexuala lantzeko haur eta nerabeekin harremanetarako moduak, intimitatea, sentimenduak edo beldurrak lantzea da. Nerabeentzako errazagoa da hezkuntza afektibo-sexuala eskolaz kanpoko adituekin lantzea, pertsona horiek ez baitira gurasoekin eta beste irakasleekin eguneroko harremanetan. Kanpoko adituen aurrean, ikasleek ziur aski askatasun gehiago sentituko dute "intimoak" jotzen diren gaiak eta jarrerak lantzeko.*

Oiartzungo eskoletan ikasleekin batera dituzten genero aurreritzi eta estereotipo sexistak aztertu ditugu. Eta irakasleekin *hezkuntza afektibo-sexuala eta hezkidetza nola lantzen diren landu dugu, ahuleziak eta indarguneak* definitu ahal izateko.

## I ABIAPUNTUA:

### NOLA JASOTZEN DEN HEZKIDETZA ETA HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA OIARTZUNGO BI IKASTETXEEN HEZKUNTZA PROIEKTUETAN

#### HEZKIDETZA ETA HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA HAURTZARO IKASTOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUAN

Haurtzaro Ikastolaren Hezkuntza Proiektua 2007an eguneratu zen. Bertan hezkuntza proiektuaren oinarriko printzipioak aipatzen dira. Proiektuaren oinarriko printzipioen artean integrazioa aipatzen da, modu honetan:

(6. orrialdea)

“Integrazioa: proiektu integrala da, printzipioak, teoria eta praktika elkarlotuak daude; ikastola eta gizartea ere bai.”

Gizartean gaur egun orokorrean onartzen da emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna lortzeko helburu eta ekintza zehatzak martxan jartzea ezinbestekoa dela. Bai erakunde publikoen aldetik, bai eta herri eta gizarte erakundeen aldetik (elkarte feministak, sindikatuak eta abar...), emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna helburutzat hartzen da gaur egun. Beraz, **nesken eta mutilen aukera berdintasunerako mekanismoak sortzea bat dator integrazio printzipio honekin**. Eta aukera berdintasun hori errealitatean gauzatzeko beharrezkoa da genero ikuspegia kontuan hartzen duen hezkuntza afektibo-sexuala eta hezkidetza.

**Hezkidetza edo hezkuntza afektibo-sexualaren konzeptuak proiektuan zehazki aipatzen ez badira ere**, ikasleekiko helburuen atalean bi jardura hauekin zerikusirik izan ahal duten ezaugarri batzuk jasotzen dira, hala nola:

(14.orrialdean, kurtsiba eta letra larriak testu originalean dago)

“Adin eta sexu desberdineko pertsonekin *harreman orekatu eta sortzaileak ezartzeko gai izatea nahi dugu*; lanak eta ekintzak burutzerakoan berdintasunez jokatu eta eman daitekeen edozein diskriminazio bazter dezan.”

“Ikasleak bere gorputza ezagutzen *eta kontrolatzen ikasi behar du* hezkuntza prozesuan zehar, bere GAITASUNAK eta MUGAK ezagutu behar dituen bezalaxe. Ikasleak ongizate eta osasunaren oinarriko ohitura onak lor ditzan izango du Haurtzaro Ikastolak helburutzat.”

“Bere pentsaera eta sentierak errespetuz adierazteko gai izan behar du, bere nortasuna libreki eta kritikoki osatzen joan dadin, eta IRITZI PROPIO batez erabakiak hartzeko gai izan dadin.”

Beraz, hezkuntza jardueran oraindik modu sistematikoan ezarri ez den **hezkidetza planteamendua garatzea**, eta **hezkuntza afektibo-sexualaren atala egokitzea**, proiektuaren helburuak osatuko lukete. Bi asmo hauek orain arte nola eta zein neurriraino gauzatu diren aztertu dugu hurrengo orrietan.



## HEZKIDETZA ETA HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA ELIZALDE IKASTETXEA ETA HERRI ESKOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUETAN

Elizalde BHI Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua 2003-2004 ikurturtean rebisatu eta onartu zen. Bertan eskola jardueraren sei oinarri aipatzen dira, horietako bat hezkidetza dena. Beraz, hezkuntza proiektua bere osotasunean garatzeko hezkidetza txertatu behar da.

Hezkidetzaren inguruan, honela dio Proiektuak:

*Hezkidetza landuz, neska-mutilek giza heziketa osoa eta orekatua izango dute, generoaren estereotipoak gaindituz.*

*Helburuak:*

- *Neska-mutilei sentimendu naturalak adierazteko bideak eskeini: beldurra, goxotasuna, afektibitatea...*
- *Gai honi gizaratean ematen zaion tratamenduaren aurrean ikasleak jokabide kritikoa hartzera bultzatu.*
- *Sexu diskriminazioa eragin dezaketen mezuak eta estereotipoak saihestu.*
- *Lan talde mistoak eta elkar laguntzakoak bultzatu.*
- *Liburuetan ager daitezkeen genero estereotipoak eta emakumeen gutxiespenak indar gabetu informazioaz osatuz.*
- *Generoen artean bazterketarik gabeko bizikidetza bultzatu.*

Hezkidetza ezartzeko hiru mekanismo aipatzen dira:

- Institutuko elkarbizitzarako arautegia-markoa.
- Tutoretza. Saio espezifikoak.
- Hezkuntza afektibo-sexual ikastaroa.

Elizaldeko BHIko Hezkuntza Proiektuan hezkuntza sexu-afektiboa ere garrantzi handia du. Proiektuan zera adierazten da:

*"Ikastetxeak (ikasleen) heldutasun prozesu horretan lagundu ahal izateko ikasleen-ikasle bakoitzaren erabateko garapena (integrala) bultzatuko du: maila intelektualean, afektibo-emozionalean, psiko-sozialean eta fisiko sexualean."*

Haur eta Lehen Hezkuntzako Proiektuan ere hezkidetza oinarri moduan agertzen da (ez dugu proiektua eskuratu baina horrela aipatu digute), eta gurasoei zuzendutako aurrematrikulazio kanpainan eskola hezkidetzaille modura aurkezten da.

Azkenean, eskolako proiektuan bertan hezkidetza eta hezkuntza afektibo-sexualaren garrantzia azpimarratzen da. Bi asmo hauek nola eta zein neurriraino gauzatzen diren aztertu dugu ondorengo orrietan.

## II HEZKIDETZA AZTERKETA:

### INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK HEZKUNTZA JARDUERAN: ELIZALDE ETA HAURTZARO

#### HEZKIDETZA AZTERKETA: ELIZALDE BHI eta HERRI ESKOLA

Elizalden hezkidetzaren printzipioa hezkuntza proiektuan jasotzen da, baina praktikan ez dago mekanismorik –programa zehatzik- hori sistematikoki lantzeko. Hau da, printzipio modura onartuta dago, eta irakasleek printzipio horrekin ados agertzen dira, baina ez dago horren inguruko jarduera finkorik antolatzen. Izan ere, ez da formakuntza espezifikorik edo ikasmaterialen azterketa sistematikorik egiten.

Hezkidetzaren atala aztertzeke hurrengo pertsona hauekin elkarriketak izan ditugu:

- Elizalde Herri Eskolako eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxearen zuzendariekin, DBHko orientatzailearekin, eta LHko hiru irakasle eta idazkariarekin.

Bestalde, jarduera batzuen bitartez, hainbat informazio ere jaso ditugu:

A. *Nerabeen ikuspuntutik:*

Saio bereziak gai hauek ikasleekin aztertzeke:

- *sexu estereotipoak*
- *sexu mitoak*
- *etxeke lanen ginkana*

B. *Eskolako ordutegitik kanpoko jarduerak:*

nesken eta mutilen parte-hartzea aztertu dugu.

C. *Haur eta Lehen Hezkuntzako zuzendariarekin, ikasketaburuarekin eta irakasle batzuekin* izandako elkarriketak, eta hezkidetzak lantzeke *formakuntza saio* bat.

D. *Guraso Elkarteekin elkarriketak.*

E. *Irakasleei egindako inkesta baten emaitzak* (txosten honen bukaeran jasotzen ditugu).

Jarduera guzti hauen emaitza oso orokorrak hezkidetzaren inguruko indarguneak eta ahuleziak modura sailkatu ditugu:

## ELIZALDE : HEZKIDETZA INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK

### *Indarguneak:*

- **Hezkidetza eta hezkuntza afektibo-sexuala** eskolaren **hezkuntza proiektuan ardatz** modura agertzen dira (bai HH/LHko proiektuan bai DBHkoan). DBHko proiektuan hezkuntza afektibo-sexuala hezkidetzarekin uztartzen da, hau da, genero ikuspegia kontuan hartzen da proiektuan.
- **Irakasleek orokorrean hezkidetza lantzeko beharra edo interesa** agertu dute, nahiz formakuntza edo baliabide falta somatu.
- **Elizalde prest agertzen da hezkidetza lantzeko** eta genero indarkeria prebenitzeko saioak txertatzeko, ikasleei zuzenean zuzendutako saioak.
- **Gurasoen elkarteek hezkidetza eta hezkuntza afektibo-sexualaren saioak txertatzeko prest** agertu dira. DBHko gurasoen elkarteak berez hurrengo ikasturterako generoarekin zerikusirik duten hainbat gai jorratzeko asmoa du: berdintasunean hezitzea, eta elikadurarekin lotura duten arazoak nerabeen artean (anorexia, bulimia).
- **Eskolaz kanpoko jarduera gehienetan nesken eta mutilen parte-hartzea antzekoa da.**

### *Ahuleziak:*

- Hezkidetza **esplizitoki lantzeko baliabide praktikoa falta somatzen da**. Irakasle bakoitzaren sensibilizazio mailaren arabera gutxiago edo gehiago kontuan hartzen da.
- Orokorrean **irakasleek eta gurasoek ez dute hezkidetzaren inguruko formakuntzarik** jasotzen.
- Nerabeek hainbat **genero estereotipo eta mito barneratuak** dituzte. Hauek ez dira orain arte sistematikoki lantzen Haur, Lehen edo Bigarren Hezkuntzan.
- **Genero indarkeria prebenitzeko** estrategia edo jarduera finkorik ez da lantzen, nahiz eta irakasle batzuk gaia sakonki jorratu.
- **Lanbide orientazio eta hezkidetza uztartzeko beharra dago.**
- **Eskolaz kanpoko jarduera gehienetan nesken eta mutilen parte-hartzea orekatua da, baina bi jardueretan desberdintasun nabari da:**
  - Euskal dantzan 31 neska eta 6 mutil dira.
  - Xaken 17 mutil eta hiru neska (dirudienez aurreko urteotan desberdintasun hau ez zen hain nabari).

## HEZKIDETZA AZTERKETA: HAURTZARO IKASTOLA

Hezkidetzaren atala aztertzeko hurrengo pertsona hauekin **elkarrizketak** izan ditugu:

- Haurtzaro Ikastolako zuzendariarekin, LHko eta DBHko zuzendariekin, eta Haurtzaro Ikastola Patzuergoko Haur Eskolako zuzendariarekin.

Bestalde, **jarduera batzuen bitartez ere** hainbat informazio jaso ditugu, eta ondorengo orrietan horien txostenak gehitzen ditugu:

- Nerabeen ikuspuntutik: sexu estereotipoak, mitoak eta genero nortasuna: saio bereziak gai hauek ikasleekin aztertzeko (txostena hemen gehituta).*
- Eskolako ordutegitik kanpoko jarduerak: nesken eta mutilen parte-hartzea aztertu dugu*
- Udal Ikastola Haur Eskola Patzuergoko irakasleekin formakuntza saio bat.*
- Irakasleei egindako inkesta baten bitartez (txostenaren bukaeran gehituta).*

Jarduera guzti hauen emaitza oso orokorrak hezkidetzaren inguruko indarguneak eta ahuleziak modura sailkatu ditugu:

## HAURTZARO : HEZKIDETZA INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK

### *Indarguneak:*

- **Irakasleek orokorrean hezkidetza lantzeko** interesa somatzen dute, bai Patzuergokoak, Haur eta Lehen Hezkuntzakoak, baita DBHkoak ere. Berez iadanik materialetan hainbatetan hezkidetza planteamenduak txertatuta daude, eta irakasleek zentzu horretan lan egiteko interesa agertzen dute.
- **Ikasle helduenak** (jaso ditugu 3.DBHkoen iritziak) gizartean dagoen **sexu-diskriminazioaren konzientzia badute**, eta neskek bereziki argi arbuiatzen dute sexismoa.
- **Ikastola prest dago** generoa lantzeko, ikasleei zuzenean zuzendutako saioak txertatuz.
- DBHko teknologia eta zientzia irakasle batek hezkidetza planteamendu zehatza du, zientzia gaiak emateko hezkidetza formakuntza burutu zuena.

### *Ahuleziak:*

- Hezkidetza batzuetan zeharka lantzen da, baina **gutxitan esplizitoki**. Irakasle bakoitzaren sensibilizazio mailaren arabera gutxiago edo gehiago kontuan hartzen da.
- Orokorrean irakasleek eta gurasoek ez dute hezkidetzaren inguruko formakuntzarik jasotzen, momentuz.
- Nerabeek hainbat **genero estereotipo eta mito barneratuak** dituzte. Hauek ez dira orain arte esplizitoki lantzen.
- **Genero indarkeria prebenitzeko** estrategia edo jarduera finkorik ez da lantzen.
- **Lanbide orientazio eta hezkidetza uztartzeko beharra** dago: irakasle batzuen arabera, hautazko gaien aukeraketan, baita DBH ondorengo ikasketa aukeraketan, hainbat genero joera islatzen dira. Teknologia hautazko gaien, adibidez, neska gutxi daude. 2008-2009 ikasturtean hiru izena eman dute. Aurreko ikasturtean ez zegoen neska bakar bat ez.
- **Eskolaz kanpoko jarduera gehienetan genero joerak antzematen** dira. Bi jarduera bereziki “sexu bakarrekoak” dira, hau da, “mutil” edo “neska” jarduerak dira:
  - Dantza garaikidea: 76 neska daude, mutil bakar bat ez.
  - Kenpo: 9 mutil daude, neskarik ez.

Desorekak antzeman arren, hainbat jardueretan nesken eta mutilen parte-hartze ahaleginak eginez, azken urteotan **ematen zen genero desoreka gutxitu** egin da, hala nola:

- Eskola Kirolean lehen oso neska gutxi zeuden, orain parte-hartzaileen %38 dira.
- Euskal Dantzan orain dela urte batzuk mutilik ez zegoen, orain behintzat %28a dira.
- Bertsolaritzan lehen oso neska gutxi zeuden. Orain hamarretatik 4 neska dira.

## II A. HEZKIDETZA AZTERKETA, NERABEEN IKUSPUNTUTIK... NESKA ALA MUTILA IZATEA ZEREKIN LOTZEN DUTEN? (ELIZALDE ETA HAURTZARO IKASLEEKIN)

Haur eta nerabeek dituzten genero aurreritziak ezagutzeko hainbat saio eman ditugu Oiartzungo Elizalde Herri Eskolan eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxean eta Haurtzaro Ikastolan. Alde batetik 9-10 urteko haurrekin egon gara (4. LH Elizalde), eta bestalde 12-13 eta 14-15 urteko nerabeekin (1.DBH eta 3.DBHko bi eskoletakoak).

Saioak 2008ko martxoan eta ekainan izan dira.

Saio hauek hiru helburu bete zituzten:

- **Sexu estereotipo eta mitoak neurtzea:**  
Jokuen bitartez genero estereotipoak eta mitoak belaunaldi berrietan noraino bizirautez duten neurtu ahal izan dugu.
- **Ikasleen artean eztabaida piztea, estereotipo eta mito horiek kolokan jartzeko:** Jokuen bitartez, ikasleek beraiek adierazitako estereotipo eta mito horien inguruan gogoeta egin dute, dituzten aurreritziaren kontraesanak aztertuz.
- **Sexu rolen eta etxeko lanen inguruko hausnarketa egitea:** neskek eta mutilek nori egokitzen diote etxeko lanen egin beharra, eta zertan parte-hartzen duten.

Honako talde hauekin izan gara:

4. LH:	2 talde,	55 ikasle.
1. DBH:	4 talde,	85 ikasle.
3. DBH:	5 talde,	77 ikasle.

**Guztira 217 ikaslek jardueran parte hartu dute.**

## **Ikasleekin jarduera: sexu estereotipoak eta rolak**

Sexu estereotipoak eta rolak aztertzeko, ikasle guztiei eskatu genien esaldi batzuei protagonista jartzea, hau da, erabakitzea ea esaldiaren protagonista emakumea ala gizona zen.

Dinamika simplea izan zen: ikasleek denon artean istoria bat kontatzeko zuten, bikote baten istorioa, emakume eta gizon baten istorioa. Ikasleek ekintza bakoitzaren protagonista zein zen erabaki behar zuten, emakumea ala gizona. Hemen ditugu ikasleen erantzunak:

LHko ikasleen erantzunak ez ditugu hemen islatzen, jokuan nabari zelako adin horretan askok gehiengoaren arabera aukeratzen zutelako, eta ez beraiek pentsatu zutelako. Gainera LHn erabilitako hainbat esaldi ezberdinak ziren.

Lehenengo eta hirugarren DBHko 162 ikasleen erantzunak zehazki jaso ditugu. Honako hauek dira:

### **Sexu estereotipoen jokua**

Esaldien protagonista emakumea ala gizona da? (urdinez: gehiengoak emakumeari egokitutako ekintzak)	Ikasleen erantzuna	
	Emakumea	Gizona
<i>Ekintza motak eta esparruak...</i>		
<b>Gosaria prestatzen du denontzako</b>	119	43
Egunkaria irakurtzen du	41	121
Korrika egitera joaten da	40	122
<b>Etxeko komuna garbitzen du</b>	146	16
<b>Erosketak egiten ditu</b>	99	63
Tabernan dago aperitiboa hartzen	20	142
<b>Arropa buztia zintzilikatzen du</b>	129	33
Saskibaloia jokatzen du	37	130
<b>Afaria prestatzen du</b>	97	65
Telebista ikusten du	61	101
Ilunabarrean poteatzera joaten da lagunekin	21	141
<b>Mahaia jasotzen du</b>	97	65
Platerak garbitzen ditu	90	72
Fregona pasatzen du	118	44
Egun horretan lan egin du	53	109

Ariketa honen helburua ikasleen aurreritzi maila aztertzea zen: **noraino lotzen dituzte emakumeak espazio, ekintza, balore eta ezaugarri zehatz batzuekin, eta gizonek beste batzuekin.** Orokorrean, ikasleek genero estereotipoak barneratu dituzte:

- **Emakumeari gehienbat etxeko esparrua eta etxeko lana egokitzen diote, eta lan hauek askok ez dituzte "lantzat" jotzen, beraz ez dituzte baloratzen.**
- **Lanaren konzeptua gizonarekin lotzen dute (nahiz eta istorioan batez ere emakumeak lan egin, ikasleek gizona lan konzeptuarekin gehiago lotzen dute).**
- **Gizonari askoz gehiago egokitzen dizkiote aisialdiarekin lotutako ekintzak. Beraz, nolabait gizonari bere aisialdia izateko "eskubidea" atxikitzen diote.**

## **Ikasleekin jarduera: sexu mitoak**

**Sexu-genero mitoak aztertzeko** -sexismoa sustatzen duten sinesmen faltsuak- beste hainbat esaldi bota ditugu, eta ikasleek aukeratu behar zuten ea esandakoa egia ala gezurra zen, eta ondoren egindako aukera argudioen bitartez justifikatu behar zuten.

Ariketa honen helburuak honako hauek ziren:

- Sexu-genero mitoen biziraupena azterzea: ea mito hauek belaunaldi berrietan errepikatzen diren.
- Mitoen inguruko gogoeta sortzea.
- Ikasleek bere iritzia sustatzeko argudioazio koherentea landu behar izatea, eta argudiorik gabe mitoak baztertzeko gaitasuna bultzatzea.

Honako esaldi hauek bota genituen, eta gehiengoaren erantzuna jaso:

### *Sexu mitoen jokua*

Egia ala gezurra da?	Ikasleen erantzuna	
	Egia	Gezurra
<i>Neskak bakarrik mahaia jaso behar dute</i>	1	161
<i>Neskak mutilek baino gehiago negar egiten dute</i>	87	75
<i>Neskak mutilek baino gehiago sentitzen dute, sensibleagoak dira</i>	70	92
<i>Mutilek neskek baino gehiago sentitzen dute min fisikoa</i>	45	117
<i>Neskek bakarrik gona erabili dezakete normaltasunez</i>	83	79

Beste esaldi batzuk ere erabili genituen, baina taldearen eztabaidaren arabera aukeratu genituen. Beraz, ez ziren talde guztietan esaldi berdinak erabili, eta horregatik ez ditugu ikasleen erantzunak esaldi hauen kasutan zenbatu. Gehiengoak emandako erantzuna jaso dugu. Honako hauek ziren:

Erabilitako beste esaldi batzuk	Egia	Gezurra
<i>Futbolean mutilak dira hoberenak beti</i>		X
<i>Mutilei gutxiago inporta zaie nola jantzita joan edo zer itxura eman</i>		X
<i>Mutilak neskek baino ausartagoak dira</i>	X	

Ikasleen arteko eztabaidan genero mito hauen kontraesanak azaleratu ziren:

- **Mahaia jasotzea: eskubide eta gaitasun berdinak ditugu!:**  
Hasierako esaldi hau gezurtzat emateko argudioa: denek berdin zikintzen dugu, denak berdin jaso behar dugu, **gai garelako eta eskubide berdinak ditugulako**. Denak ados zeuden, printzipioz, ideei honekin, denak eskubide berdinak izatearen ideia.
- **Neskek negar gehiago egin / mina gehiago sentitu?**  
Kontraesana: Ikasleen gehiengoak uste zuen **neskek negar gehiago egiten dutela**, baina aldi berean **neskek eta mutilak berdin sentitzen dutela** ere uste zuten. Eztabaida piztu zen, aztertzeko zergaitik mutilek, berdin sentituz gero, negar gutxiago egiten duten. Batzuk benetan gutxiago sentitzen dutela uste bazuten ere, gehienek onartu zuten mutilei besteen



aurrean negar egitea “lotsa” sortarazten ziela. “Lotsa” horren jatorria eztabaidan aztertu zen. Gehien aipatutako zergaitia hau zen: **mutilek gogorrena egiteagatik ez dira ausartzen** besteen aurrean negar egiten. Orokorrean, negar egitea bai neska bai mutilentzako hainbat momentutan beharrezkoa zela onartu zen.

Beste hainbat komentarioetan ere antzematen zen **mutil askok barneratu dutela beraiek ez dituztela minak, tristurak edo beldurrak adierazi behar**, alegia, ez dira inoiz hauskor modura agertu behar. Batzuk benetan uste zuten mutilek neskek baino gutxiago sentitzen dutela, bai mina bai eta sentimenduak ere. Horrelako mitoak justifikatzen ahal dute mutilen artean tratatu gogorra izatea.

Neska batzuk uste zuten **neskak “ahulagoak” direla**, beraz mina gehiago sentitzen dute eta negar gehiago egiten dute. Hau ere beste hainbat neskek ukatu zuten, baina mito hau oraindik bizirauten duela ikusi zen. “Ahul” izate horri esker neskek lasaitasun osoz negar egiten ahal zutela ere aipatu zen.

- **Mutilak “normaltasunez” gona janzten ahal dute?:**

“Noski mutilek gona janzten ahal zutela” uste zutenei (mutilek batez ere), bihar eskolara gona jantzia etorri gero zer gertatuko litzatekeen galdetu genien. “Marikoia” hitza edo barreak entzungo zituztela uste zuten gehienek. Adibide honen bitartez, mutilek neskek baino askatasun gehiago dutela zalantzan jarri zen. Eta bide batez, **genero sistema aztertze**ko balio izan zuen: **emakumeak noiz eta zergaitik hasi ziren galtzak janzten**, eta **gizonek zergaitik ez duten gona bereganatu**. Hau da, janzkera espazio eta rolaekin nola lotzen den, eta gona zerekin lotzen dugun aztertu zen, eta gizonek zergaitik duten “feminizatze” beldurra.

- **Futboleko mutilak “hoberenak beti”:**

Mito hau desagitea eztabaidan erraza izan zen, baina hala ere mutilen artean oso barneratuta dago futbola mutilen kontua dela. Kirola zer den aztertu zen, eta ea emakumeak ere onak diren kirolean. Zergaitik prentsan gizonak bakarrik agertzen diren (diskriminazio egoerak kirol profesionalean, dirua...), eta zergaitik kirola gizonekin bakarrik lotzen dugun.

- **Itxura zaindu:**

Mutilek aukera izan zuten beraiek beren itxuraz arduratzen direla expreski adierazteko, eta bide batez horrekin lotutako beste hainbat aspektu jorratu ziren.

- **Ausardia “mutilen” kontua al da?:**

Ausardia zer den, zerekin lotzen dugun, aztertu zen. Gehienbat mina hartze beldurra gaintzearekin lotu zen, hau da, fisikoki arriskutsua den zerbait egitea (puenting, eskalada...). “Egia esateko” ausardia, “ezberdina izateko” ausardia... hausnartzeko aukera eman zuen eztabaidak talde batzuetan.

Beraz, **sexismoa bizirauten dituzten mitoak oraindik indarra** badute, eta bai neskek bai mutilek hainbatetan **barneratu dituzte**. Saio bakar bat izan zen, baina ariketen bitartez maskulinitate gogor eta indartsuaren mitoak eta feminitate ahul eta mugatuaren mitoak kolokan jarri ziren.

## **Elizaldeko ikasleekin jarduera: etxeko lanen ginkana**

Estereotipo eta mitoen saioaren ondoren, 1. eta 3.DHBko ikasleek etxeko lanen inguruko Ginkana batean partu hartu zuten. Ginkanan eguneroko bizitzarako egiten diren hainbat etxeko lan burutu behar zituzten. Hortarako, material txoko ezberdinak prestatu ziren Madalensoro Frontoian: etxeko konponketak egiteko mailua eta iltzeak; arropa zintzilikatzeko guztia; plantxatzeko mahaia eta arropa; sukalde mahaia ogitartekoak prestatzeko; lurra garbitzeko erratza eta fregona; panpin bat pardela, biberioia eta jantziekin; ohe bat prestatzeko guztia; etab..

Ginkana ondoren, hausnarketa saioan, neska-mutilei galdetu genien zein ekintza izan zuten gustokoen. Mutil gehienek mailuarekin aritzea aipatu zuten, eta gutxi batzuk ogitartekoak egitea. Neskek, berriz, ekintza guztiak aipatu zituzten, mailua eta iltzeena izan ezik.

Ikasleen iritzietan argi islatu ziren oraindik dirauten sexu estereotipoak, hala nola, garbitzen laguntzen duen mutil bat "marikoia" izatea, edo etxeko lanak gurasoen eginbeharra izatea, bereziki amarena.

### **Ginkanaren ondorioak**

Ikasleek neska ala mutila izatea berdina izan behar duela uste badute ere, ariketen bitartez emakumeen eta gizonen inguruko hainbat aurreritzi sexista islatu dituzte:

- Normalizat jotzen dute emakumeek batez ere etxeko eta zaintza lanaz arduratzea, eta ez diete jarduera hauei "lana" izatearen konzeptua atxikitzen.
- Gizoneei berriz esparru publikoa, lan ordaindua eta beraien aisialdirako denbora propioa atxikitzen diete.

Orokorrean, ikasleekin egindako saioetan sexismoa lantzeko beharra detektatu da.

## Haurtzaro ikasleekin jarduera: neska izateaz / mutila izateaz zer gustatu eta zer ez

Bukatzeko, mutileei eta neskei eskatu genien paper batean, eta modu anonimoan, neska izateaz edo mutila izateaz zer gustatzen zitzaien eta zer ez aipatzea.

Erantzunetan bereizi ditugu 1.DBHkoenak eta 3.DBHkoenak, hainbat puntuetan ezberdintasunak ematen zirelako bi adin tartean.

1.DBHko 21 neska eta 25 mutil erantzun zuten, 12-13 urtekoek ziren.

3.DBH: 14 neska eta 10 mutil erantzun zuten, 14-15 urtekoak.

Erantzun ohikoenak hurrengo orrietan jaso ditugu:

1.DBHko NESKAK	Erantzun ohikoenak
----------------	--------------------

### NESKA IZATEAZ GUSTATZEN ZAIT...

- Semeari edo alabari bizia emateko gai izatea / haurdun gelditzeko gai izatea 8
- Itxura fisikoa gustatzen zait: gona eta takoiak jantzi ahal izatea, makilatzea etxean, nahi dudan modura jantzi ahal izatea inor neri ezer esan gabe... 7
- Dantza egitea 3

### NESKA IZATEAZ EZ ZAIT GUSTATZEN...

- Hilekoa izatea 7
- Neska izateagatik etxeko lanak egin behar izatea 4
- Gustatzen ez zaien ezer aipatu ez dutenek 6

3. DBHko NESKAK	(erantzun ohikoenak, zenbatu gabe, anitzak zirelako)
-----------------	--

### NESKA IZATEAZ GUSTATZEN ZAIT...

- Seme-alabak izan ditzakegu:
- haurdunaldia eta haurrarekin hasierako harreman estua bizitzen ahal dugu.
- Nahi dugun arropa jantzi dezakegu, "neskena" edo "mutilena"
- Diskriminatua ez izatea:  
"eskubide berdinak izatea", "berdin tratatua eta onartua" izatea kirolean edo bestetan
- Neska izateaz harro nago, edo gustora nago: "hala naizelako eta hala tokatu zaidalako".
- Nesken ohiturak orokorrean gustatzen zaizkit. Sentimenduak kanporatzeko modua.
- Kirol mota batzuk egitea inor gu kritikatu gabe.

### NESKA IZATEAZ EZ ZAIT GUSTATZEN...

- Hilekoa izatea / depilatu egin beharra izatea
- Diskriminazioa: neska izateagatik "etxeko lanak egin behar"; kirol batzuetan berdintasunean ez jokatzeko, haurdunaldian lanean jarraitzeko "legeen" babes falta.
- Neska izateagatik etxeko lanak egin behar; emakumeek egindako lana kontutan ez hartzea.
- Oraindik herrialde batzuetan gutxiago baloratua izatea.
- Jendeak "ahulagoak garela pentsatzea" / "debilak bezala izendatzen gaituzte"
- Guk arazo gehiago ditugu orokorrean / berdintasuna lortu ez izana

## NESKA IZATEAREN BALORAZIOA: OROKORREAN POSITIBOA, HILEKOA ETA PAREKIDETASUN FALTA IZAN EZIK

- Neska izatea orokorrean modu positiboan baloratu da, eta batzuk ez dute berez ezer negatiborik topatu aipatzeko. Diskriminazio eza baloratzen dute.

“Mutilak bezala gauz batzuk egiteko onartuak izatea”

“Gustatzen zait (neskek duten) sentimenduak kanporatzeko modua”

“Neska izateaz harro nago, hori nik ez dudalako erabakitzen, jaiotzez, eta horrela handitu naizelako nire bizitza bukatu arte”

- Hala eta guztiz, orokorrean oso negatiboki baloratu dute hilekoa izatea. “Zikina” eta “mingarria” dela aipatu dute, “izkutatu” behar den zerbait. Erantzun batzuetan, neska izatea “eskubide gutxiago” izatearekin lotzen da:

*“neska izateagatik etxeko lanak egin behar izatea”*

*“neska izateagatik, batzuk, mespretxatzea”*

*“pentsatzea ahulagoak garela,  
eta ez ditugula mutilak dituzten eskubide ber-berak”*

- Bestalde, neska izatea etorkizunean ama izatearekin lotzen dute, bizia emataearekin. Hainbat komentarioetan amatasunaren nolabaiteko idealizazioa islatzen da, hala nola:

“Seme-alabak izan ditzakegu barrenean, eta hasierako erlazioa (ama semearekiko) ez da aita semearekiko berdina, sakonagoa da.”

- Naiz eta positiboki baloratu, **neskek bizitzan “arazo gehiago” izatea** ere adierazi dute.

## MUTILEN ERANTZUN OHIKOENAK

<b>1.DBH</b>	Erantzun ohikoenak
--------------	--------------------

### *MUTILA IZATEAZ GUSTATZEN ZAIT...*

- 6
- Ezin dugu haurdun gelditu / hilekoa ez dugu / tripakomin gutxiago 4
- Kirolean habilagoak / kirolean onagoak garela / pilota jokatzea 3
- Neskei mutilak gustatzen zaizkie 3
- Pitoa dugula / pixa edozein lekuan egin dezakegu 2
- Dena gustatzen zait / mutila izateaz harro nago / motorra izatea

### *MUTILA IZATEAZ EZ ZAIT GUSTATZEN...*

- 6
- Ezin gara nesken aldageletan sartu 5
- Ez zait gustatzen nesken arropa janzteia, goña, kuleroak... 4
- Mina izatea arrautzetan jotzen nautenean 8
- Gustatzen ez zaien ezer aipatu ez dutenek

<b>3. DBH</b>	<b>(erantzun ohikoenak, zenbatu gabe, anitzak zirelako)</b>
---------------	---

### *MUTILA IZATEAZ GUSTATZEN ZAIT...*

- Kiroletarako aukera gehiago / kirolerako beti lagunik prest / fisiko "hobeagoa"
- Pixa egiteko / "pixa iteakuan al duzu zutik"
- Mutila izateagatik eskubideak / eskubide gehiago izatea
- Direktoa izatea

### *EZ ZAIT GUSTATZEN...*

- Ahotsa aldatzea
- Afeitatu behar izatea
- Neskekin ateratzean mutila beti lehenengo pasua eman behar du
- Zintzotasun fama dute neskek
- Neskek nahi duten bezala janzten ahal dira

**MUTILEN BALORAZIOA:**  
**OROKORREAN MUTILA IZATEAZ HARRO, NESKAK EZ DIRELA AZPIMARRATUZ**  
**ALDAKETA FISIKOAK EZ DITUZTE GUSTOKO**

- Mutilek orokorrean mutila izateaz “harro” agertu dira beren erantzunetan, eta askok erantzuna ematerakoan nolabait “mutila izatea sinplemente hobea dela” azpimarratu nahi izan dute, edo batek aipatu zuenez “eskubide gehiago izatea”.
- Gehienen erantzunetan mutila izatea neska izatea “baino hobea dela” adierazi dute: konpetitzeko eta garaitzeko beharra adierazi dute. Kirolarekin lotzen dute mutila izatea.

“Mutila izatea sinplemente hobea da”;

“Kirolean habilagoak gara” “Kirolean onagoak”

“Pitoa dugula”

- Mutila izatea neska ez izatearekin lotu dute:  
Agian aurreko ariketan botatako esaldi bat hartarako motibatu du (*mutilek ezin dute normaltasunez gona jantzi*). Oraingo ariketan hainbat mutil azpimarratu dute nesken arropa janztea –gona, kuleroak- ez zaiela gustatzen. Hori ez zen oraingoan galdetzen zitzaiena, baina hori azpimarratzeko beharra zuten.
- Mutil batzuk eskubide gehiago dituztela, eta lana errazago topatuko dutela, barneratu dute. Aurreko ariketa batean mutil bakar bat taldearen eta irakaslearen aurrean adierazi zuen mutilek “eskubide gehiago” dituztela. Ariketa anonimo honetan, berriz, batzuk izan dira hori adierazi dutenek. Beraz, barneratu dute iritzi hori ez dagoela publikoki legitimatuta, beraz ezin da edonoren aurrean adierazi, baina sinesmen hau oraindik dirau.
- Mutila izatea direkto izatearekin lotu dute, ezaugarri positibo modura.
- Mutila izatea inizatiba sexualarekin ere lotu dute, aktiboa izateko behararekin, eta negatiboki baloratu dute:

“Neskekin ateratzean mutila beti lehenengo pasua eman behar du”

- Gutxi batzuk aipatu (onartu) dituzte “mutila” izatearekin lotzen dituzten desabantailak, hala nola:

“*beti fuertearena egin behar dudala*”

“*normalean neskak abilagoak dira ikasketetan (batzuk)*”.

- Adin honetan (3.DBHkoen erantzunak) gertatzen diren aldaketa fisikoak ez dituzte gustoko. Alde batetik, ahotsa aldatzearen garaian “gallitoak” botatzen dituztelako, eta bestalde afeitatzera behartuak sentitzen direlako.

## **NESKA IZATEAZ..., MUTILA IZATEAZ... ARIKETAREN EMAITZEN LABURPENA**

**Neskek eta mutilek genero nortasuna barneratu dute. Hau da...**

- dantza nesken kontu bezala ikusten dute / eta mutilek kirola mutilen kontu moduan.
- Amatasuna / bizitza sortu ahal izatea garrantzia du
- Estetika, arropa, nesken kontu modura aipatzen dute.
- Mutilek “pitoa” aipatzeko beharra dute / mutila izatea neska ez izatea da azpimarratzen dute.

**12-13 urtetik 14-15 urtera nabaritzen diren aldaketak:**

- Generoaren desabantailen konzientzia adinarekin areagotzen da, bereziki nesken artean: neskek sexismoa eta diskriminazioa arbuiatzen dute, sentitu izan dute noizbait, edo beste moduz horren konzientzia badute.
- Mutil batzuk eskubide gehiago dituztela barneratu dute. Gutxi batzuk “gizon” ereduaren desabantailak aipatu dituzte.
- Neskak 3.DBHn harroagoak agertzen dira neska izateaz, nesken joerak gustoko dituzte.

## II. B. NESKEN ETA MUTILEN PARTE HARTZEA ESKOLAKO ORDUTEGITIK KANPOKO JARDUERETAN

### II.B.1 ELIZALDE HERRI ESKOLAKOAK (LH)

Elizalden Lehen Hezkuntzan eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dira. Bigarren Hezkuntzan aurten ez da horrelakorik antolatu. Bigarren Hezkuntzan antzerkia egiten da, baina eskolako ordutegiaren barnean.

Lehen Hezkuntzako neska eta mutilen parte-hartzea eskolaz kanpoko jardueretan honako hau izan da 2007-2008 ikasturtean:

Jarduera	Neskak	Mutilak	Guztira
Eskola Kirola	42	57	99
Euskal dantza	31	6	37
Xakea	3	17	20
Antzerkia	9	7	16
Txalaparta	5	7	12
Bertsolaritza	5	2	7
GUZTIRA	95	96	191

Eskola Kirola izan ezik, jarduera hauek bazkal ondorengo tartean antolatzen dira gehienetan.

Nesken eta mutilen parte-hartze kopuru orokorrak ia berdinak dira (95 / 96), baina jarduera zehatz batzuetan desberdintasun nabariak izaten dira:

- **Euskal Dantzari** seitatik bat bakarrik mutila da. Azken hiru urteotan desberdintasun hau eman da: mutilen parte-hartze txikia.
- **Xakean** hogeitaz hamar ikasleetatik hiru bakarrik neskak dira. Azken urteotan, berriz, desoreka hau eman da baina ez da hain nabari izan.
- **Eskola Kirolean** nesken parte-hartzea mutilena baino txikiagoa da, baina azken hiru urte aztertuz gero gutxitzen doa desoreka da. 2008-2009ko ikasturterako nesken eta mutilen presentzia ia parekatzea espero dute programa honen arduradunek.
- Beste jardueretan parte-hartzaileen kopurua txikiagoa da. Hori dela eta, ezin dugu nesken eta mutilen parte-hartze kopuruaren oreka aztertu. Jarduera guztietan badira neskak eta mutilak: antzerkia, txalaparta eta bertsolaritza.

Honetaz gain, Elizaldeko Guraso Elkarteak antolatzen du Goiz Txokoa. Jolas txokoa da, eskolako ordutegia baino lehenago sartu behar diren haurrentzako (goizez, 07:30-09:00). Izan ere, gurasoen laneko eta famili ardurak uztartzeko zerbitzua da.



## II.B.2. HAURTZARO IKASTOLAKOAK

Ikastola honetan neska eta mutilen parte-hartzea eskolaz kanpoko jardueretan honako hau izan da 2007-2008 ikasturtean:

Jarduera	Neskak	Mutilak	Guztira
Eskola Kirola Alebinak: neskak 26 / mutilak 31 Benjaminak: neskak 11 / mutilak 29	37	60	97
Atletismoa	2	1	3
Euskal dantza	90	36	126
Dantza garaikidea	76	0	76
Kenpo	0	9	9
Malabarrak	9	3	12
Marrazketa1	18	10	28
Bertsolaritza1	8	13	21
Eskulanak1	15	8	23
<b>GUZTIRA</b>	<b>255</b>	<b>140</b>	<b>395</b>

Jarduera batzuk bazkal ondorengo tartean antolatzen dira -dantza garaikidea LHkoentzat, marrazketa, bertsolaritza, eskulanak-, eta beste batzuk arratsaldetan izaten dira, eskolako ordutegia amaitu ondoren. Badago beste jarduera bat, Jolas Txokoa, 4 eta 6 urte bitartekoei zuzenduta dagoena. Ez dugu jarduera hau datuetan kontuan hartu, jarduera gehienbat denbora tarte bati erantzuna emateko delako -jangelan gelditzen diren 4-6 urteko haurren jolaserako-.

**Neskek orokorrean gehiago parte hartzen dute:**  
Parte-hartzaileen %63a neskak dira, eta %37a mutilak.

Bestalde, jarduera aukeraketan ikasleek maiz sexuaren arabera bereizten dira. Jarduera batzutan neskek bakarrik parte hartzen dute, eta beste batzuetan mutilak bakarrik.

**Neskak gehiengoa dira...**

- **Dantza garaikidean:** 76 neska parte hartzen dute; mutil bakar batek ez.
- **Euskal dantzan:** Neskek batez ere parte hartzen dute, eta mutilek gutxiengoa osatzen dute. Hamar ikasleetatik ia zazpi neska dira.
- **Malabarretan:** lautatik hiru dira neska, eta bat mutil.
- **Eskulanetan eta marrazketan:** Neskek parte hartzaileen bi heren osatzen dituzte.

**Mutilak gehiengoa dira...**

- **Kenpon:** parte hartzaile guztiak mutilak dira. Neska bakar bat ez.
- **Eskola Kirolean:** Mutilek osatzen dute parte hartzaileen %62a, neskek %38a.

Beste jardueretan ere desoreka txikiak antzematen dira, hala nola, bertsolaritzan mutil gehiago parte hartzen dute.

### II.B.3 BI ESKOLETAKO IKASLEEN KIROL ESTRAESKOLARRAK

Eskola bakoitzak antolatzen dituen jardueraz gain, badira hainbat kirol jarduera non bi eskoletako ikasleek parte hartzen duten. Hainbat elkarte ezberdin antolatzen dituzte jarduera hauek.

Datuak hainbat genero joera eta parte-hartze desberdintasunak islatzen dituzte:

- **Mutilik ez gimnasia erritmikoan:** 95 neska parte hartzen dute. Jarduera honetan aukeratutako jantziak (bereziki femeninoak), eta jardueraren triptikoan agertzen den irudia (neskak bakarrik, eta makilatuak), ez du asko laguntzen mutilen parte hartze jarduera horretan animatzeko. Tximeleta elkartearen triptikoa testua neskei eta mutilei zuzenduta dago, baina esan bezala irudian soilik neskak agertzen dira.
- **Neskarik ez esku pilotan:** Nahiz eta bi eskoletan azken urteotan neska batzuk interesa agertu jarduera honetan, ez dago neska bakar bat horretan parte hartzen. Aztertu beharko litzateke zergaitik interesa agertu duten neskek ez duten edo ezin izan duten jarduera honetan parte hartu. Oiarpe elkarteak jarduera hau antolatzen du.
- **14 urtekin saskibaloian neskak hasi, eta futbola berriz utzi:** adin honetan neskek orokorrean hainbat kirol jarduera uzteko joera erakusten badute ere, saskibaloian adin honetan taldea sortu da. Nesken parte-hartze honen gakoa izaten ahal da saskilagunak elkarteak egindako ahalegin berezia neskak animatzeko.
- **Lehia duten gorputz jarduerak “mutilen kontu”:** Neskak gehiengoa dira euskal dantzan, dantza garaikidean eta gimnasia erritmikoan. Gorputz jardueren eduki nagusia lehia denean, mutilak nagusitzen dira. Hori dela eta, lehia kirolean nesken eta mutilen artean ematen den parte-hartze **desoreka handia da: lehia kirol jardueretan 195 neska eta 421 mutil** parte hartzen dute. Hala ere, garrantzitsua da gogoratzea hau ez dela gaztetxoek egiten duten gorputz jarduera guztia: neskek askotan aukeratzen dituzte beste gorputz jarduerak non lehia ez den faktore garrantzitsuena (euskal dantza, dantza garaikidea...)

Hurrengo orrialdean Lehia kirolak soilik islatzen ditugu:

**OIARIZUNGO BI ESKOLETAKO IKASILEEN  
LEHIA KIROL JARDUERA ESTRATEGIKOLARRA**

	Gimnasia erritmikoa	
	NESKAK	MUTILAK
Adina	48	
7tik behera	7	
8	10	
9	13	
10	4	
11	11	
12		
13		
14	2	
15		

Guztira 95 neska

	Igeriketa	
	NESKAK	MUTILAK
Adina	0	0
7tik behera	8	5
8	0	4
9	1	2
10	2	0
11	6	1
12	3	1
13	1	1
14	3	3
15		
	24	17

Atletismoa	
NESKAK	MUTILAK
0	2
0	3
3	0
4	1
0	0
0	2
3	1
10	9

	Kenpoa	
	NESKAK	MUTILAK
Adina	5	12
7tik behera	3	8
8	2	8
9	1	6
10	2	1
11	4	4
12	1	6
13	0	6
14	1	3
15		
	19	54

Esku Pilota	
NESKAK	MUTILAK
	19
	23
	26
	14
	13
	11
	9
	8
	3
	126

Judoa		Futbola		Saskibaloia	
NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK
7	70				
3	22				
6	14				
4	6				
1	4		12		
0	1	8	11		8
0	4	5	18		2
1	0		22	10	5
1	2	1	11		3
23	123	14	74	10	18

### ELIZALDE

Datuak biltzeko elkartu gara Elizaldeko bi guraso elkarteekin: Haur eta Lehen Hezkuntzako guraso elkarte (Eva Getariarekin hitz egin dugu) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako guraso elkarteko lehendakariarekin (Margarita Maritxalar).

HH eta LHko elkarteak lehen aipatu ditugun **haurrentzako eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen ditu**, eta **gurasoentzat hitzaldi edo formakuntza txikiak** antolatzen ditu.

2007-2008 ikasturtean, adibidez, *konfliktoen konponketarako* formakuntza izan dute gurasoek, eta seme-alaben adin tarteen arabera saio ezberdinak eman dira. Guraso elkarteen jardueretan *gehienbat* emakumeak, hau da, *amek parte hartzen dute*. Sexualitatea edo hezkidetzaren inguruan ez dute, azken urteotan, formakuntzarik antolatu, baina interesa egon ahal da horrelako gaiak jorratzeko.

DBHko gurasoen elkarteak jarduera txikia du, gurasoen parte-hartze ere azken urteotan txikia delako. Elkarrekin ez dituzte eskolako ordutegitik kanpoko jarduerak antolatzen. Hitzaldiak antolatzen dituzte noizean behin, adibidez, droga-menpekotasunen ingurukoak (Askagintza Elkarrekin emanak Udalaren laguntzarekin). Parte hartzen duten *guraso gehienek emakumeak dira*, hau da, amak, eta parte-hartze txikiak somatzen dute. 2008-2009 ikasturterako hiru gai hauek landu nahi dituzte: droga-menpekotasunak, elikadurarekin lotura duten desorekak edo gaixotasunak (bulimia, anorexia...) eta genero berdintasuna.

Guraso elkarteek ez dute azken urteotan sexualitatea edo hezkidetzaren inguruko formakuntzarik antolatu, baina gai hauek lantzeko interesa egon ahal da.

**Interesa, beraz, badago, sexualitatea edo hezkidetzaren inguruko ekintzak antolatzeko.**

### HAURTZARO

Ezin izan ditugu Haurtzaroko Gurasoen iritzia bildu, ez baita posible izan Haurtzaroko gurasoekin elkarrekin.

## II D IRAKASLEEI EGINDAKO INKESTEN EMAITZAK

### HHko IRAKASLEEN INKESTEN EMAITZAK:

14 irakasleek inkesta bete dute

Emaizten laburpena:

- Irakasle guztiek hezkidetzarako baliabide edo aholkularitza gehiago izatea nahiko lukete:
  - *Denek materialetan emakumeen eta gizonen presentzia modu parekoan islatzeko.*
  - *Gehienek (5) materialen eta ipuinen aukeraketa egiteko orduan, sexu estereotipoak errepikatzen dituzten materialak baztertzeko edo zuzentzeko, eta nesken eta mutilen protagonismoa, edo emakumeen eta gizonena, parekatzeko.*
  - *Gehienek denbora falta edo dedikazio falta somatzen dute.*
- **Gehienek genero desorekak antzematen dituzte, adibidez espazioaren okupazioan jolastokian edo etxeko lanen ardura "amari" bakarrik egokitzea.**

Batzuk desoreken aurrean jarrera aktiboa hartzen dute, beste batzuk ez.
- Eraso edo irain sexistak ez dira ia antzematen adin tarte honetan.
- **Gehienek hezkidetzarako formakuntzarik jasotzea interesgarritzat edo beharrezkotzat jotzen dute, eta denek beharrezkoa jotzen dute hausnarketarako saioen bat izatea.**
- **Denek sexualitatearen inguruko formakuntzarik jasotzea interesgarritzat edo beharrezkotzat jotzen dute. "Adin honetan sortzen diren egoerei zein trataera eman aztertzeko".**

## LHko IRAKASLEEN INKESTEN EMAITZAK:

### 19 irakaslek inkesta bete dute

Emaizen laburpena:

- Irakasle gehienek hezkidetzarako baliabide edo aholkularitza gehiago izatea komenigarritzat jo dute, horietatik gehienek bai materialen aukeraketa egiteko, bai eta emakumeen eta gizonen protagonismoa parekatzeko emandako gaietan. Irakasle gehienek neskei eta mutilei aukera berdinak ematen dietela uste badute ere, tarteka genero kontuak berbegiratzea eta beraztertzea komenigarria dela uste dute, batez ere formakuntzaren bitartez.

- Gehienek nesken eta mutilen artean genero desorekak antzeman dituzte:

“Materiala desberdinak mutilen artean bakarrik uztea, hau da, borragoma etab. neskei ez uztea, bakoitzak berea izan dezan.”

Espazioaren okupazioa: “Neskak txoko batean egotea hitz egiten, eta mutilak futbolean.

“Materialen jasoketa nesken eskutan uztea”.

- Irakasleen erdiak desoreken aurrean jarrera aktiboa hartzen du, gehienbat materialen erabilera antolatzeke (baloia nesken eta mutilen artean txandakatzen) eta arduren banaketa orekatzeko (materialak jasotzeko txandak).
- Irain edo eraso sexistarik ez dira ia antzeman ikasleen artean, baina banakako kasuak antzeman dira.
- Irakasle ia guztiek hezkidetzarako formakuntzarik jasotzea interesgarritzat edo beharrezkotzat jo dute.
- Irakasle ia guztiek sexualitatearen inguruko formakuntzarik jasotzea interesgarritzat edo beharrezkotzat jo dute. “Hezkidetzaz zentro mailan landu beharko litzatekeela iruditzen zait, etapa guztietan hobetu dadin eta indarra har dezan.”
- Orokorrean, LHko irakasleek gaiarekiko gogoia, interesa eta motibazioa erakusten dute (desoreken aurrean jarrera aktiboa bilatzea, formakuntzarako interesa agertzea)

## DBHko IRAKASLEEN INKESTAREN EMAITZAK (7 irakasle)

### EMAITZEN LABURPENA

Irakasle gehienek nesken eta mutilen artean desorekak antzematen dituzte:

- Jolasgaraian neskek eta mutilek egiten duten espazioaren okupazioa ezberdina da. Mutilek espazio nagusiak okupatzen dituzte: frontoia eta futbolerako espazioa. Materialen erabilera ere ezberdina da. Mutilek askotan pilota monopolizatzen dute.
- DBH ondorengo ikasketa aukeraketan ere genero joerak ematen dira. Joera hau 4.DBHn hautazko gaien aukeraketan iadanik nabari da, hala nola, teknologian azken urteotan ez da ia neskarik apuntatzen.

Bi irakaslek espazioaren okupazio edo materialen erabilera ezberdina ez dituzte desorekatzat jotzen, beraz ez dute horien aurrean neurririk hartzeko beharrik somatzen. Batek "talde bakoitzak bere lekua bilatzen du, modu naturalean, adinaren gorabeherekin" Besteak "ez naiz ausartzen desoreka denik afirmatzera, interes ezberdinen ondorio izan daitezkeela ere iruditzen zait" dio.

Irakasle guztiak noizbait *ikasleek adierazitako irain sexistak entzun dituzte*. Tarteka gertatzen direla eta joera orokorra ez direla azpimarratzen dute gehienek. Irakasle batzuk irain hauek ez direla intenzio sexista batekin erabiltzen aipatzen dute, baizik eta iseka egiteko edo jerga moduan. Azken batek orokorrean adin honetan zenbait ikaslek duen hizkera errespetuari eskapo egiten dio aipatzen dute.

Irain sexistak entzuterakoan, irakasle gehienek jarrera hau da: erasotua eta erasotzailearekin hitz egitea, edo orokorrean hizkera eta errespetuaren inguruko gogoeta egin. Batek aipatu du "betiko protokolo jarraitzea".

Irakasleen erdiak hezkidetzaren ikuspuntua kontuan hartzen duela adierazi du, eta emakumeen eta gizonen presentzia edukinetan parekatzen saiatzen dela erantzun du. Irakasle bakar batek genero desberdintasuna edukin modura lantzen du.

Hezkidetzaren nola lantzen duten galderari erantzun dute:

- Batzuk hezkidetzaren sexu ezberdintasunik ez egitearekin lotzen dute: talde mistoak egiten; neskek eta mutilak tartekatzen....
- Beste batzuk ardura eta kompetentzia genero joerak saihestearekin lotzen dute.
- Azken batek, generoaren inguruan aste osoko formakuntza batean parte hartu zuenak, hain zuzen ere, hezkidetzaren aplikatzeko asmoa garatua du, eta zientzia eta teknologia saioetan bere modura egiten saiatzen da. *Orientazioa eta hezkidetzaren uztartzeko beharra dagoela, eta ikasgai guztiak ematerakoan hezkidetzaren txertatu beharko litzatekeela.*

1a guztiak (6 irakasle) hezkidetzaren sakontzeko formakuntzarik jasotzea interesgarritzat edo beharrezkotzat jotzen dute.

Gehienek sexualitatearen inguruko formakuntzaren beharrik ez dute somatzen. Horretarako bik bakarrik argiki premia ikusten zuten.

### III. HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALAREN AZTERKETA

#### HAURTZARO IKASTOLA

Hezkuntza afektibo-sexualaren atala aztertzeko urrats hauek eman ditugu:

- **Elkarrizketak** izan ditugu Haurtzaro Ikastolako zuzendariarekin, eta LHko eta DBHko zuzendariekin.
- **Irakasleei egindako inkesta baten** sexualitatearen inguruko formakuntza beharra edo interesa ere aztertu dugu. Inkestaren emaitzak dokumentu honen aurreko orrietan agertzen dira.

Haurtzaro Ikastolan hezkuntza afektibo-sexualari orokorrean eskeinitako **denbora eta edukinak** honako hauek dira:

Lehen Hezkuntzan bi ikasturtetan sexualitatearen inguruko zeozer aipatzen da, zeharka, batez ere ugalketa gaiarekin batera. Lehen Hezkuntzako zuzendariak ezin izan du zehazki definitu, beraz, zenbat ordu ematen diren gai hau lantzen. Edozein kasuan, ez dago sexualitatearen inguruko modulu espezifikorik.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, hirugarren mailan, **etika ikasgaiaren asteko orduan hezkuntza afektibo-sexuala lantzen da**, Uhin-bare izeneko metodologia aplikatuz, besteak beste. Javier Gomezek -psikologoa eta UPVko irakaslea- sortutako metodologia da. Metodologia horren atalak honako hauek dira:

Pertsonak eta sexua  
Garapen sexuala / Ugalkortasuna eta sexualitatea / Portaera sexuala  
Afektibitatea eta sexualitatea  
Osasuna eta sexualitatea

Guztira 30 ordu inguru ematen dira gai hauek lantzen.

Ikastolako Irakasle batek ikasgai hau ematen du. Irakasle honek ez du sexualitate edo hezkuntza afektibo-sexuala formakuntzarik.

**Inkestaren bitartez, irakasleen formakuntza interesa edo beharra aztertu dugu.** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasle gehienek ez dute sexualitatearen inguruko formakuntzarik jasotzeko beharra somatzen. **Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasle ia guztiek**, berriz, **formakuntzarik jasotzeko beharra edo interesa** somatzen dute. Inkestaren emaitzak txosten honen bukaeran jasotzen dira.

Haur Hezkuntzako irakasle batek azpimarratu duenez, horrelako formakuntza **“adin honetan sortzen diren egoerei zein trataera eman aztertzeko interesgarria izan daiteke”**.



## HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA HAURTZARON: INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK

### *Indarguneak*

- Gaiari egokitutako **ordukopurua** DBHn (30 ordu inguru) nahikoa da gaia modu sakonean jorratzeko, baita ikasleekin ariketa asko landu ahal izateko. Gaiari egokitutako ordukopurua hezkuntza afektibo-sexualari emandako garrantzia ere adierazten du. LHan ere sexualitatea momentu batzuetan lantzen da, zeharka, ikastolako irakasleek gaia lantzen dute.
- **Haur eta Lehen Hezkuntzan ikasteko prest:** Lehen eta Haur hezkuntzako irakasle gehienek sexualitatearen inguruko formakuntza izateko interesa edo beharra somatzen dute, “adin honetan sortzen diren egoerei zein trataera eman aztertzeko”.

### *Ahuleziak:*

- Lehen Hezkuntzan sexualitatea ez du modulu propiorik, eta beste gai batzuen testuinguruan aipatzen da, gehienbat ugalketarekin.
- DBHn sexualitatea lantzen da, baina sexualitatean **formakuntzarik ez duen ikastolako irakasle** batek ikasgai hau ematen du.
- **Eskolako irakaslea izatea izan ahal da oztopo** bat ikasleek askatasun osoz bere adierazpen afektibo eta sexuala lantzeko, bakoitzak bere zailtasunak azaltzeko edo benetako joerak agertzeko, azkenfinean aurrean duten irakaslea eskolaren kide delako, beste irakasleekin eta gurasoekin harremanetan dagoena.
- **Irakasleek ez dute sexualitatearen inguruko saio paralelorik** izaten, eta beraz, hainbat momentuetan, sortzen diren egoeren aurrean baliabide pertsonalen arabera erantzun behar dute.
- **Gurasoekin ezin izan gara egon, beraz ezin aztertu ea guraso elkarteak gai hau lantzen duen ala ez.** Hala eta guztiz, Ikastolaren zuzendariak aipatu du **gurasoek ere ez dute sexualitatearen inguruko saiorik** izan azken urteotan.

## ELIZALDE IKASTETXEA ETA HERRI ESKOLA

Elizalden hezkuntza afektibo-sexualari orokorrean eskeinitako denbora eta edukinak honako hauek dira Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan:

*Lehen Hezkuntzan ugalketa gaiarekin batera 9-12 ordu:* Lehen Hezkuntzan sexualitatea ugalketa gaiarekin batera lantzen da. Orain dela urte batzuk, Elizalde LHn sexualitatea lantzeko kanpoko aditu batzuk ekartzen zituen. Egun Eskolak ez ditu adituak gehiagorik ekartzen, eta tutoreek aditu horiek emandako ideiak baliatzen dituzte.

*Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan* hezkuntza sexu-afektiboa 2.DBH eta 4.DBH ikasturtetan lantzen da, ikasturte bakoitzean lau ordu bana.

DBHn, guztira, hezkuntza sexu-afektiboari *8 ordu eskeintzen zaizkio*, kanpoko adituek emana: Lilima Sexologia Taldea kontratatzen dute gaia lantzeko. Lilima Taldeak, bere proiektuan, aurkezten dituen edukiak zabalak dira, hau da, sexualitatea modu integralean lantzen da, hezkuntza sexu-afektibo modura. Eduki guztiak emateko ordu kopuru murrizta dute.

Programaren edukiak honako hauek dira:

DBHko 1. zikloan lantzen diren gaiak:

- Sexualitatearen kontzeptu zabala (plazerraren lotutako kontzeptua, adin ezberdinetan ematen den sexualitate mota: haurtzaroan, pubertaroan, heldutan...)
- Norberaren autoirudia eta estereotipo sexualak
- Sexualitatearen inguruko mitoak
- Pubertaroko aldaketak
- Lehendabiziko gogo sexualaren aurrean sortzen diren sentimenduak
- Masturbazioaren inguruko hausnarketa
- Gure harremanak eta batez ere lagun taldetan sortzen diren harremanak (ezberdina izatea, ezberdin jokatzeari, lagunaren arteko harreman ez osasuntsuak...)

DBHko 2. zikloan lantzen diren gaiak

- Sexualitatearen kontzeptu zabala (sexua, sexualitatea eta praktika sexualak)
- Norberaren autoirudia eta estereotipo sexualak (konplexuak, gure autoestiman duen eragina...)
- Sexualitatearen inguruko mitoak
- Gizarte abileziak
- Gure harremanak eta batez ere lagun taldetan sortzen diren harremanak (ezberdina izatea, ezberdin jokatzeari, lagunaren arteko harreman ez osasuntsuak...)
- Sexuen arteko elkarulertzea
- Harreman sexualak eta 1. aldia
- Aitatasun/amatasun arduratsua
- Antisorkuntza metodoak

### *Ahuleziak:*

- **Lehen Hezkuntzan sexualitatea ugalketarekin batera lantzen da.** Batera lantzearen arazoa zera da: sexualitatearen perzeptzioa ugalketara mugatzen da. **DBHn, berriz, kontrakoa saiatzen da:** kanpoko sexologia taldeak bi ideien hauen bereizketa azpimarratzen du (1.DBHko 4.gaia: “ugalketa eta sexualitatea ezberdindu”). Bertako irakasleek lantzen dute.
- **DHBn ematen den hezkuntza sexu-afektiboaren ordu kopurua murrizta da:** guztira 8 ordu ematen dira, bi ikasturtetan banatuak. Kanpoko adituek aurkezten dituzten edukiak ezin dira sakonki landu ordu kopuru horretan. Talde honek beste eskoletan 16 edo 20 ordu ematen ditu DBHn programa berbera lantzeko.
- **Irakasleek eta gurasoek ez dute sexualitatearen inguruko formakuntza paralelorik jasotzen.** Beraz, hainbat momentuetan, ikasleek sexualitatearen inguruan zerbait galdetzen edo adierazten dutenean, irakasleek edo gurasoek dituzten baliabide pertsonalen arabera erantzun beharko dute.

### *Indarguneak:*

- **Haur eta Lehen Hezkuntzan ikasteko prest:** Lehen eta Haur hezkuntzako 5 irakasle parte hartuko lukete Sexualitatearen edo Hezkidetzaren inguruko 10 orduko formakuntza batean, urrian edo azaroan antolatuko balitz.
- **DBHn ematen den hezkuntza sexu-afektiboa hortarako bereziki prestatuak diren pertsonak (sexologoak eta psikologoak) etortzen dira:** DBHn sexualitatean eta psikologian adituak diren pertsonak gai hau jorratzen dute.
- **Aditu hauek eskolatik kanpokoak dira.** Ikasleentzako errazagoa izan ahal da gai hauek eskolarekin eguneroko lotura ez duten pertsonekin lantzea.

#### IV. ESKOLAN ERE “ZAINZAILAK” EMAKUMEAK: SEXU-ROL BANAKETA IRAKASKUNTZAN

Gaur egun oraindik Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle gehienek emakumeak dira. EAEn Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen %84,5 emakumeak dira. Oiartzungo eskolak ez dira zentzu horretan salbuespen bat.

Emakumeen eta gizonen sexu rol banaketa argiki islatzen da irakaskuntzan:

IRAKASLEAK: Honela banatzen dira ikasmailetan.

- **Haur txikien irakasleak emakumeak dira.**  
Haur Eskola eta Haur Hezkuntzako *irakasle guztiak emakumeak* dira, gizon bat izan ezik. Horrek esan nahi du haurrek, 6 urte bete arte, emakumeak dituzte zaintzaile erreferente modura.
- **Lehen Hezkuntzako haurrak ere gehienbat emakumezko irakaslea dute erreferente.**  
Bai Elizalden bai Haurtzaron LHko *bost irakasleetatik lau dira emakumeak.*
- **DBHn tartea gutxitzen da:** Elizalden 15 emakume eta 12 gizon irakasten dute, eta Haurtzaron 25 emakume eta 18 gizon. Guztira 40 emakume eta 30 gizon dira.

“ZAINZTA LAN” KONPLEMETARIOAK: jantokia, garraio laguntzaileak...

- **Jateko eta siestarako emakumeekin:** bi eskoletako jantokietan lan egiten dutenek ere emakumeak dira, sukaldeko arduradunak izan ezik.
- **Garraio zerbitzuan aritzen diren laguntzaileak ere bai.**

Dirudienez ez dira gizonak aurkezten horrelako lanpostuetara. Sexu-rol lanbide hautaketaz gain, agian horien baldintzak ere gizonik ez aurkeztea baldintzatzen dute: langile guzti hauek jardunaldi txikiko kontratuak dituzte, eta batzuen kontratazioa eskolako oporraldian eteten da, hau da, langabetuak izaten dira, nahiz eta ikasturtean hasieran berriro lanera bueltatu.

ESKOLAKO “KONPONTZAILAK” GIZONAK DIRA:

- Oiartzungo bi eskoletako eskolazainak gizonezkoak dira. Duela urte batzuk Elizaldeko Herri Eskolan emakumezko eskolazaina zegoen, eta haurrek emakume bat ikusten zuten lehioak eta atek konpontzen, hemen eta han margotzen, eta orokorrean mailua eta taladroarekin hemen eta han konponketak egiten. Baina lanpostu horren oposaketa egin zenean gizon batek lanpostua eskuratu zuen. Eskolako arduradunek, garai hartan, emakume izatea oposaketa horretan nolabaiteko puntuazioa izatea eskatu zuten, emakume baten presentzia lan horretan haurren aurrean sexu-estereotipoak hausteko balio baitzuen, baina eskaera ez zen onartu.

Beraz, 6 urte arteko haurrek eskolan zaintzaile modura emakumeak soilik dute erreferente: irakasleak, jantokiko langileak eta garraio laguntzaileak emakumeak dira. Eta Lehen Hezkuntzan ere gehienbat emakumeak jarduten dira irakasle gisa.

## V. HEZKUNTZA LANTALDEAREN EKARPENA

Lantaldera gonbidatuak:

- Elizalde Ikastetxeko (DBH) zuzendaria, ikasketaburua eta orientatzailea;
- Elizalde Herri Eskolako (HH eta LH) zuzendaria eta ikasketaburua;
- Haurtzaro ikastolako zuzendaria eta ziklo guztietako zuzendariak-ikasketaburuak (HH / LH / DBH);
- Udal Ikastola Haur Eskola Patzuergoko zuzendaria-ikasketaburua
- Elizalde Ikastetxeko eta Herri Eskolako gurasoen elkarteak, eta Haurtzaroko guraso ordezkaria.

Bileran eskoletako zuzendari eta ikasketaburu guztiak parte hartu zuten. Gurasoen Bakarrionbidatu guztiak parte hartu zuten. Txostenaren datuak aurkeztu ondoren hainbat ekarpen egin ziren. Txosten honen emaitzak osatzerakoan kontuan hartu ditugu hemen jasotako ekarpenak.

Orokorrean denak hezkidetza eta hezkuntza afektibo-sexuala lantzeko beharra ikusi zuten. Zehazki aipatu zen...

- “Aurten egindako lanarekin **parekidetasunaren aldeko lanaren ‘pintxo’ bat izan dugu**, hau da, hezkidetza landu beharko litzateke programa baten bitartez, nolabait orokorrean. Udalaren Prebentzio Kontseiluaren bitartez drogo-menpekotasuna lantzen den moduan, Udal programa baten bitartez. Parekidetasuna lantzea beharrezkoa da, eta guk aurten hori nola egiten ahal den dastatu dugu, baina **modu finko batean egin beharko litzateke**”.

(Jaione Ugaldebere, Haurtzaro ikastolako DBHko zuzendaria)

- “**Lehen Hezkuntzan ere landu beharko litzateke**, Jaionek dioen bezala, modu integralean, eta bereziki irakasleen formakuntza eta gurasoen sensibilizazioa bultzatu beharko litzateke. **Ikasmaterialen azterketa ere egin beharko litzateke**, eta ikasmaterial egokiak eskuratu parekidetasuna bultzatzeko.”

(Pepi Arruabarrena, Haurtzaro Ikastolako HH eta LHko zuzendaria)

- “Egia da gai hauek txikitatik landu behar direla. **Haur Hezkuntzan bereziki irakasleen formakuntza** indartu beharko litzateke, irakasleen jarreretan eragina izateko.”
- (Iraia Etxebeste, Udal Ikastola Haur Eskola Patzuergoko zuzendaria)

- **“Gauzak asko aldatu dira, eta ez dira orain dela 20 urte bezalakoak. Orduan bai entzuten ziren irain sexistak, eta belarriak tapatu behar zenituen “marikoi” eta horrelako hitzak ez entzuteko. Gaur egun asko hobetu dira nesken eta mutilen arteko harremanak. Hala ere egia da oraindik egiteko badagoela. Agian bereziki irudiaren eta hizkuntzaren aldetik, irakasleen formakuntza bultzatu beharko litzateke edozein ikasgai ematerakoan irudia eta hizkuntzaren erabilera egokia egiteko, eta gelditzen diren kutxu sexistak baztertzeko.”**  
(Jesus Robles, Elizalde Ikastetxeko zuzendaria –DBH-).
- **“Aurten egindako jarduerak (parekidetasuna lantzeko) ikasleentzako berriak izan dira, beraiek hainbat gauzetan ez zuten inoiz pentsatu, eta balio izan du “normaltzat” jotzen zituzten hainbat sexu estereotipo eta mito desagiteko. Ikasgela batzuetan ere jarrera aldaketa somatu da, onerako, ikasleen artean.”**  
(Manu Etxeberria, Elizalde Ikastetxeko orientatzailea –DBH-)
- **“Ni guraso naiz, baina baita ere irakaslea (beste eskola batean), eta ikusten dudana da sexismoa familian oinarritzen dela, famili barneko harremanetan, eta familian landu beharko litzateke. Oso ongi dago eskoletan gai hau lantzea, baina familian ez bada aldatzen nik uste dut ez dela ezer konponduko. Hala ere ongi ikusten dut eskola mailan ere lantzea, baina gurasoentzako ere zerbait prestatu beharko litzateke. Kontua da gurasoen parte-hartze jardueretan askotan murrizta da, ondo pentsatu beharko litzateke nola egin.”**  
(Margarita Maritxalar, Elizaldeko DBHko gurasoen elkarte zuzendaria)
- **Hezkidetzeta eta hezkuntza afektibo-sexuala indartzeko planteamendu orokorra egin behar da, txikitatik izan behar du. Egia da gauza asko ez daudela eskolaren esku, eta sexismoaren arazoan gizarteak du eragin nagusia, familia, telebista, etab.. Baina orokorrean landu behar dela, horrekin ados nago, baina ez bakarrik eskolan.”**  
(Lourdes Lasa, Elizalde Herri Eskolako zuzendaria –HH eta LH-)
- **“Nik ikusten dudana arazoa zera da: kanpotik eskoletara etortzen baldin badira adituak hezkuntza afektibo-sexuala lantzeko, gero aditu horiek desagertzen dira, eta haurrek gehienbat, egunero egunero, eskolako irakasleekin daude. Orduan irakasleekin ez bada lan bat egiten ez da gauza handirik lortzen. Kontua da parekidetasuna eta**

hezkuntza afektibo-sexualaz gain beste hainbat gaien inguruan ere jakin behar dugu nola jardun, eta asko dira, eta ez dugu denbora formakuntza egiteko, egunero lanean aritu behar garelako. Orduan hor ikusten dut arazoa, hemen planteatzen diren gaiak txertatu behar dira gure programetan, bereziki hezkidetza, aurten ere Hezkuntza Sailaren dekretuan horrela eskatzen digutelako. **Baina gero irakasleek denbora arazoak ditugu.**”

(Begoña Olaskoaga, Elizalde Herri Eskolako ikasketaburua –HH eta LH-)

## VI EMAITZA OROKORRAK HEZKUNTZA ATALA

Hezkidetza eta hezkuntza afektibo-sexuala lantzeko programak sortu beharko lirateke.

### VI. 1. HEZKIDETZA

Orokorrean, bi eskoletako zuzendariak eta irakasleak badute neskak eta mutilak aukera berdintasunean hezitzeko asmoa, baina estrategia eta programa zehatzak falta dira eguneroko jardueran parekidetasuna sustatzeko.

Beraz, eta horrelako estrategia zehatzik ez dagoen bitartean, irakasleek sensibilizazio eta baliabide pertsonalen mailaren arabera jarduten dira egoera sexisten aurrean.

Nesken eta mutilen aukera berdintasuna bermatzeko, eta orokorrean maskulinitatearen eredu bortitza baztertzeko, beharrezkoa da **hezkidetza bultzatzea programa zehatz baten bitartez**.

#### HEZKIDETZA PROGRAMA BATEN OINARRIZKO EDUKIAK

Parekidetasuna bultzatzeko programa integrala beharko litzateke, hau da, eragina izan beharko luke **ikasleengan, irakasleengan eta gurasoengan. Adibide moduan...**

#### IKASLEENTZAKO SAIO ZUZENAK ADITUEKIN:

6 LH / 2 DHB / 4 DHB (adibidez, 6 ordu ikasturte bakoitzean, gehi film proiektzio bana)

Ikasturte bakoitzeko saioak ikasleen adinari ondo egokitu beharko lirateke, eta metodologia beti ere ludikoa eta parte-hartzailea izan beharko litzateke.

#### IRAKASLEENTZAKO FORMAKUNTZA SAIOAK: HH / LH / DBH

Programa erabat egokitu beharko litzateke eskola bakoitzaren beharretara, saio hauek irakasleek ahal duten momentuan antolatzen, eta irakasleen ordutegietara egokituz. Diagnostikoan topatu ditugun 'ahuleziak' lantzea interesgarria litzateke:

- Lanbide orientazio eta hezkidetza uztartzeko formakuntza edo ekintzak:  
Adibidez gizonei atxikitutako lanetan aritzen diren emakumeak ekartzea, beren esperientzia azaltzeko: elektronikoak, elektrizitateak, iturginak... .



- Emakumeen presentzia eta ekarpena historian islatzeko materialak
- Irudia eta hizkuntzaren erabilera sexista saihesteko formakuntza motza.
- Sexismoa lantzeko material ikus-entzunezkoak biltzea.
- Gorputz hezkuntzan nesken gustoko jarduerak txertatzeko dinamikak (dantza...)

GURASOENTZAKO HITZALDIAK : etapa guztietan.

Gurasoen elkarrekin aztertu beharko litzateke zein edukiak izango diren erakargarriak gurasoentzako, nola antolatu saioak gurasoen ordutegiak kontuan hartuz, etab.. Bereziki gurasoen intereserako izan daitezken gaiak aukeratu, adibidez:

- 'Nesken' edo 'mutilen' jarduerak?
- Parekidetasuna famili harremanetan.
- Nesken autoestima nola sustatu, eta anorexia eta bulimia bezalako arazoak prebenitu.

Bestalde, bai eskolekin bai guraso elkarrekin aiten inplikazioa eskola komunitatean areagotzeko estrategiak garatu beharko lirateke.

BESTE HEZKIDETZA JARDUERA PUNTUALAK SUSTATZEA:

Sexu rolaK eta estereotipoak kolokan jartzeko jarduerak:

- Eskolako argazki tailerretan, edo plastika tailerretan:  
"Emakumeak eta Gizonak ez-ohiko tokian" : erakusketa proposamena / egutegia.
- Eskolako irrati tailerretan ekintzaren bat.
- Antzerki eta umorearen bitartez sexu estereotipoen inguruko gogoeta egiteko.
- Nesken kirol aukerak indartzeko ekintzak.

## VI. 2 HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA

Bi herriko eskoletan gai honen inguruan **ahuleziak daude**:

- Eskola batean ordu kopuru eskasa ematen zaio gaiari, nahiz kanpoko aditu egokiak ekarri.
- Beste eskolan ordu kopuru nahikoa ematen zaio gaiari, baina hortarako prestakuntzarik ez duen irakasleak gaia ematen du.

Beraz, irizpideak batzeko eta hezkuntza afektibo-sexuala modu egokian emateko, hezkuntza **afektibo-sexualaren programa bat garatu beharko litzateke**, beti ere genero ikuspegia kontuan

hartzen duenak. Programa hori integrala izan beharko litzateke, hau da, eduki beharko litzuzke 3 atal:

**Irakasleentzako formakuntza saioak: HH / LH / DBH**

Programa erabat egokitu beharko litzateke eskola bakoitzaren beharretara, saio hauek irakasleek ahal duten momentuan antolatzeke, eta irakasleen ordutegietara egokituz.

**Gurasoentzako hitzaldiak :** etapa guztietan.

Gurasoen elkarteekin aztertu beharko litzateke zein edukiak izango diren erakargarriak gurasoentzako, nola antolatu saioak gurasoen ordutegiak kontuan hartuz, etab..

**Ikasleentzako saio zuzenak adituekin:**

6 LH / 2 DHB / 4 DHB (adibidez, 4 ordu 6.LHan eta beste 6 ordu bana 2 eta 4 DBHn)

Ikasturte bakoitzeko saioak ikasleen adinari ondo egokitu beharko lirateke, eta metodologia beti ere ludikoa eta parte-hartzailea izan beharko litzateke.

## VI. 3 BESTE AHULEZI BATZUEI AURRE EGITEKO EKINTZEN PROPOSAMENA

### ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK:

- Neskek **gehien aukeratutako eskolaz kanpoko jarduerari protagonismoa** ematea: plazara eramatea, jaietara, presentzia publikoa izan dadila: dantza, antzerkia....
- **Neskarik ez dagoen jardueretan nesken parte-hartzea bultzatzea** (pilota...) eta **mutirik ez dagoen jardueretan mutilena bultzatzea**. Honetarako estrategiak garatu behar dira.

### ESPAZIO IREKIAREN ERABILERA: FRONTOIA, PATIOA

- **Eskoletan espazioaren okupazioa eta erabilera genero ikuspegitik** aztertzeke baliabideak jartzea: ikasleekin azterketa egitea, eta hobekuntza proposamenak sortu.

### KONPONTZAILEAK ETA ZAINTZAILEAK

- Eskolako langile berrien aukeraketa egiten denean, eta Udalak edo eskolek horretan eskuhartze duten heinean, **sexu-lan banaketa hausteko irizpideak ezartzea** (haur txikiekin aritzen diren langileak, eskolazainak...): **gizonen presentzia “emakumezko” lanetan edo emakumeen presentzia “gizonezko” lanetan bultzatzea, hala den heinean.**

**V GAZTERIA ETA AISIALDI JARDUERAK**

## **AURKIBIDEA: GAZTERIA ETA AISIALDI JARDUERAK**

*Sarrera*

### **1. GAZTERIA SAILAREN JARDUERA**

- 1.1 GENERO IKUSPEGIA GAZTERIA POLITIKAREN ILDO ESTRATEGIKOETAN
- 1.2 NESKEN ETA MUTILEN PARTE-HARTZEA GAZTERIA PROGRAMETAN

### **2. KUADRILATEGI PROGRAMA**

### **3. GAZTERIA ETA HEZKUNTZA EZ ARAUTUA: EMAITZAK**

## *Sarrera*

**Oiartzungo nerabeei zuzendutako ekintzetan, nolakoa da nesken eta mutilen parte-hartzea?  
Zer nolako ekintzetan parte hartzen dute bereziki neskek, zertan mutilek?**

Atal honetan hezkuntza ez arautuaren edo gaztetxoaren aisialdiaren inguruko informazioa bildu dugu. Alde batetik, Udalaren Euskara sailak aurrera eramaten duen *Kuadrilategi* programaren hainbat datu bildu ditugu, eta bertan ere ematen den nesken eta mutilen parte-hartzea nolakoa den aztertu dugu. Bestalde, Udalaren Gazteria sailak antolatzen dituen programen eta ekintzen azterketa egin dugu genero ikuspegitik: *Gazte Informazio Bulegoa, Gazte Ekintza, Gazte Forua etab.*

*Gazte lokalen inguruko informazioa* –Gaztetxea, Iurrita, Mendibil...-ez dago hemen jaso baizik eta *diagnostiko honen Kultura atalean*. Izan ere, lokal horietan ematen den jarduera kulturala da, gazteek sortutako kultura, hain zuzen ere.

## 1. GAZTERIA SAILAREN JARDUERA

Udalak duen haur eta gazteei zuzendutako politika aurrera eramateko, 2005. urtean teknikari baten lanpostua sortu zen, eta 2006an Oiartzungo Haur eta Gazteria Politikaren Ildo Estrategikoak onartu ziren. Beraz, gaur egun Udalak badu haur eta gazteei zuzendutako jarduera finko bat, genero ikuspegitik aztertuko duguna.

### 1.1 GENERO IKUSPEGIA GAZTERIA POLITIKAREN ILDO ESTRATEGIKOETAN

Gazteriari zuzendutako programak *“lantzeko orduan genero ikuspegia eta aukera berdintasuna, hizkuntza normalkuntza eta integrazioa zeharkako balore modura ere kontuan hartu behar dira”*. Ildo Estrategikoen dokumentuaren 12. orrialdean azaltzen denez, *“Neska-mutilen egoera eta behar desberdinak kontuan hartu behar dira eskaintza egiteko orduan. Generoak eragina du eskaintzak neskengan eta mutilengan sortaraz dezakeen interes mailan.”*

Beste ildoen artean, Gazteria politikak gazteriari baliabideen transferentzia egitea proposatzen du - materialak, ekonomikoak, edo espazialak-, eta ekintza horretan genero ikuspegia kontuan hartzera behartzen du. Baliabideen transferentzia egiteko orduan, *“gizon eta emakume gazteen arteko aukeren berdintasuna bultzatzea”* da irizpide bat (16. orrialdea).

Beraz, Oiartzungo Udalak, gazteria politika mailan, iadanik konprometitu da nesken eta mutilen interesak modu bereizita kontuan hartzeko bere jarduera edo eskeintza antolatzeko orduan. *Momentuz, hala ere, Gazteriako eskeintza eta jarduera antolatzeko orduan, ez da genero ikuspegia aplikatzen, hau da, ildoetan agertzen da, baina praktikan oraindik ezarri gabeko irizpidea da.* Gazteria eta Kirola arloa 2006an sortu zen, eta oraindik politikaren ildoetan agertzen diren esparru eta irizpide asko garatu gabe daude, hala nola, 0-6 urte bitarteko haurrentzako aisialdi eskeintza, emantzipazioa programa, etab.

### 1.2 NESKEN ETA MUTILEN PARTE-HARTZEA GAZTERIA PROGRAMETAN

Momentuz martxan dauden programak honako hauek dira:

#### INFORMAZIO PROGRAMA

- *Gazte informazio bulegoa i-gazte:* 2008an martxan jarri da eta astelehenetik larunbatera irekitzen da, astean zehar arratsaldean eta larunbatetan goizez. 2008ko urtarrilatik-maiatzera zerbitzura jo duten **erabiltzaileen kopuruak** honako hauek dira:

2008ko urtarrila-maiatza: **442 neska/emakume eta 76 mutil/gizon.**

Datu hutsari begira, badirudi gazte informazio bulegoaren erabiltzaile nagusiak emakumezkoak direla, baina ez da zuzena, arrazoi honengatik: **bulego honetan udalekuetako izena ematen da, eta dirudienez amak dira, gehienbat, horretan arduratzen direnak.** Horiek dira kopuruaren multzo nagusia. Beraz, datuak benetan adierazten duena hau da: gaur egun oraindik emakumeak dira, gehienbat, seme-alaben

beharretaz arduratzen direnak. Momentuz eta datuak jasotzen diren moduan, ezin dugu jakin zenbat neska / mutil zerbitzura jotzen duten informazioa eskuratzeko.

- **Gazte-bloga:** interneten bitartez gazteen intereserako izan daitezkeen informazioak eskeintzen ditu, baita gazteek informazioa edo iritzia emateko tokia ([www.gazteoiartzun.net](http://www.gazteoiartzun.net)). Nesken eta mutilen parte-hartzearen inguruko datuak ez dira jasotzen.

## AISIA HEZITZAILE PROGRAMA

- **Ludoteka aisialdi eskeintza:** 6 -12 urte bitarteko haurrei zuzendutako zerbitzua da. Astelehenetik ostegunera martxan dago, arratsaldeko 16:30tatik 19:30tara. Momentuz ez dute lokal propiorik, eta Elizalde Eskolako jantokian daude. Aurten, urritik – ekainera, parte hartu dute **28 neska eta 28 mutil**. Beraz, parte-hartzea erabat orekatua da. Ludotekan bi emakumezko hezitzailek lan egiten dute.
- **Kale-ekintza:** 6-12 urte bitarteko haurrei zuzendutako programa da. Larunbatero antolatzen den ekintza bat: puzgarriak, herriko joku tradizionalak, etab.. Antolatzaileen arabera, **nesken eta mutilen parte-hartze kopuruak antzekoak izaten dira gehienetan**. Momentuz, datuak jasotzen diren moduan, ezin dugu zehazki jakin zenbatekoa den nesken / mutilen parte-hartzea. Lau begirale lanean jarduten dute, lauak emakumeak.
- **Udaleku irekiak:**  
Neska eta mutilen parte hartzea 2007an honako hau izan zen:  
**147 neska eta 165 mutil** parte hartu zuten.  
Txikien artean (3-5 urtekoak) kopuruak antzekoak ziren (61 neska / 64 mutil).  
Handien artean (6-12 urtekoak) mutil gehiago ziren (80 neska / 100 mutil).

## SUSTAPEN PROGRAMA

Programa honen helburua gazteen adierazpena, ekimena eta parte-hartzea bultzatzea da. Honako hauek dira udalak antolatzen dituen sustapen ekintzak:

- **Gazte Forua**

Gazte Foruan 13 eta 16 urte bitarteko gazteak parte hartzen dute. Astean behin biltzen dira beren gustoko ekintza bat aukeratzeko eta antolatzeko. Ekintzak hilean behin izaten dira. Oiartzungo bi eskoletako DBHko ikasgela bakoitzatik ordezkari bat aukeratzen da urtero Gazte Foruko bileretan parte hartzeko.

**2007-2008 ikasturtean guztira 21 ordezkari izan dira (10 neska eta 11 mutil)** bileretan elkartzeko ahal zirenak, baina parte-hartze erreala txikiagoa da. Ikasturte honetan, batez beste, 7 gazte parte hartu dute bilera bakoitzean, eta nesken eta mutilen parte hartze parekatua izan da.

Gazte Foruak antolatzen dituen **ekintza gehienetan neska eta mutilen parte-hartzea parekatua** izaten da (guztira 58 neska eta 51 mutil parte hartu dute ikasturte honetako ekintzetan).

Hala ere, **batzutan parte-hartze desorekak antzeman dira**, generoari lotuak direnak, hala nola, **play station** lehiaketan 14 mutil parte hartu zuten eta neska bakar bat ez, eta **eskulan ekintza** batean, berriz, 8 neska eta mutil bakar bat ez.

- *Gazte lokalen autokudeaketa programa*

Gazte lokalen jardueraren inguruko informazio zabalagoa jasota dago diagnostiko honen Kultura atalean. Bertan aztertzen da nesken eta mutilen parte-hartzearen inguruko informazioa.

Bestalde, eta beste herrietan gertatzen ari den bezala, Oiartzunen ere gazte kuadrilak lokalak alokatzeko edo bilatzeko joera hartu dute, beren aisialdirako espazio bat izateko. Ez dugu nesken eta mutilen parte-hartzea horietan azertu, hortarako lan zehatzagoa egin beharko litzatekeelako.



## 2. KUADRILATEGI PROGRAMA

Udalaren Euskara zerbitzuak nerabeei zuzendutako programa hau antolatzen du. Euskaraz hitz egiteko ohitura sustatzea du helburu. Urtero 70-80 nerabe izena ematen dute programa horretan. *Kuadrilategi* aisialdiko programa da. Jarduerak antolatzen dira ostiral iluntzealdera, kanpoaldean edo Ugaldetxon duten lokal batean, eta urtean behin baino gehiagotan asteburuko irteerak dituzte.

Nesken eta mutilen kopuruak azken urteotan parekoak izan arren, jarduera zehatzetan sexu taldeen parte-hartzea ezberdina izaten da, hau da, mutilek ez dute hainbat jardueretan parte hartzen.

### *Mutil gazteen parte-hartze txikia barnealdeko hainbat jardueretan*

Kuadrilategin azken urteotan izena ematen duten nesken eta mutilen kopuruak parekoak izan arren, jardueren parte-hartzean ezberdintasun nabariak ematen dira. Hau da, neskek gehienetan aktiboki parte hartzen dute, baina mutilek hainbat jardueretan ez dute aritu nahi. Izan ere, neskek bai kanpoaldeko bai barnealdeko jardueretan parte hartzen dute. Mutilek, berriz, kanpoaldeko jardueretan eta bereziki kirol jardueretan aritzen dira, baina lokalaren barnean antolatzen direnean hainbatetan atearen ondoan edo beste gela batean gelditzen dira. Hau gertatzen da bereziki "femeninotzat" jotzen diren tailerretan: masaje tailerra, maskarak egiteko tailerra, eskulan tailerrak (eskuturrekoak egitea etab.).

Kuadrilategiko begiralea Xabi Salaberriak azaldu zigunez, begiraleek askotan somatzen dute mutil batzuen gogo horrelako jardueretan parte hartzeko, baina ez dira ausartzen beste mutilen aurrean "nesken kontu" horietan aritzera. Hori dela eta, Kuadrilategiko begiraleek interesa agertu dute mutilen parte-hartzean antzematen diren joera sexistak lantzeko.

### *Iragarkian mutil baten irudia bakarrik agertzen da*

Kuadrilategiren iragarkian mutil bakar bat agertzen da, asperturik, eskailera batean eserita. Beraz, kartel horretan neskek ez dute erreferenterik, ez baitira agertzen ere. Kuadrilaren konzeptua bera historikoki gehiago lotu da gizonekin edo gizonen espazioarekin, espazio publikoarekin. Beraz, garrantzitsua da programa honen irudian neskak ere agertzea, eta ahal bada ez jarrera pasibo batean. Kuadrilategiko begiraleek ere azpimarratu dute irudi hori ez duela kuadrilaren konzeptua agertzen, eta beraiek ere eskatu dutela irudia aldatzea eta neskek eta mutilek osatutako kuadrila batena jartzea.

Iaz erabili zen lehen aldiz mutilaren irudia eta, Udalaren euskara teknikariak azaldu digunez, Oarsoaldeko Euskara alorreko teknikari eta arduradun politikoek argi ikusi zuten irudia ez zela egokiena. Ez bakarrik mutila soilik agertzen delako, baizik eta koadrilaren edo lagun-taldearen konzeptua ez delako agertzen. 2008-2009 ikasturterako kanpainan arrazoi ekonomikoengatik ezin izan da irudia aldatu, baina egingo da, Udalaren euskara teknikariak azaldu digunez.

### 3. GAZTERIA ETA HEZKUNTZA EZ ARAUTUA: EMAITZAK

- **Parekidetasuna bultzatzeko eta sexismoa saihesteko begiraleen eta antolatzaileen formakuntza beharra**

Oiartzunen gazteekin aisialdian lan egiten duten begiraleek (Kuadrilategikoak, ludotekakoak, kale ekintzakoak, udalekuetakoak...) ez dute sexismoaren inguruko formakuntzarik, eta beraz ez dute beren lanetan genero ikuspegia ezartzen ahal. Gazteriako beste langileek ere ez dute genero ikuspegia ezartzeko trebakuntzarik izan.

- **Sexismoa lantzeko gazteei zuzendutako ekintzak antolatzea komenigarria litzateke, bai Kuadrilategi programan bai Gazteria programetan txertatuz:**

- *Sexismoa modu ludikoan jorratzen duten saio batzuk antolatuz, horretarako prestatuta dauden begiraleak ekarriz.*
- *Urtean bitan edo hirutan zine foruma eskeiniz, eta bereziki genero mugak hausten dituzten haur edo nerabeen istoriak proiektatuz (Billy Elliot, Little Miss Sunshine...).*
- *Programa guztien iragarkian nesken eta mutilen agerpena ziurtatu behar da. Zehazki, Kuadrilategiren iragarkia aldatu beharko litzateke, bai nesken bai mutilen presentzia islatuz. Irudian genero joerak haustea interesgarria litzateke. Adibidez, neskek eta mutilek skate egiten, eta batez ere nesken protagonismoa azpimarratu.*

- **Datuetan sexua agertu behar:**

Edozein jardueran parte hartzen dutenen **datuen bilketan sexu adierazlea gehitu beharko litzateke sistematikoki**, nesken eta mutilen interesak nolakoak diren modu errazan eta edozein momentuan jakin ahal izateko. Nesken eta mutilen egoera eta behar desberdinak kontuan hartzeko, eta eskeintza horren arabera antolatzeko, gutxienez jakin behar dugu zertan parte hartzen duten eta zertan ez. Aurreko atalean azaltzen dugunez, **hainbat datu biltzeko zailtasunak izan ditugu**, momentuz eta datuak jasotzeko erabiltzen diren taulak sexu adierazlea ez dutelako. **i-gazte bulegoko erabiltzaileen datuetan sistematikoki bereizi beharko litzateke udalekuetara izena emateko hurbiltzen diren gurasoen multzoa**, erabiltzaileen datu erreala modu errazan eskura ahal izateko: zerbitzura jo duten zenbat neska, zenbat mutil, zertarako, etab..

- **Jardueren diseinuan eta aukeraketan, genero ikuspegia ezartzea beharrezkoa litzateke**, hau da, nesken eta mutilen interesak eta aukerak desberdinak behar dira eskeintza orekatua edo bateragarria egin ahal izateko.
- **Lehentasuna eman beharko litzaioke nesken parte-hartzeari jarduera publikoetan**, baita nesken autonomia handitzen duten jardueri, sexu-genero estereotipoak hautsiz
- **Baliabideen transferentzia egiteko irizpideetan** (dirulaguntzak edo bestelakoak), nesken eta mutilen parte hartzeko aukera berdintasuna ziurtatu beharko litzateke, eta nesken autonomia handitzen duten jarduerak bereziki baloratu beharko lirateke.
- **Gazte lokalen** jardueretan nesken eta mutilen parte-hartzea eta protagonismoa aztertzea interesgarria litzateke, bereziki jarduera irekia duten gazte lokalena (Iurrita, Goiko Eskola, Gaztetxea...).

***OLARTZUNGO PAREKIDETASUN DIAGNOSTIKOA***

**VI KIROLA:  
OLARTZUARREN GORPUTZ JARDUERA**

## AURKIBIDEA: KIROLA

### *Sarrera*

1. OIARTZUARREN ASTEROKO GORPUTZ JARDUERA
2. ELORSORO KIROLDEGIKO BAZKIDETZA
3. HAUR ETA GAZTEEN GORPUTZ JARDUERA: 18 URTE AZPIKO OIARTZUARRAK
  - 3.1 Jarduera “parekideak”
  - 3.2 Jarduera “feminizatuak”
  - 3.3 Jarduera “maskulinizatuak”
  - 3.4 GAZTETXOEN ATALAREN EMAITZAK
4. HELDUEN GORPUTZ JARDUERA: 18 URTETIK GORAKO OIARTZUARRAK
  - 4.1 Jarduera “feminizatuak”
  - 4.2 Jarduera “maskulinizatuak”
  - 4.3 HELDUEN ATALAREN EMAITZAK
5. UDAL DIRULAGUNTZA: GORPUTZ JARDUEREK JASOTZEN DUTENA
6. KIROL ATALAREN EMAITZAK

## *Sarrera*

**Zeintzuk dira neskek edo emakumeek gehien aukeratzen dituzten gorputz jarduerak?  
Eta zeintzuk mutilek edo gizonak gehien aukeratutakoak?  
Berdin baloratzen al dira gorputz jarduera guztiak?  
Berdin sustatzen al dira?  
Eta instalazio publikoen erabilera, nolakoa da?**

**Parekidetasun lantaldean adierazitako galdera hauei eta beste batzuei erantzuna ematen saiatu gara atal honetan. Beraz, oiartzuarren gorputz jarduera aztertu dugu, adina eta sexua kontuan hartuz, eta jarduera horiek duten sustapen publikoa: aurrekontu publikoen banaketa, baita instalazio publikoen erabilera.**

Gure herrian parekidetasuna eta pertsona guztien aukera berdintasuna eskubide moduan onartu den heinean, ordurarte modu sexistan eraiki diren hainbat konzeptu eraldatzen joan dira. Kirolaren ikuskera jarduera maskulino modura ere hainbat arlotan eraldatu da, bereziki arlo publikoan: haurrek eskolan gaur egun duten kirol jarduera gorputz jarduera izendatzen da, nesken eta mutilen interesak –lehia duen kirola eta lehia ez duen kirola- konzeptuaren baitan biltzeko. Bestalde, Euskal Herriko Unibersitatean lehen soilik Kirol Hezkuntzako Departamentua zena gaur egun Gorputz eta Kirol Hezkuntzako Departamentua da. Diagnostiko honetan konzeptu biak erabiliko ditugu, azken finean gure ikuspuntutik jarduera berdina izendatzen dutelako, nahiz kirola oraindik sozialki irudi maskulinoa izan.

Jarduera bakoitzaren parte-hartzaileen sexuari erreparatuz, datuetan agertzen zaigu alde batetik yoga, pilates, aerobik, dantza garaikidea, euskal dantza etab., eta bestalde pilota, futbola, judo etab.. Denak dira gorputz jarduerak, denak dira kirola, gorputza astintzen eta indartzen dutelako.

Datuek islatzen dituzte ezberdintasun batzuk: emakumezkoen eta gizonzkoen aukerak eta interesak gaur egun oraindik hainbatetan ezberdinak izaten dira. Ezberdina izateak ez du esan nahi bata bestea baino garrantzi edo sustapen gehiago izan behar duenik. Baina horrela gertatu izan da maiz kirol munduan, eta horrela gertatzen da gaur egun ere: emakumeek gehien aukeratutako jarduerak orokorrean gutxiago baloratzen dira, eta sustapen gutxiago dute.

Kirolaren konzeptua bera historikoki gizonari egokitutako baloreekin lotzen da, hau da, lehia eta borrokarekin. Hori dela eta, ez gaitu harritu behar Oiartzungo mutil gazteek “mutila” izatearekin lotzen duten konzeptu nagusia kirola baldin bada (ikusitako diagnostiko honen Hezkuntza atala nerabeen ikuspegia). Emakumeek egin dituzten eta gaur egun nagusiki aukeratzen dituzten gorputz jarduerak askotan ez dute lehia eta borroka hori helburu, baizik eta gorputzaren ongizatea eta osasuna. Beraz, aukera berdintasunaren ikuspuntutik aztertu dugu ea jarduera guztiei garrantzi eta baliabide dedikazio berbera ematen zaien. Ikuspuntu publiko batetik, jarduera guztiek baliabide eta sustapen berdina eduki beharko lukete, baliabide publikoak azken finean guztion ekarpenarekin osatzen direlako, emakume eta gizon guztion lanari esker.

Txosten honetan islatzen diren datu guztiak 2007-2008 denboraldiari dagozkie.

## 1. OIARTZUARREN ASTEROKO GORPUTZ JARDUERA

Jarduera guztiak bilduz gero, sexu datu parekideak agertzen dira:

Oiartzunen astero kirol jarduera finkoa duten Oiartzuarren erdia emakumezkoak dira, eta beste erdia gizonezkoak. Grafikoan agertzen diren kopuruetan bildu ditugu bai tradizionalki kirol modura izendatu diren jarduerak, gehienetan gizonezkoek aukeratzen dituztenak (futbola, pilota, judo etab...) bai azken hamarkadatan gero eta gehiago zabaltzen ari diren beste kirol jarduerak (yoga, pilates, gimnasia, tai-chi, kapoeira...). Azken hauetan, gehienetan, parte-hartzaile gehienak emakumezkoak dira.



Ondorengo taulan kontuan hartu ditugun jarduera guztiak islatu ditugu.

Guztira 1012 emakumezkoek eta 1040 gizonezkoek astero jarduera batean parte hartzen dute. Hemen ditugu jarduera bakoitzaren datuak, adin tartea eta sexua kontuan hartuz:


JARDUERA/ADINA	0-7 urte		0-18 urte		19-35 urte		36-50 urte		51-64 urte		> 65 urte	
	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
Pilates	0	0	0	0	37	3	95	13	56	1	9	0
Eskalada	0	0	0	0	2	3	0	0	0	0	0	0
Sokatira	0	0	0	0	8	0	0	0	0	0	0	0
Errebotea	0	0	0	1	0	7	0	1	0	0	0	0
Pala	0	0	0	0	0	7	0	1	0	1	0	0
Joko garbi	0	0	0	24	0	0	0	0	0	0	0	0
Aletismoa	0	0	15	10	0	0	0	0	0	0	0	0
Taichi	0	0	0	0	1	1	8	8	5	1	2	1
Areto futbola	0	0	0	0	0	41	0	0	0	0	0	0
Kapoeira	0	0	1	7	8	24	1	0	0	0	0	0
Saskibaloia	0	0	10	27	0	10	0	1	0	0	0	0
Igeriketa	0	0	27	22	1	1	0	0	0	0	0	0
Gimnasia erritmikoa	47	1	48	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Mantenu gimnasia	0	0	0	0	2	0	53	0	28	1	16	2
Txirindularitza	0	0	0	1	1	12	1	28	0	17	0	1
Esku pilota	0	0	0	126	0	3	0	0	0	0	0	0
Yoga	0	0	0	0	14	1	32	1	58	4	16	3
Judoa	7	70	17	61	0	5	0	4	0	1	0	0
Futbola	0	0	20	115	15	57	0	0	0	0	0	0
Escola Kirola	0	0	77	118	0	0	0	0	0	0	0	0
Kenpo kai	5	12	19	49	26	57	11	31	0	0	0	0
Euskal dantzak	0	0	121	42	7	1	5	0	9	0	0	0
Dantza garaikidea	0	0	76	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>59</b>	<b>83</b>	<b>432</b>	<b>603</b>	<b>121</b>	<b>233</b>	<b>206</b>	<b>88</b>	<b>151</b>	<b>26</b>	<b>43</b>	<b>7</b>

## 2. ELORSORO KIROLDEGIKO BAZKIDETZA

Oiartzungo Elorsoro Kiroldegiaren bazkidetza erabat parekidea da. Hau da, emakumeen eta gizonen kopuruak ia berdinak dira. Bazkidetza kopuru hauetan, hala ere, ez da Kiroldegiaren erabilera erabat modu zehatzean islatzen. Izan ere, badira egunero kiroldegia erabiltzen duten herritarrak, beste batzuk asteen behin instalazioak erabiltzen dituzte, eta beste batzuk ez dira ia inoiz agertzen, baina datuetan agertzen dira famili bazkidetza dutelako. Edozein kasuan, ezinezkoa izan da jakitea zehazki 2008an kiroldegia zenbat aldiz erabili duten gizonezkoek eta zenbat aldiz emakumezkoek, sexua ez baita informatikoki jasotako aldagaia. Beraz, sarrera guztiak banan banan begiratu beharko lirateke datu hau eskuratzeko.




Adin tarteen arabera sailkatuak ere, emakumezkoen eta gizonezkoen presentzia bazkidetzan parekoa, zahartzaroan izan ezik. Orduan emakumeen kopurua handitu eta gizonena gutxitu egiten dira. Biztanleria datuetan, hala ere, berdin gertatzen da. 70 urtetik gorako Oiartzuarren artean emakumeak nagusitzen dira, bizi itxaropena gizonena baino 9 urte luzeagoa dutelako.





Haurrak oraindik jarduera aukeratzeko adina ez dutenean, nesken eta mutilen kopuruak berdintsuak dira, hala nola, igeriketan haur txikien sexu kopuruak ia berdina dira.



Baina haurrak handitzen diren heinean, eta genero baloreak eta heziketa barneratzen dutenean, kirola aukeratzeko orduan gero eta gehiago genero joeretara jotzen dute. Mutilak lehia eta borrokarekin zerikusirik duten kirolak aukeratzen hasten dira, eta neskek berriz “gogortzat” jotzen ez diren jarduerak lehenesten dituzte, batez ere dantza eta erritmoarekin zerikusirik duten jarduerak, hala nola, gimnasia erritmikoa, euskal dantza edo dantza garaikidea. Jarduera hauek ere, noski, fisikoki gogorak izaten ahal dira, baina horien helburua ez da indar fisikoa erakustea baizik eta trebezia edo malgutasuna lortzea.

### 3. HAUR ETA GAZTEEN GORPUTZ JARDUERA: 18 URTE AZPIKO OIARTZUARRAK

Atal honetan hurrek eta gaztetxoek duten gorputz jarduera islatzen dugu.

2007-2008 ikasturtean guztira 1178 gaztetxoek (18 urte azpikoek) astero kirol jarduera zehatz batean parte hartu dute. Horietatik 491 neskek ziren (%42) eta 686 mutilak (58%).

Beraz, gaztetxoen artean mutilen parte-hartzea kirol jardueretan nesken parte-hartzea gainditzen du. Oiartzuar helduen artean desoreka hau alderantziz ematen da: emakumeek osatzen dute %60a eta gizonek %40a.

Grafiko bakoitzaren azpian agertzen da 2007-2008 ikasturterako udalak jarduerari egokitutako dirulaguntza. Ondoren, diru kopuru hori ikasleen kopuruarekin zatitzen dugu, urte osorako ikasle bakoitzarengatik emandako dirulaguntza zenbatu ahal izateko. Hau da, zenbat udal dirulaguntza inbertitu den ikasle bat ikasturte batean jarduera horretan parte hartzeagatik.

Jarduera guztien hilabeteko kostua ere islatu nahi izan dugu, hau da, gurasoek hilero zenbat ordaindu behar duten seme-alaba batek jarduera horretan parte hartzeagatik.

Atal honetan gaztetxoen gorputz jarduerak hiru multzotan banatu ditugu:

- 3.1 Jarduera “parekideak”: sexu talde bakar batek ez dituen parte-hartzaile guztien 2/3 osatzen.
- 3.2 Jarduera “feminizatuak”, non neskek parte-hartzaileen 2/3 edo gehiago osatzen duten.
- 3.3 Jarduera “maskulinizatuak”, non mutilek parte-hartzaileen 2/3 edo gehiago osatzen duten.

Atal honetan agertzen diren grafikoaren azpian informazio batzuk gehitu ditugu:

- **2007-2008 ikasturterako udalak jarduerari egokitutako dirulaguntza:** funtzionamendurako zenbat eta beste ekintzentzako zenbat (txapelketak etab.).
- **Zenbat udal dirulaguntza inbertitu den ikasle bakoitzak** ikasturte batean jardueran parte hartu ahal izateko: funtzionamendurako dirulaguntza kopurua zati ikasleen kopurua. Kalkulu honetan soilik funtzionamendurako dirulaguntza kontuan hartu dugu, eta ez txapelketei edo bestelako ekintzei egokitutakoa.
- **Gurasoek hilero zenbat ordaindu** behar duten seme-alabek jarduera batean parte hartzeko. Jarduera batzuen kuota zehatza ezin izan dugu eskuratu. Beraz, eskuratu ahal izan duguna bakarrik islatu dugu. Kuoten eta parte-hartzearen inguruko informazioa Udal Kirol Kontseilurako berriki egindako txostenean jasotzen da.

### 3.1 JARDUERA “PAREKIDEAK”: NESKAK ETA MUTILAK BATERA


Bi jarduera ditugu atal honetan: Oarsoaldea Igeriketa Kirol Elkartea eta Eskola Kirola. Bitan nesken kopuruek eta mutilen kopuruek parte-hartzaile guztien herena gainditzen dute.

**Eskola Kirola, hala ere, “parekidetasun” horren muga dago.** Izan ere, oraindik jarduera “maskulinizatua” da, mutilen presentzia handiagoa baita (%61). Hala eta guztiz, gure klasifikazioaren arabera, atal honetan kokatzen da, nesken kopurua parte-hartzaile guztien herena gainditzen duelako.

Eskola Kirola programan neska eta mutil gazteak ez dira bereizten, eta taldeetan batera jokatzeko dute. Azken bi urteotan nesken kopurua handitu egin da: aurten herena gainditu dute. Hala ere, aukera horren inguruan –neskak eta mutilak ez bereiztea- iritzi ezberdinak jaso ditugu: batzuk uste dute nesken parte-hartzea handituko litzatekeela bereizita jokatu balute. Eskola Kirola Oiarzungo koordinatzailearen arabera, nesken jarrera batzuetan pasibitate jotzen du, mutilen artean gutxiengoa direlako, eta mutilek neskei pilota gutxi pasatzen dietelako, hau da, neskek nolabait desabantailan uzten dituztelako.

### IGERIKETA 8-18 urte: 59 gaztetxo

Oarsoaldea IKE



Udal dirulaguntza 08' : 6200

(3.800 funtzionamendua eta 2.400 II San Esteban Saria)


Beraz, ikasle bakoitzaren jarduera sustatzeko: 64,41€

(funtzionamendu dirulaguntza / ikasle / urtea)

Gurasoek ordaindu behar: 30€ hilean + Kiroldegiko bazkidetza

(Kiroldegiko urteko bazkidetza indibiduala: 180€)

### ESKOLA KIROLA: 195 haur



Bi eskolei emandako dirulaguntza (Udala %50 + Foru Aldundia %50): 17.591€

Beraz, ikasle bakoitzaren jarduera sustatzeko: 91,2€

(funtzionamendu dirulaguntza / ikasle / urtea)

Gurasoek ordaindu behar: Elizalde 96€ ikasturtea / Ikastola 58€

### 3.2 “FEMINIZATUTAKO JARDUERAK: NESKEK GEHIEN AUKERATUTAKOAK

Atal honetan neskek (18 urte azpikoak) gehien aukeratutako jarduerak islatzen ditugu, hau da, jarduerak non neskek parte-hartzaile guztien bi heren edo gehiago osatzen dituzte.

**Jarduera gehienek badute dantza eta gorputz adierazpenarekin zerikusirik.**

Euskal dantza da orokorrean neskek gehien aukeratutako gorputz jarduera. Jarduera hau bi eskoletan eskeintzen da, estraeskolar modura. 121 neskek eta 41 mutilek parte hartzen dute. Mutilen parte-hartze txikia jarduera honetan ez da aurtengo kontua. Azken hamarkadan jeitsi egin da mutilen parte-hartzea, eta beraz gero eta gehiago “femininotzat” jotzen da. Dirudenez, ez dator bat gaur egun mutilek duten maskulinitate ereduarekin.

Euskal dantzaren ondoren, dantza erritmikoa. Jarduera hau erabat feminizatua da, hau da, ez dago mutil bakar bat. Jarduerearen estetika ere oso feminizatua da: lanen erakustaldian neskatxoak makilatu egiten dira, eta jantziak askotan ipuinetako printzesen disdira dute. Beraz, saia litzateke mutil bat jarduera hauetan parte hartu, nahiz eta Tximeleta Elkarteak beren publizitatean hizkuntzaren aldetik bai mutilei eta bai neskei zuzendu.

Dantza garaikidean ere ia ehun neska parte hartzen dute. Jarduera hau Ikastolak antolatu zuen, estraeskolarraren artean ere nesken gustoko jarduerak eskeintzeko asmoarekin. Kopuruak erakusten duenez, arrakasta izan du nesken artean.

Azken jarduera bestelakoa da: atletismoa. Nahiz lehia jarduera izan, nesken parte-hartzea nagusitzen da. Hala ere, guztira 15 neska eta 10 mutil parte hartzen dute, hau da, guztira talde txikia da. Atletismoan hala ere bestearen kontrako borroka baino gehiago bakoitzak bere marka hobetzeko lehia da. Hau da, autoexigentzia da jarduera honen ezaugarri bat, neskek beren genero sozializazioan askotan barneratzen duten jarrera.


Bestalde, jarduera parekideen atalean ere nesken parte-hartze garrantzitsua islatzen da:

- Eskola-Kirolean 77 neska (bi eskoletakoak) eta igeriketan 27 neska.

Eta azkenean “maskulinizatutako” jardueren atalean ere agertzen dira hainbat ikastaro non neskek ere parte-hartze garrantzitsua duten, hala nola:

- Judon eta kenpo-kain 24 neska jarduera bakoitzean.
- Futboleko 20 neska, eta saskibaloian 10.

**EUSKAL DANTZA OIARTZUNGO BI ESKOLETAN:  
163 gaztetxo**




**Dirulaguntza** (Ikastolak soilik eskatzen du, 126 ikasle, Kultura Arloari): 1008

**Beraz, ikastolako ikasle bakoitzaren jarduera sustatzeko:** 8€

(funtzionamendu dirulaguntza / ikasle / urtea)

**Gurasoek ordaindu behar:** 58€ ikasturtea

**GIMNASIA ERRITMIKOA: 96 neska**  
*Tximeleta Elkarte*



**Dirulaguntza:** ez dute eskatzen / ez dute jasotzen.

**Gurasoek ordaindu behar:** 180€ ikasturtea + kiroldegiko bazkidetza


(Kirolddegiko urteko bazkidetza indibiduala: 180€)



Dirulaguntza: 608€ (Kulturatik)

Beraz, ikasle bakoltzaren jarduera sustatzeko: 8€  
(funtzionamendu dirulaguntza / ikasle / urtea)

Gurasoek ordaindu behar: 58€ ikasturtea



Dirulaguntza (Hautzaro Kirol Elkarteari): 2.000€

Udal dirulaguntza, beraz, 80€ / ikasle / ikasturtea

Gurasoek ordaindu behar: ez dute kuotarik ordaintzen.

### 3.2 JARDUERA “MASKULINIZATUAK”: MUTILEK GEHIEN AUKERATUTAKOAK

Atal honetan mutilek gehien aukeratutako jarduerak islatzen ditugu, hau da, jarduerak non mutilek parte-hartzaile guztien bi heren edo gehiago osatzen dituzte.


**Mutilek gehien aukeratutako jardueretan** trebetasun fisikoa garrantzia du, neskek gehien aukeratutako jardueretan bezala, baina **beste ezaugarri bat gehitzen da: talde lehia edo taldekideen arteko lehia**. Gorputz adierazpena –jarduera “feminizatuen ezaugarri bat- ez da mutilek gehien aukeratutako jardueren ezaugarri bat.

**Judo, eskupilota eta futbola dira mutilek gehien aukeratzen dituzten jarduerak**. Hiru jarduera hauetan guztira 372 mutil parte hartzen dute. Horiei gehitzen baldin badiegu Eskola Kirolean parte hartzen dutenen kopurua (118 mutil), guztira 490 mutil parte hartzen dute jarduera hauetan.

Kenpo-kain ere mutilen multzo handia dago: 61 mutil.

Saskibaloian beste 27 mutil eta joko-garbin beste 24 aritzen dira.





Dirulaguntza 08': ez dute eskatzen / ez dute jasotzen.

Gurasoek ordaindu behar: 198 urtean (22€ x 9 hilabete)

+ kiroldegiko bazkidetza (indibiduala baldin bada 180€ urtean)



Udal dirulaguntza 08': 24.500

(21.000 funtzionamendua eta 3.500 herriarteko txapelketa)


Beraz, ikasle bakoitzaren jarduerara sustatzeko: 166,66€

(funtzionamendu dirulaguntza / ikasle / urtea)

Gurasoek ordaindu behar:

7 urte azpikoentzat 4€ x 9 hilabete, beraz urtean 36€

7 urtetik goraentzat 11,5€ x 9 hilabete, beraz urtean 103,5€




**Dirulaguntza Oiartzun KE 08':** jarduera 30:000€  
(24.000 funtzionamendua + 6.000 zelai inaugurazioa)

Bestalde, Oiartzun KE jaso zuen dirulaguntza berezia instalazioak berritzeko: 82042,5€

**Beraz, ikasle bakoitzaren jarduera sustatzeko: 115,94€**  
(207 parte-hartzaile gazte eta heldu)

**Gurasoek ordaindu beharrekoa: ikasturtea 60€**




**Dirulaguntza:** ez dute eskatzen / ez dute jasotzen.

**Gurasoek ordaindu behar:** hilabetean gehienez 20€ hilean.

Beraz, 9 hilabete gehienez 180€

**SASKIBALOIIA: 27 mutil eta 10 neska**  
**Oiartzungo Saskilagunak SKT**




**Dirulaguntza Saskilagunak SKT 08` : 5041€**

**Beraz, ikasle bakoitzaren jarduera sustatzeko: 136,24€**  
(funtzionamendu dirulaguntza / ikasle / urtea)

**Gurasoek ordaindu behar: Ikasturtea 60€ gehi 50€ rifak saldu behar.**

**JOKO GARBI + ERREBOTE: 24 mutil**  
**Oiarpe Errebote**



**Udal dirulaguntza Oiarpe Errebote 08` : 11.000**

**Beraz, ikasle bakoitzaren jarduera sustatzeko: 333,33€**  
(33 parte-hartzaile gazte eta heldu)

**Gurasoek ordaindu behar: ez dute kuotarik ordaintzen.**

### 3.4 GAZTETXOEN ATALAREN EMAITZAK

- JARDUERA GEHIENEK “NESKENAK” EDO “MUTILENAK” DIRA.

Gaztetxoek ia jarduera guztietan feminizazioa edo maskulinizazioa antzematen da, igeriketan izan ezik. Beste guztietan, sexu talde bat edo bestea argiki nagusitzen da.

- NESKEK GEHIEN AUKERATUTAKO JARDUERETAN *DANTZA ETA ERRITMOA*

*291 neska biltzen dira dantzarekin zerikusirik duten hiru jardueretan: gimnasia erritmikoan, euskal dantzan eta dantza garaikidean.*

Asteroko gorputz jarduera duten neska guztiak 491 dira. Beraz, gorputz jarduera baten parte hartzen duten *hamar nesketatik seik dantza eta erritmo jarduera batean aritzen* dira. Jarduera hauen irakasleak ere emakumezkoak dira, gehienbat. Euskal dantzan bakarrik aritzen dira ere bai gizonezko irakasleak.

Neskek gehien aukeratutako jarduera hauek barnealdean lantzen dira, hau da, ez dira urtean zehar ikusgai, ez bada horren erakustaldi egunean, edo euskal dantzak jaietan.

*Bestalde, badago nesken talde handia Eskola-Kirola programan: 77 neska parte hartzen dute programa honetan, non mutilen parte-hartzea hala ere ia bikoitza den.*

- MUTILEK GEHIEN AUKERATUTAKO JARDUERAK: *LEHIA ETA KANPOALDEAN*

Mutilek gehien aukeratutako jarduerak honako hauek dira:

judo, pilota, futbola, eskola-kirola, kenpo, saskibaloia eta joko garbi.

Guztira 602 mutil parte hartzen dute lehia kirol hauetan. Batzuetan talde lehia kirolak dira, non kanpo espazioaren dominazioa garrantzia duen, eta beste batzuetan banakako lehia kirolak dira.

Jarduera gehienek kanpoaldean gauzatzen dira, eta beraz herritarrentzako orokorrean ikusgarriagoak dira.

Jarduera batzuetan ez dago neska bakar bat: esku pilota, errebote. Hala ere, gertatu izan da bi eskoletan neska gazteek kirol hauekiko interesa agertzea. Baina ez dute hasi, edo hasi dira baina berehala utzi egin dute, agian erabateko maskulinizazioa duen kirol horretan sustapen berezirik jaso ez dutelako.

• UDAL DIRULAGUNTZAK: MUTILEN JARDUERAK JASOTZEN DUTE GEHIEN

**Dirulaguntza jasotzen duten haur eta gaztetxoek gorpuz jarduerak honako hauek dira:**  
(18 urte azpikoen jarduerak: urdinez mutilak gehiengoa eta moreaz neskek gehiengoa dutenek)

Jarduera (2008)	Udal dirulaguntza funtzionamendurako*	Gizonezko parte-hartzaileak	Emakumezko parte-hartzaileak	Dirulaguntza zati parte-hartzaileak
Joko Garbi + Errebote Oiarpe	11.000	33	0	333,33 €
Esku pilota Oiarpe	21.000	126	0	166,66 €
Saskibaloia SKT	5.041	27	10	136,24 €
Futbola Oiarzun KE	24.000	115	20	115,94 €
Eskola Kirola**	17.591	118	77	91,21 €
Atletismoa	2.000	10	15	80,00 €
Igeriketa Oiarsoaldea	3.800	22	27	64,41 €
Euskal dantza***	1008	42	121	8,00€
Dantza garaikidea	608	0	76	8,00 €

\* Funtzionamendu dirulaguntza bakarrik kontuan hartu dugu. Txapelketentzako edo beste ekitaldientzako dirulaguntza ez dugu kontuan hartu.

\*\* Udalak dirulaguntza osoa banatzen du, baina dirukopuruaren erdia Foru Aldundiarena da.

\*\*\* Hautzaro Ikastolak bakarrik dirulaguntza eskatzen du, eta Udalaren Kultura arlotik jasotzen du. Elizalde Eskolak ez du dirulaguntza hau eskatu orain arte.

**Beraz, gurasoentzako merkeagoa da semeak pilota jokatzea alabak dantza erritmikoan aritzea baino.**

Neskek gehien aukeratutako jarduerak orokorrean udal dirulaguntza gutxiago jasotzen dute, eta horregatik hainbatetan garestiagoak izaten dira. Hala nola, neskatxo bat gimnasia erritmikoan aritzea urtean 360€ gastua suposatzen dezake (kuota + kiroldegiko bazkidetza), eta mutiko bat pilotan aritzea, berriz, 103,5€ (Madalenso erabiltzeagatik ez du bazkidetza ordaindu behar).

Mutilek gehien aukeratzen dituzten jarduerak gehienak merkeak dira, sustapen gehiago dutelako.

- Joko garbin edo erreboten aritzea ia dohainik ateratzen da.
- Futbolean aritzea urteko 60€ko gastua du.
- Eskupilotan aritzea 103,5€ko gastua suposatzen du, urtean.
- Saskibaloia urteko kuota ere 60 euro dira, gehi 50€ rifetan saltzeko.
- Kenpo-kain aritzeko gehienez 180€ ordaintzen dira urtean.

Judo da jarduera “maskulinizatuen” adibide garesti bakarra, gurasoek kuotari kiroldegiko bazkidetza gehitu behar diotelako, gimnasia erritmikan bezala.

Neskek gehien aukeratutako jarduerak batzuk ez dira garestiak, beste erakundeek dirulaguntzaren eskasia konpentsatzen dutelako. Izan ere, Hautzaro ikastolak antolatzen dituen jarduerak estraeskolarragatik kuota berdina ordaintzen da, ikastolak jarduerak guztiekin jasotzen duen laguntza berbanatzen baitu.

## 5. HELDUEN GORPUTZ JARDUERA: 18 URTETIK GORAKO OIARTZUARRAK

Atal honetan helduen gorputz jarduera islatzen dugu.

2007-2008 ikasturtean guztira 875 helduek (18 urte gorakoak) astero kirol jarduera zehatz batean parte hartu dute. Horietatik 521 emakumeak ziren (%60) eta 354 gizonak (%40).

Beraz, helduen artean emakumeen parte-hartzea kirol jardueretan gizonen parte-hartzea gainditzen du. Oiarzuar gaztetxoan artean desoreka hau alderantziz ematen da: neskek osatzen dute guztien %42a eta mutilek %58a.

Helduek hala ere hainbatetan kirola praktikatzeko beren kabuz, inongo ikastaroan izena eman gabe. Begibistan da: hainbat Oiarzuarrek korrika egiten dute eta beste hainbatek egunero oinez ibiltzen dira Bidegorrian, askotan Orereta edo Arditurriraino. Bestalde, ez dugu modurik jakiteko zenbat gizonek / emakumeek kiroldegiko muskulazio gela edo igerilekua erabiltzen duten.

Beraz, hemen islatzen ditugun datuak dira elkarteetan edo ikastaroetan izena eman dutenenak.

Atal honetan helduen gorputz jarduerak bi multzotan banatu ditugu:

**4.1 Jarduera “feminizatuak”, non emakumeek parte-hartzaileen 2/3 edo gehiago osatzen duten.**

**4.2 Jarduera “maskulinizatuak”, non gizonen parte-hartzaileen 2/3 edo gehiago osatzen duten.**

Ez dago astero antolatutako jarduera bakar bat non gizonen eta emakumeen parte-hartzea parekoa den. Beraz, islatzen ahal ditugun jarduera guztietan genero joera antzematen da: edo “emakumeenak” dira edo “gizonenak”.


Hala eta guztiz, kontuan hartu behar dugu datu batzuk ezin izan ditugula eskuratu, adibidez mendizale elkarteetan ematen den emakumezkoen eta gizonzkoen parte-hartzea. Horietan, ziur aski, emakumezkoen eta gizonzkoen parte-hartze kopuruak hainbatetan parekoak izaten dira, baita beste jarduera informal batzuetan (bidegorrian astero ibiltzea, etab.), baina ezinezkoa izan da datu hauek eskuratzeko.

Aurreko atalean bezala, atal honetan ere grafikoen azpian informazio batzuk gehitu ditugu:

- **2007-2008 ikasturterako udalak jarduerari egokitutako dirulaguntza:** funtzionamendurako zenbat eta beste ekintzentzako zenbat (txapelketak etab.).
- **Zenbat udal dirulaguntza inbertitu den ikasle bakoitzak** ikasturte batean jardueran parte hartu ahal izateko: funtzionamendurako dirulaguntza kopurua zati ikaslearen kopurua. Kalkulu honetan soilik funtzionamendurako dirulaguntza kontuan hartu dugu, eta ez txapelketei edo bestelako ekintzei egokitutakoa.
- **Parte-hartzaileek urtero zenbat ordaindu behar duten** jarduera batean parte hartzeko. Jarduera batzuen kuota zehatza ezin izan dugu eskuratu. Beraz, eskuratu ahal izan duguna bakarrik islatu dugu. Kuoten eta parte-hartzearen inguruko informazioa Udako Kirol Kontseilurako berriki egindako txostenean jasotzen da.

#### 4.1 JARDUERA FEMINIZATUAK: EMAKUMEEK GEHIEN AUKERATUTAKOAK

Emakumeek aukeratzen dituzten jarduerak ongizate fisikoa eta osasuna dute helburu nagusia:



- OIARTZUNGO EMAKUME TALDEA HELDUEN TAILERRAK:

Udal Dirulaguntza (Gizarte Zerbitzuetatik): ikasle bakoitzarengatik urtean 23,3€


Urte osoko kuota: 52€

-KIZKITZA MAKAZAGA taldea: dirulaguntzarik ez du jasotzen.

Kuota 40 euro hilean gehi Kiroldegiko bazkidetza (15€ hilean individuala)


HONBU: ez du dirulaguntzarik.

Kuota: 45 hilean edo langabetuak 15€




Elorsoro Kiroldegiak antolatua.

Ikasleak ordaindu behar: bazkidetza (indib.) 15€ hilean eta 43,85€ (hiru hilabete)



- OIARTZUNGO EMAKUME TALDEA **HELDUEN TAILERRAK**:  
*Udal Dirulaguntza (Gizarte Zerbitzuetatik): ikasle bakoltzarengatik urtean 23,3€*  
*Urte osoko kuota: 52€*


**REXU MAXUSTA**ren taldea: dirulaguntzarik ez.  
 Kuota: 22€ hilean + Kiroldegi bazkidetza ( 15€ indibiduala hilean)



Elorsoro Kiroldegiak antolatua.

Ikasleak ordaindu behar: bazkidetza (indib.) 15€ hilean eta 43,85€ (hiru hilabete)





GIMNASIA EMATEN DUTENEK:

**GIMNASIA ADINEKOENTZAKO**

Udalak diruzlagunduta. Ikasleak Kiroldegiko bazkidetza ordaindu behar (15€ hilean).


- OIARTZUNGO EMAKUME TALDEA **HELDUEN TAILERRAK:**

*Udal Dirulaguntza (Gizarte Zerbitzuetatik): ikasle bakoitzarengatik urtean 23,3€*


*Urte osoko kuota: 52€*

#### 4. JARDUERA MASKULINIZATUAK: GIZONEK GEHIEN AUKERATUTAKOAK

Gizonek gehien aukeratzen dituzten jarduerak ongizate fisikoa, jokua eta lehia dituzte helburu nagusia:




HONBU: ez du diruzlaguntzarik.  
Kuota: 30 euro hilean.



Aurten zikloturisten elkarteek ez du dirulaguntzarik eskatu.  
Lartaun zikloturisten urteko kuota: 12€  
Girizia zikloturistak ez du kuotarik.

**FUTBOLA : 57 gizon + 15 emakume**  
**Oiartzun KE**



**Dirulaguntza Oiartzun KE 08': jarduera 30:000€**  
(24.000 funtzionamendua + 6.000 zelai inaugurazioa)  
**Funtzionamendu dirulaguntza / ikasle / ikasturtea: 115,94€**  
(207 parte-hartzaile gazte eta heldu)  
**Ikaslea / bazkidea ordaindu behar: 60€ denboraldi osoa**

### 4.3 HELDUEN ATALAREN EMAITZAK

- JARDUERA GEHIENEK “EMAKUMEENAK” EDO “GIZONENAK” DIRA.

Jarduera “feminizatuen” kopurua jarduera “maskulinizatuena” erabat gainditzen du: emakumeak nagusitzen dira bost jardueretan, eta gizonak bakarrik bitan.

Emakumeen parte-hartze kopuru osoa ere gizonena gainditzen du: jarduera guztien parte-hartzaileak bilduak, %60 emakumeak dira eta %40 gizonak.

Kiroldegiko bazkidetzari dagokionez, ia berdinak dira emakumeen eta gizonen kopuruak: 1495 emakume eta 1484 gizon.

Hala ere, eta atal honen hasieran aipatu dugunez, helduek hainbatetan kirola praktikatzeko dute inongo ikastaroan izena eman gabe: hainbat Oiartzuarrek korrika egiten dute eta beste hainbatek egunero oinez ibiltzen dira Bidegorrian, askotan Orereta edo Arditurriraino. Bi jarduera horietan ikusten dira bai emakumeak bai gizonak.

Bestalde, ez dago modurik jakiteko zenbat gizonezko / emakumezko kiroldegiko muskulazio gela edo igerilekua erabiltzen duten. Beraz, hemen islatzen ditugun datuak dira elkartetan edo ikastaroetan izena eman dutenenak.

- EMAKUMEEK GEHIEN AUKERATUTAKO JARDUERAK:  
OSASUNA ETA ONGIZATE PERTSONALA HELBURU

*Pilates, yoga, aerobic, gimnasia eta spinning* jarduerak amankomunean dutena hau da: guztiek bilatzen dute gorputzaren ongizate fisikoa. Orokorrean, jarduera hauen alde osasuntsua azpimarratzen da, muskulazioaren lantze orekatua. Ez dago inongo lehiarik.

*Barnealdean gertatzen dira emakumeen jarduera gehienek.* Beraz, ez dira ikusten. Pilates, yoga, gimnasia, aerobic eta spinning jarduerak barnealdean egiten dira, espazio itxietan, begibistan ez dauden espazioetan. Jarduera guzti hauetan 671 emakume parte hartzen dute. Jarduera hauek, gainera, ez dute erakustaldi publikoa bilatzen, eta horregatik presentzia publiko gutxi dute.

- GIZONEK GEHIEN AUKERATUTAKO JARDUERAK: LEHIA ETA OSASUNA  
KENPO-KAI, TXIRRINDULARITZA ETA FUTBOLA

Kenpo-kai, txirrindularitza eta futbola dira, jasotako datuen arabera, gizonek gehien praktikatzeko dituzten jarduerak. 88 gizon aritzen dira kenpo-kain, 58 txirrindularitzan eta 57 futboleant.

Txirrindularitza eta futbola kanpoaldean egiten dira. Beraz herritarrentzako orokorrean ikusgarriagoak dira.

- EMAKUMEEK GEHIEN AUKERATUTAKO JARDUERAK 'GIZONENAK' BAINO GARESTIAGOAK IZATEN DIRA HERRITARRENTZKO

**Emakumeek gehien aukeratzen dituzten jarduerak garestiagoak dira, alde batetik, dirulaguntza gutxiago edo batere ez dutelako, eta bestalde, Kiroldegian garatzen direnez, jardueraren kuotaren kostuari bazkidetzaren kostua gehitzen zaielako.** Hau da, Elorsoro Kiroldegian ikastaro batean parte hartzen dutenek ordaindu behar dute alde batetik jardueraren kuota, eta bestalde Kiroldegiko bazkidetza, eta horrek garestitzen du ikastaro hauen prezioa. Horietan parte hartzen dute gehienbat emakumeak.

**Gizonezkoek gehien aukeratutako jarduerak ere udal instalazioetan garatzen dira, baina parte-hartzaileek ez dute erabilerarengatik ezer ordaindu behar:** Madalensoro Pilotalekua eta Ugaldetxoko Futbolzelaia Udalaren instalazioak dira, Elorsoro Kiroldegia bezala. Honbu Kenpo-Kairen lokala ere Udalarena da, zessioan emandakoa. Gizonezkoen jarduera nagusi hauean –futbola, kenpo kai, pilota- ez zaie erabiltzaileei instalazio horien erabilera ordainarazten. Hau da, Madalensoron pilotan edo palan aritzen direnek (gizonezkoek), edo futbolzelaian futbolean aritzen direnek (gehienbat gizonezkoek) ez dute instalazio horren erabilerarengatik ordaindu behar, Udalak gastu hori bere gain hartzen duelako.

Beraz, *emakumeek gehien aukeratzen dituzten jardueretan gizonak gehien aukeratzen dituztenetan baino gehiago ordaindu behar da.* Kirola, azkenfinean, bereziki sustatuta dago “maskulinizatua” baldin bada, eta gutxiago sustatzen da “feminizatua” baldin bada. Honen inguruan datu gehiago ematen ditugu ondorengo ataletan.

## 5. UDAL DIRULAGUNTZA: GORPUTZ JARDUEREK JASOTZEN DUTENA

Atal honetan, gorputz jarduerak jasotzen duten udal dirulaguntza aztertu dugu, genero ikuspegitik. Hau da, kirol jarduerak hiru multzotan banatu ditugu, eta multzo bakoitzari 2008an emandako dirulaguntza aztertu dugu.

- Jarduera “feminizatuak”, non emakumezkoek parte-hartzaileen 2/3 edo gehio osatzen duten.
- Jarduera “parekideak”: sexu talde bakar batek ez dituen parte-hartzaile guztien 2/3 osatzen.
- Jarduera “maskulinizatuak”, non gizonezkoek parte-hartzaileen 2/3 edo gehio osatzen duten.

**Emakumezkoek gehien aukeratutako jarduerak jaso duten dirulaguntza: 2007-2008an parte hartu dute 805 emakume eta 74 gizon.**

	Emakumez.	Gizonez.	
Helduen Tailerrak: gimnasia, pilates, yoga, euskal eta sabel dantza -gizarte	291	14	6.781,10 €
Euskal dantza (bi eskolako ikasle, dirul. I)	121	42	1.304,00 €
Gimnasia erritmikoa Tximeleta	95	1	
Aerobic+ Spinning ( Kiroldegia)	231	78	
Dantza garaikidea Ikast.	76	0	608,00 €
Mantenu gimnasia kiroldegian	50	3	
Yoga kiroldegian	38	5	
Pilates kiroldegian	22	4	
Pilates Honbu	10	1	
Girizia-sokatira	8	0	1.143,84 €
Iratz Inziarte eskalatzaila	1	0	1.000,00 €
<b>GUZTIRA PARTE-HARTZAILEAK ETA UDAL DIRULAGUNTZA 2008</b>	<b>943</b>	<b>148</b>	<b>10.836,94 €</b>

Jarduera "parekideak", non bai emakumezkoen bai gizonezkoen kopuruek parte-hartzaileen herena gainditzen duten.

Jarduera "parekideei" emandako dirulaguntza 2008an: 31.696€

2007-08`ikasturtean jarduera hauetan parte hartu dute 260 emakumez. eta 262 gizonez.

KIROL JARDUERAK: PARTE-HARTZE MISTOA	Sexu bakar batek ez ditu parte-hartzaileen 2/3 osatzen		UDAL DIRULAGUNTZA
	Emakumezkoak	Gizonezkoak	
Escola Kirola Elizalde + Haurt.	77	152	17.591,00 €
Oarsoaldea Igeriketa K.E.	28	23	6.200,00 €
Spinning Kiroldegia	138	74	
Haurtzaro Atletismo	15	10	2.000,00 €
Oiartzungo Eskalada Taldea	2	3	1.200,00 €
Girizia Mendizale Elkartea *			2.625,00 €
Haurtzaro Mendi Taldea *			1.413,00 €
Girizia Sokatira Taldea, Torneo Mistoa *			738,38 €
Bizardia Ehiza elkarreak *			1.867,00 €
*Parte-hartzea mistoa da, baiman ez ditugu kopuru zehatzak			
<b>GUZTIRA PARTE-HARTZAILEAK ETA UDAL DIRULAGUNTZA 2008</b>	<b>260</b>	<b>262</b>	<b>33.634,38 €</b>

Gizonek / mutilek gehien aukeratutako jarduerak jaso duten dirulaguntza: 85.271€

Kopuru honetan ez dugu kontuan hartu Oiartzun KE jasotako dirulaguntza 82042,5€ - futbol instalazioak -.

2007-08`ikasturtean jarduera hauetan 843 gizonezkoak eta 170 emakumezkoak parte hartu dute.

KIROL JARDUERAK GIZONEZKOEK GEHIEN AUKERATUTAKOAK	Parte-hartzaileak: 2/3 edo gehio gizonezkoak		UDAL DIRULAGUNTZA
	Emakumezkoak	Gizonezkoak	
Honbu	104	178	30.000,00 €
Oiartzun K.E.	34	173	82.042,50 €
Oiartzun K.E.			24.500,00 €
Oiarpe K.E. futbol instalaziorako laguntza**	0	129	5.041,00 €
Oiartzungo S.K.T.	10	38	11.000,00 €
Oiarpe Errebota T.	0	33	1.100,00 €
Power Rangers	0	17	2.200,00 €
Girizia pilotari taldea	0	9	800,00 €
Girizia pala taldea		10	
Elizaldearrak-judo	21	134	
Larfaun Z.T.K.E.	0	85	
Girizia zilmoturiak	1	22	
Areto futbola "Mari Carmen"	0	10	
Almitza Segs Elkartea Liga*		15	5.430,00 €
Euskal Makil Jokoa			6.000,00 €
Errenteriko Euskal-Trial Txirrindulari KE*			930,00 €
Sastraka, Ehiza eta Arrantza Kirol Elkartea*			1.000,00 €
Bidasoa Itzulia Elkartea*			5.000,00 €
ASPE Jugadores de pelota S.L.*			4.640,00 €
Jon Andoni Treku-korrika+ txirrindulari apostua	2		560,00 €
Aiako Harria Mountain Bike txapelketa*			2.000,00 €
Kick-boxing txapelketa	2	13	6.000,00 €
*Parte-hartzea gizonzkoak da, ez ditugu kopuru zehatzak			
<b>GUZTIRA UDAL DIRULAGUNTZA 2008</b>			<b>188.243,50 €</b>
<b>GUZTIRA PARTE-HARTZAILEEN CIA UDAL DIRULAGUNTZA -FUTBOL INSTALAZIOENA EZ**</b>	<b>174</b>	<b>866</b>	<b>106.201,00 €</b>



## EMAITZAK:

### 2008KO UDAL DIRULAGUNTZAK GENERO IKUSPEGITIK

Neskak / emakumeak gehiengoa diren jardueretarako dirulaguntza	Jarduera parekideei dedikatutako dirulaguntza	Mutirik/gizonak gehiengoa diren jardueretarako dirulaguntza**
10.836,94 €	33.634 €	106.201,00 €

\*\*Ken futbol instalaziokoa -82042,5€

Beraz, bai dirulaguntzen banaketan bai eta instalazio publikoen dedikazioan desoreka handiak ematen dira genero ikuspegitik:

- Emakumezkoek gehien aukeratutako jarduerak diru gutxiago jasotzen dute.
- Gizonezkoek gehien aukeratutako jarduerak ez dira behartuta udal instalazioen gastua beren gain hartzera (Madalensoro eta Ugaldetxoko futbolzelaia).
- Elorsoro kiroldegian garatzen diren jardueretan parte hartzeko, berriz, bazkidetza ordaindu behar da (emakumeak dira gehiengoa jarduera horietan). Beraz, guztira gehiago ordaindu behar izaten dute: bazkidetza gehi kuota.

## 6. KIROL ATALAREN EMAITZA OROKORRAK

Datuak modu egokian eta herritarren parte-hartzearekin interpretatzeko, kirol eragileen eztabaida taldea antolatu genuen. Bertan parte hartu zuten kirolari lotutako 8 pertsona, denak emakumeak. Honako hauek izan ziren hor egindako balorazioak:

- Orokorrean, emakumezkoen eta gizonezkoen parte-hartzea gorputz eta kirol jardueretan parekoa da. Hala ere, emakumeen eta gizonen (edo nesken eta mutilen) interesak argiki eta generoaren arabera bereizten dira.
- Sexuaren arabera, helburu ezberdinak dituzte jarduerak:  
Emakumezkoenak gehienbat osasuna eta gorputz adierazpena;  
Gizonezkoenak gehienbat lehia eta talde jarduera espazio irekietan.
- Barne eta kanpo espazioak: espazio ezberdinetan antolatzen dira emakumezkoen eta gizonezkoen jarduerak. Emakumezkoenak gehienbat espazio itxietan, beraz herriarentzat ikusezinak, eta gizonezkoenak gehiagotan kanpoaldean, beraz ikusgarriagoak.

**Gizonezkoen jarduerak gehiagotan publikoaren aurreko "erakustaldia" bilatzen dute: futbola, pilota...**

- Neskek eta emakumeek gehien aukeratzen dituzten jarduerak dirulaguntza gutxiago dute, eta parte-hartzaileak gehiagotan behartuta daude udal instalazioak ordaintzera (Kiroldedia). Gizonezkoen batez ere erabiltzen dituzten udal instalazioak ez dituzte ordaindu behar (futbol zelaia eta Madalensoro).

Dirulaguntzen desorekaren zergaitiak:

Emakumezkoek orokorrean *dirulaguntza eskatzeko ohitura gutxiago dute*, eta gutxirekin errazago konformatzen dira.

Bereziki maskulinoak konsideratzen diren jarduerak, berriz, dirulaguntza gehien jasotzen dute: futbola eta pilota. Hauen antolatzaileak dirulaguntza eskatzeko ohitura handiagoa dute, eta naturalizat jotzen dute beren jarduerak sustapen osoa izatea.

Bestalde, *emakumeek egiten dituzten hainbat gorputz jarduera ez dute orain arte kirol maskulinizatuaren errekonozimendu berbera izan*, hau da, ez dute balorazio berdina

jasotzen. Balorazio eza, hain zuzen ere, oztopoa izaten da emakumeek baliabide publikoak eskuratzeko.

Arazo hauen emaitza praktikoa hau da: emakumezkoek gehien aukeratzen dituzten jarduerak garestiagoak dira herritarrarentzat. Momentu honetan, adibidez, yoga egiten duten emakumeek hilabetero 37 euro ordaindu behar dituzte (kuota + kiroldegiko espazioaren erabilera), eta futboleko aritzen diren gizonak 6,66€ hilabete batengatik (kuota soilik, Udalak espazioaren erabilera sustatzen baitu). Gainera, kiroldegiko kuota urte osoan ordaindu behar da, nahiz ikastaroa 9 hilabetekoa izan, kiroldegiko bazkideztaren matrikula berriro ez ordaintzeko.

**BERAZ, DIRULAGUNTZA MODU PAREKOAN EMATEKO MEKANISMOAK BILATU BEHAR DIRA.** Eztatanda taldean proposamen batzuk egin ziren:

- **Gutxieneko diru kopuru bat egokitu beharko litzateke edozein jardueran parte hartzen duen pertsona bakoitzarengatik. Modu horretan ziurtatuko litzateke herritarren gorputz jarduera guztia sustatua izatea, bai emakumezkoena bai gizonezkoena ere, eta modu orekatuan.**
- **Bestalde, aztertu beharko litzateke nola orekatzen ahal den momentuz ematen den udal kirol espazioen kibraketa ezberdina.** Jardueren parte-hartzaileek soilik kiroldegian ordaindu behar duten bitartean, emakumezkoak gehiago ordainduko dute (orokorrean), beraien jarduera nagusiak barneko espazio horietan gauzatzen baitira askotan.
- **Emakumeen Taldeak beste lokal bat behar du bere gorputz jarduera ikastaroentzako.** Talde honen ekarpena izugarria da, eta lokal zabal bat behar dute gorputz jarduera behar den modura antolatu ahal izateko. Kontuan hartu behar da ia 300 emakume eta 15 bat gizon aurten izena eman dute ikastaro hauetan. Ikastaro hauek merkeak dira irakasleek gutxi kobratzen dutelako. Beraz, jarduera honen sustapen publikoa handitu beharko litzateke bai emakumeen gorputz jarduera sustatzeko bai eta irakasleen ordainsaria dignifikatzeko (irakasleak emakumezkoak dira ia guztiak).

- **Nesken parte-hartzea jarduera erabat maskulinizatueta sustatu beharko litzateke** (pilota, futbola), baina baita ere **mutilen parte-hartzea jarduera feminizatueta** (gimnasia errit., dantza). Horretarako estrategia zehatzak bilatu beharko lirateke, eta elkarrekin adostu. “Emakumeak pilotari” federazioaren proiektua aztertu ahal litzateke. Neskak eta emakumeak palan aritzen dira Oiartzunen, baina momentuz beraien jarduera ez du sustapen berezirik izan. Gainera, bi eskoletan eskupilotan aritu nahi izan duten neskak izan dira, baina erabat gizonezkoa den jardueran ez dute sustapen berezirik izan.
- **Kirol elkarte guztiei eskeini beharko litzaieke *komunikazio ez sexista egiteko* ikastaro motz bat**, beren jardueraren iragarkia diseinatzeko orduan genero joerak ez indartzeko, eta neskei eta mutilei, emakumeei eta gizonei, modu berdinean zuzentzeko. Hainbat karteletan gizonak edo mutilak soilik agertzen dira, eta kasu bakar batean ere neskak soilik.

**VII PAREKIDETASUNA HAURREN ZAINTZAN**

## AURKIBIDEA: PAREKIDETASUNA HAURREN ZAINZAN

### *Sarrera*

1. GURASO BERRIEI EGINDAKO INKESTA
  - 1.1 LAN ORDAINDUA ETA FAMILI ZAINZTA LANA
  - 1.2 HAUR TXIKIEKIN EGOTEKO ESPAZIOAK ETA BEHARRAK
  - 1.3 GURASOEK INKESTAN AIPATUTAKO BESTE GAI BATZUK
2. ZAINZTA LANTALDEAREN EKARPENA
3. EMAITZAK: PAREKIDETASUNA HAURREN ZAINZAN

## Sarrera

Emakumeen eta gizonen arteko harremanetan ematen den parekidetasun falta askotan ez da agerian gelditzen haurrak izan arte. Haurren zaintza ardura agertzen denean agerian gelditzen da denbora eta arduren negoziaketa beharra.

Oiartzunen ardura hori nola parekatzen den, eta zaintza garaian zein beharrak topatzen diren, aztertu dugu. Kontuan hartu behar dugu Oiartzungo jaiotze tasa Gipuzkoako altuenetariko bat dela, eta gaur egun asko dira haur txikiak dituzten gurasoak.

### 1. GURASO BERRIEI EGINDAKO INKESTA

Egoera aztertzeko, bi urteko haurrak dituzten gurasoei inkesta bat pasatu genien parekidetasunaren inguruan hainbat galdera egiteko. Inkesta pasatzeko Oiartzungo bi eskoletako guraso bilerak baliatu genituen.

Hori dela eta, lehenengoz bi eskoletako arduradunei eskerrak eman nahi dizkiegu inkesta pasatzeko aukera emateagatik.

Gaur egungo bikote gazteen harremanak parekidetasunera hurbildu badira ere, gurasoak bihurtzerakoan sexu roletara itzultzeko joera antzematen da oraindik. Emakumeek dira, oraindik, etxeko lanen ardura, eta bereziki haurra zaintzearena, gehien asumitzen dutenek.

Oiartzungo guraso gazteen zaintza lan banaketa nolakoa den aztertzeko, bi urteko haurren gurasoekin inkesta bat egin dugu. Inkesta horren emaitzak hemen islatzen ditugu. Orokorrean, amek oraindik haurrekiko ardura gehiago asumitzen dutela, eta aitek ardura horren aurrean bigarren plano batean kokatzen direla, izan da inkesta honen emaitza nagusia.

Aiten eta amen parte-hartze bi eskoletako bilera horietan honako hau izan zen:

*Amen / aiten parte-hartze 2 urteko haurren gurasoen bileretan (Elizalde eta Haurtzaro)*

Amak	Guztien	Aitak	Guztien
71	% 87	11	%13

Inkesta bete zuten 69 amek eta 10 aitek, guztira 79 guraso. Haurtzaroko bilera arratsaldean egin zen (17:30tan) eta Elizaldekoa goizez (11:30tan). Bitan gizonen eta emakumeen proportzioa antzekoa zen, hau da, zortzi gurasoen artean zazpi amak eta aita bat.

Beraz, gurasoen bilerak praktikan “ama” bilerak izaten jarraitzen dute.

Elizalde Herri Eskolako gurasoen elkarteko kidea Eva Getariak azaldu digunez, aiten inplikazioa gurasoen bilera orokorretan edo gurasoei zuzendutako ekintzetan oraindik oso txikia da, ia salbuzpenekoa.

Haurtzaro Ikastolan antzekoa gertatzen da gurasoei zuzendutako ekintza orokorretan. Aurreko ikasturtean antolatutako ikastaro batean, adibidez, amen presentzia nagusitu zen, eta aitek gutxiengoa ziren.

Banakako bileretan -tutorea eta gurasoen artekoetan- aiten inplikazioa handitzen joan da, hau da, gero eta gehiago dira amekin batera agertzen diren aitak, semeaz edo alabaz hitz egitera. Baina orokorrean amak izaten dira eskolarekin harremanetaz arduratzen direnak, eta beraz, haurren antolakuntzaz arduratzen direnak, orokorrean. Hurrengo atalean inkestan emandako hainbat datu islatzen ditugu.

## 1.1 LAN ORDAINDUA ETA FAMILI ZAINITZA LANA

### *Lan ordaindua*

Amen %77ak lan ordaindua egiten zuen, eta %23ak ez. Inkesta bete duten aita guztiek (%100) lan ordaindua egiten zuten.

Beraz, gutxi dira sexu rol banaketa zorrotza mantentzen duten bikoteek non emakumeak lan ez ordaindua bere gain hartzen duen -etxeko lana eta famili zaintza ardura-, eta gizonak lan ordaindua egiten duen.

### *Lan ez ordaindua: famili zaintza lana*

Gurasoei galdetu genien nola antolatzen duten *haurren zaintza lana* eguneroko bizitzan?

- **%67... amak aitak baino ardura gehiago asumitzen du zaintzan**

**53 amek dute haurra zaintzearen ardura nagusia.**

Bikotea ere arduratzen da, baina ardura nagusia amarena da.  
(Amen erantzunetan %74, aiten erantzunetan %20)

- **%28.. zaintza ardura erdibana**

**12 amek 8 aitek zaintza denbora erdibana banatzen dutela erantzun dute.**  
(Amen erantzunetan %17, eta aiten erantzunetan %80)

- **% 5... Zaintza ardura 'amaren' kontua da**

**6 amek bakarrik arduratzen dira** haurren zaintzaz. Horietatik 4 ez dute lan ordaindua egiten, hau da, etxeko eta famili zaintza lanaz soilik arduratzen dira. Horien erdia amonen edo beste pertsona baten laguntza dute.  
(Amen erantzunetan %9, aiten erantzunetan %0)

<i>Ama haurren zaintzaz arduratzen da</i>	<b>6</b>
<i>Amak du ardura nagusia, baina aitak ere arduratzen da</i>	<b>53</b>
<i>Zaintza denbora erdibana banatzen dute</i>	<b>20</b>



## **Aitak eskolako bileretara etortzea: inplikazio parekoaren seinale**

- Inkesta bete duten 10 aitetatik 8 esan dute bikotearekin batera eta neurri berean arduratzen dira haurren zaintzaz. 10etatik bakar batek erantzun du bere bikoteak haurren ardua nagusia asumitzen duela, eta beste batek ardua berdina asumitzen du, baina oportetan. Beraz, gurasoen bileretara etortzen diren aita gehienek haurren zaintza orokorrean ere ardua modu parekoan banatzen dute.

## **Amonen, aitonen eta beste pertsonen laguntza**

- **Gurasoen erdia baino gehiagok (45 guraso) amonen eta aitonen laguntza izaten du haurren zaintzan. Horietatik 17 azpimarratu dute amonek direla laguntzen dutenek, eta batek aitonen laguntza du. Beste lau gurasok beste senide baten laguntza dute (izebak eta arrebak aipatu dira), eta beste 7 ordaindutako laguntza dute.**

Beraz, oraindik famili sarearen laguntza, eta bereziki emakumeena, hainbat egoerei aurre egiteko laguntzen du (lanera joan ahal izateko haurrak gaixotzen direnean -ezin eskolara eraman-, eskolako oporrak direnean, laneko ordutegia eta zaintza uztartzeko...).

Hala ere, gurasoen %43a ez du aiton-amonen laguntza, eta beste moduetara moldatu behar dira. Guraso batzuk kanpoko norbaiti ordaintzen diote haurra zaintzeko, ziur aski lana eta famili ardurak uztartu ahal izateko.

**Aitei eskatu genien ea aita berrientzako ikastaro bat egotea komenitzat jotzen zuten.**

“Aita izango direnentzako nolabaiteko formakuntzatxo bat egotea (arratsaldez) komenigarria iruditzen al zaizu, gizoni bakarrik zuzendutakoa?”

Emakumeek duten erditze prestakuntzarako hainbat gai aztertzeko, gehi beste gai batzuk, bakarrik gizoni zuzendutakoak (haur-zaintza praktikoa, bizitza aldaketa, haurdun dagoen edo bularra ematen duen emakumearen elikadura beharrak, haur txikientzako lehenengo sukaldaritza proposamenak...)

Erantzunak:

5 BAIETZ / 4 EZETZ / 1 EZ DU ERANTZUN

## 1.2 HAUR TXIKIEKIN EGOTeko ESPAZIOAK ETA BEHARRAK

Gurasoei galdetu genien zer nolako espazio publikoak erabiltzen dituzte haur txikiekin denbora pasatzeko, eta zer nolako espazio beharrak somatzen dituzte.

Erabiltzen diren espazioak	Zenbat gurasok aipatu	%
<b>Kalea orokorrean, eta bereziki...</b>	76	% 96
<b>Jolastokiak -kolunpioak eta txirristak- (72)</b> (EH Plazakoa, Altzibar eta Ikastola gainekoa)		
<b>Parkeak, lorategiak (48)</b>		
Bidegorria, pasealekuak eta mendia... (21)		
Baserriaren kanpoaldea, hondartza.... (4)		
Kiroldegia (taberna, bereziki egun euritsuetan)	17	% 22
Piszina	4	% 5
Liburutegia	3	% 4
Eskoletako atsedenekuak	4	% 5
Zentro komertzialak	2	% 3
Tabernak	2	% 3
Ez du erantzun	1	

Egun euritsuetan eta neguan espazioen beharra aipatu dute 69 gurasok -%87a

<i>Espazio publikoen beharra</i>		%
<b>Leku itxiak jolasteko, salto-gela modura, jolas egokiekin</b> "haur txokoa", toki zabala	44	%56
<b>Aterpea duen jolas tokia, haizeaz babestua, jolas batzuekin</b>	25	%32
<b>Parke eta haur jolas zaharrak berritzea: hobetzea, zaintzea,</b> eta txikientzako ere jolas egokiak	8	%10
<b>Jolas parke handi bat, bidegorritik gertu, Hendaiakoaren antzakoa,</b> txikientzako egokia	4	%5
<b>Txikitxoentzako ludoteka, programazio xume batekin:</b> txontxongiloak, ipuin kontalariak, musika.	2	%3
<b>Txara parkean</b> haurrentzako zerbaitegokia jartzea, jolastokia	2	%3
<b>Liburutegian</b> bebeteka moduko zerbaitegokia, ipuin eta kojinekin	2	%3
<b>Komunak jolastokien</b> ondoan	2	%3
<b>Txiki-park</b> moduko espazio bat	2	%3
<b>Eguzkia dagoenerako,</b> jolastoki bat itzalean	1	%1
<b>Hilerritik</b> Haurtzarora edo Elizaldera espaloi zabala	1	%1
<b>Ez du beharrik</b> somatu	2	%3
<b>Ez du erantzun</b>	7	%9

1.3 GURASOEK INKESTAN AIPATUTAKO BESTE GAI BATZUK

AIPATUTAKO BESTE BEHARRAK / ZAILTASUNAK		
<b>Oporretan haurrentzako zaintza zerbitzuak: udara, gabonak, aste santua</b>	3	%4
<b>Hurtzaindegiko / haur eskolako ordutegietan malgutasun gehiago, bai zaintza nahari egokitzeko bai eta gurasoen lan ordutegietara</b>	3	%4
<b>Orduka lan egingo luketen pertsonen zerrenda, haurrak gaixotzen direnerako edo eskolako oporretako edo momentu puntualentzako</b>	2	%3
<b>Liburutegian edo kiroldegiko kanpoko komunean pardela aldatzeko mahairik ez dago.</b>	2	%3
<b>Autobusean karru irekiarekin igotzeko bi txartela ordaindu behar dira, eta gainera batzuetan ez dute plataforma jeisten.</b>	2	%3
<b>Lana eta zaintza ezin uztartzea, emakumeek lana utzi behar haurra zaintzeko</b>	2	%3
<b>Hurtzandegi gehiago</b>	1	
<b>Hurtzaindegi publikoa edo Elizalden 0-2</b>	1	
<b>Liburutegira ezin da igo karru batekin, eskailera arazoa</b>	1	
<b>Ez du erantzun edo ezetz</b>	4	%5

## 2. ZAINZA LANTALDEAREN EKARPENA

Lantalde honen bilerara hurbildu diren pertsona guztiak emakumeak ziren, 6 ama gazte eta bi amona, hain zuzen ere. Datu hau esanguretsua da, bileraren kartela bai gizoni bai emakumeei zuzenduta zegoelako, eta argazkian gizon bat eta emakume bat agertzen zirelako. Beraz, parte-hartze txikia izanda ere, emakumeena bakarrik izan da.

Lantalde honetan, inkestaren emaitzak aurkeztu ondoren, hainbat ekarpena egin ziren, hemen laburbiltzen ditugunak:

### **Egun euritsuetan haurrekin egoteko jolas espazio itxiak:**

- Parte-hartzaile guztiak gurasoak haur txikiekin egoteko espazio itxi baten beharra adierazi dute, “salto-gela moduko zerbait”, “ahal bada zabala, hau da, toki bat nahiko handia hamar edo hamabost haur gurasoekin egoteko”. Espazio horretan lurra nolabait biguna izan beharko litzateke, tatami gela baten modura, eta jasotzen eta ateratzen ahal motrizitate jolas batzuk eduki beharko lituzke: gomazko pilota handiak (pilatesen erabiltzen diren horietakoak) eta txikiak, gomazko makil zabalak (pizinan erabiltzen diren horietakoak) eta kojín dorreak eta tunelak egiteko psikomotrizitate material batzuk. Hau izan da gehien aipatutako gaia.
- Auzo guztietan horrelako zerbait egon beharko litzatekeela, ahal bada auzo elkartean. Horrelakorik sortzeko inizatiba auzokideen artean sortu beharko litzateke, beti ere egokitze lanak egiteko udaletxearen laguntza eskatuz. “Udalak ezin du dena egin, bakoitzak bere auzoan ere horrelako proposatzen ahal du.”
- Horrelako toki itxien zaintza gurasoen artean antolatu beharko litzateke, hau da, gurasoen inplikazioa eskatzen du. Ergoien dirudienez hainbat gurasok ari dira, momentu honetan, horrelako proiektu bat bultzatzen auzo elkartean.

## Aterpea duen kanpoko jolastokia

- Madalensoron, adibidez, aterpe moduko teilatu bat dago (beheko atearen aurrean), eta horren aurrean dagoen zementozko plaza ez da momentuz ezertarako erabiltzen. Espazio horretan aterpea handitzea, eta hiru edo lau aldeetara ixtea material transparente batekin proposatu da. Helburua litzateke kanpoko espazio bat lortzea non argia sartzen den, baina ez euria eta haizea.
- Auzoetan ere aterpe aukerak bilatzea proposatu zen, behintzat euriaz zertxobait babesteko.

## Haurren zaintzaile zerrenda bat osatzea

- Inkestan famili-sarearen inguruan datu garrantzitsu bat agertzen zen: ia familien erdiak ez du, gaur egun, amonen edo aitonen laguntza eskura laguntza behar dutenean. Beraz, haurrak gaixotzen direnean, hainbat aldiz, zailtasunak bizitzen dituzte gurasoek, haurra ezin baita eskolara joan baina beraiek lanera joan behar dute. Horrelako egoeretan beste baliabide bat izatea komenigarria jo zen lantaldean. Hau da, puntualki zerbitzu hori ematen ahal duten zaintzaileen zerrenda bat osatzea. Hala ere, hainbat gauza lotu beharko lirateke: nola egin beti zaintzaile berdinak izateko, haurrak ezagutzen dutenek; nola arautu zaintzaile horien ordainketa; etab.. Baliabide hau sortzeko Udalaren laguntza ezinbestekotzat jo zuen lantaldeak, bai laguntza teknikoa bai eta ekonomikoa ere.
- Seme-alaben zaintza eta lan ordainduaren uztartze ia ezinezkoa

Lantaldean parte hartu zuten ama batzuk lan ordaindua utzi behar izan dute haurrak zaintzeko. Bileran argi islatu ziren gaur egun dauden oztopo handiak famili zaintza lana eta lan oraindua uztartzeko.

“Haurrak gaixotzen dira, eta zeozer egin behar duzu. Guk ez dugu hemen amona bat haurraz arduratzeko, beraz azkenean nik lana utzi dut.”

“Guk eskerrak aiton-amonak hor daudela, baina hala ere hau ez da modua. Guk askotan haurrak beraiekin utzi behar izaten dugu, eta hori ez da aiton-amonen lana. Askotan beraiek ari dira haurrak hezitzen, eta hori ez da beraiek egin behar dutena. Nahi dutena baina askoz gehiago egin behar izaten dute, baina nola esango dute ezetz beharra ikusita”

- **Aiten inplikazioa areagotzeko proposamenak:**

Lantaldean aiten inplikazioa areagotzeko zailtasunak aipatu dira. Berez, lantaldearen bilerara aita bakar bat ez zen agertu, eta beraz zaila ikusten zen zerbait egitea. Hala ere, eskolen aldetik bileretara joateko aiten inplikazioa eskatzea komenigarria jo zen, baita Udalaren aldetik aiten zaintzaile lana bultzatzeko kanpainaren bat abiatzea. Aita berrientzako ikastaro bat antolatzea ere interesgarritzat jo zen, nahiz agian gizon gutxi parte hartu. Bikotea haurdunaldi ikastarora joaten den garai berean, arratsaldean, antolatu beharko litzateke aita berrien ikastaroa.

### 3. EMAITZAK: PAREKIDETASUNA HAURREN ZAINTZAN

- Amek aitek baino ardura gehiago asumitzen dute hurren zaintzan:
  - Ama eta aita gazteen %28a soilik ardura erdibana eramaten dute.
  - Beste %67an guraso biak zaintzan inplikatzeko dira, baina amek dute ardura gehiago.
  - Kasu gutxitan (%5) ama bakarrik arduratzen da hurren zaintzaz.

Beraz, **parekidetasunaren aldeko sensibilizazio ekintzak antolatzea komenigarria litzateke, bai gurasoei zuzendutakoak, bai herritar guztiei ere.**

- **Haur txikiekin egoteko espazio beharrak aipatu dira:**

- **Egun euritsuetan hurrekin egoteko jolas espazio itxiak edo aterpetuak.:** saltogela moduko gela zabala, jolas gutxi batzuekin, gurasoei batera egoteko.

- **Aterpea duen kanpoko jolastokia.** Madalensoron, adibidez, aterpe moduko teilatu bat dago (beheko atearen aurrean), eta horren aurrean dagoen zementozko plaza ez da momentuz ezertarako erabiltzen. Horrelako espazio baten erreforma eginez lortuko litzateke.

- **Liburutegian bebeteka bat sortzea, haur txikientzako aparteko espazio bat.** Beste herrietan horrelakorik egiten da kristalezko paretan, beste liburutegiko erabiltzaileei haur txikien zarataz babesteko. Helduekin egoteko espazioa da (gurasoei edo).

- **Haurren zaintzaile zerrenda bat osatzea:**

Inkestan famili-sarearen inguruan datu garrantzitsu bat agertzen zen: ia familien erdiak ez du, gaur egun, amonen edo aitonen laguntza eskura laguntza behar dutenean. Beraz, haurrek gaixotzen direnean, hainbat aldiz, zailtasunak bizitzen dituzte gurasoek, haurra ezin baita eskolara joan baina beraiek lanera joan behar dute. Horrelako egoeretan beste baliabide bat izatea komenigarria jo zen lantaldean.

- **Aiten inplikazioa areagotzeko proposamenak:**

Lantaldean aiten inplikazioa areagotzeko zailtasunak aipatu dira. Berez, lantaldearen bilerara aita bakar bat ez zen agertu, eta beraz zaila ikusten zen zerbait egitea. Hala ere, eskolen aldetik bileretara joateko aiten inplikazioa eskatzea komenigarria jo zen, baita Udalaren aldetik aiten zaintzaile lana bultzatzeko kanpainaren bat abiatzea. Aita berrientzako ikastaro bat antolatzea ere interesgarritzat jo zen, nahiz agian gizon gutxi parte hartu. Bikotea haurdunaldi ikastarora joaten den garai berean, arratsaldean, antolatu beharko litzateke aita berrien ikastaroa.





## AURKIBIDEA: GIZARTE LAGUNTZA ETA ENPLEGUA

### *Sarrera*

1. LAN BILA DABILTZATENAK
2. GIZARTE LAGUNTZA BEHAR DUTENEK
3. ADINEKOENTZAKO ZERBITZUAK
4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: SEXISMOAREN ALDE GOGORRENA
5. ELKARTEEN SUSTAPENA
6. ZAILTASUN EGOERETAN DAUDEN EMAKUME BATZUEN BALORAZIOA
7. ATAL GUZTIEN EMAITZEN BILDUMA

## Sarrera

Zenbat emakumek eta zenbat gizonek pairatzen dute pobrezia Oiartzunen?

Zenbat emakume eta zenbat gizon bilatzen dute enplegua INEM edo Oarsoaldea SAren bitartez?

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak zenbat emakume eta zenbat gizon atenditzen ditu?

Nortzuk dira adinekoei edo ezinduei zuzendutako zerbitzuen onuradunak?

Eta orokorrean, gizarte zerbitzuen lana zer nolako eragina dute emakumeen eta gizonengan?

Zer nolako arreta ematen da genero indarkeria kasu bat detektatzen denean, horren berririk izaten denean gizarte zerbitzuetan edo osasun zentroan? Zenbat kasu detektatu dira azken urteotan?

Zer nolako babesa ematen zaie egoera horretan dauden emakumeei?

**Parekidetasun lantaldean adierazitako galdera hauei eta beste batzuei erantzuna ematen saiatu gara atal honetan.** Horretarako, gizarte zerbitzuko eta langabezi datuak bildu ditugu, eta egoera ezberdinengatik laguntza eskatu behar izaten duten emakumeekin bildu gara (emakume ezinduak edo ezinduen zaintzaileak diren emakumeak).

*Gizarte zerbitzuen kalitatea, nahikotasuna edo defizita, hiru zentzutan eragiten die emakumeei:*

### ONURADUN GISA:

**Emakumeak dira gizarte zerbitzu askoren onuradun nagusiak...**

***Pobrezia eta prekarietatea gehiagotan pairatzen dutelako:***

2008ko hasieran EAEn Oinarrizko Errenta eskatzen zutenen %68 emakumeak ziren. Oinarrizko Errenta bizitzeko gutxieneko dirusarrera da.

Sexu rol banaketa dela eta, oraindik hainbat emakumeek haur txikiak dituztenean ez dira jarduten lan ordainduaren merkatuan, edo lan ordainduaren jardunaldi murriztagoa dute. Bestalde, etxeko andre eta famili zaintzaile gisa lanean aritu diren emakumeek ez dute jubilazio pensio propiorik jasotzen.

Lan ordainduaren munduan aritzen diren emakumeek ere prekarietate maila handiagoa pairatzen dute:

dirusarien aldetik, gizonek baino %26 gutxiago irabazten dute (Eustat, 2008);

gehiagotan kontraturik gabe lan egiten dute (lan merkatuan aritzen diren emakume guztien %13a egoera honetan dago, Eustaten inkesten arabera);

### ***Luzeago bizi direlako:***

Emakumeek gizonen baino 9 urteko bizi itxaropen luzeagoa dute EAEn. Hori dela eta, zahartzarora iristen diren pertsonak gehienetan emakumeak dira, eta gehiagotan izaten diren adinekoei zuzendutako zerbitzuen onuradunak. Oiartzunen 80 urtetik gora hiru biztanleetatik bi emakumezkoak dira (244 emakume eta 122 gizon).

Bestalde, zahartzaroan ere gizonen eta emakumeen arteko dirusarreretan aldea dago: EAEko alargun guztien %84 emakumeak dira, eta batez beste urtean 13.000 euro kobratzen dute pentsio modura (2008ko Eustaten datuen arabera). Gizon alargunen dirusarrerak urtean batez beste 23.000 euro. EAEko 12.500 emakumezko alargunek ez dute inongo pentsiorik kobratzen. Oiartzungo datu zehatzik ez dugu.

### ***Genero indarkeria pairatzen dutelako:***

Emakumeak hainbatetan genero indarkeriaren biktimak izaten dira: beraz egoera honi egokitutako baliabideen onuradunak dira. 2007an egunero 11 genero indarkeria salaketa egin dira EAEn, guztira ia 4000 salaketa. Oiartzunen 2007an 13 salaketa jarri ziren, eta 2008ko lehenengo 11 hilabeteotan 10 izan dira.

## **FAMILI ZAINZAILE GISA:**

Emakumeak dira gehienetan *beste pertsonen beharretaz arduratzen* direnak, besteen zerbitzurako jartzen direnak zaintza beharrak sortzen direnean. Eustaten datuen arabera, emakumeek burutzen dute gizartean ematen den famili zaintza lan guztiaren %75a. Beraz, gizarte zerbitzuen zabalpena edo urritasuna eragin zuzena du emakumeengan, ematen ez den zerbitzu publikoa emakumeek nahitaez beren gain hartzen dutelako.

*Emakumeen rol tradizionala, zainzaile rola, prekarietate eta pobreziaren faktore* nagusia da. Beraz, gizarte zerbitzuen jardunetan rol hori ez indartzea eta emakumeen zaintza lan zama arintzea garrantzitsua da, baita emakumeek pairatzen duten bazterketa eta prekarietate egoeren zergaitia aztertzea, modu egokian behararen aurrean jardun ahal izateko.

## **LANGILE GISA**

*Gizarte zerbitzuen langileak emakumeak dira.*

Guztira 15 emakumezko eta gizoneko bat lanean jarduten dira Udalaren gizarte zerbitzuetan. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren langile guztiak emakumeak dira, baita

administrari lanetan aritzen direnak. Bi gizarte langile emakumezkoak dira eta bat gizona da.


Gizarte zerbitzuen feminizazioa Oiartzunen ez da salbuespena. Gaur egun gizarte zerbitzuen langile gehienek emakumeak dira –adinekoen egoitzakoak, etxez etxeko zerbitxuenak...-, lan hauek emakumeen rol tradizionalarekin lotzen direlako: zaintza eta famili laguntza. Hori dela eta, zerbitzu horien izaera publikoa edo privatizazio eragin zuzena du emakumeen lan baldintzetan. Inguruko hainbat Udalen etxez etxeko laguntza zerbitzua azpikontratatu denetik, langile hauen lanbaldintzak eta ordainsariak murriztu egin dira, eta beraz emandako zerbitzua ere kalitatea galdu behar izan du. Oiartzungo Etxez Etxeko Zerbitzua kontratazio zuzenaren bitartez garatzen denez, zerbitzuaren langileek oinarrizko lan baldintza egokiak dituzte, eta modu horretan zerbitzuaren kalitatea ere bermatzen da.

Azkenean, atal honen hasieran Oiartzungo biztanleriaren adin eta sexu datuak eman nahi ditugu:

**OIARTZUNGO BIZTANLERIA:** Ia hamar mila pertsona osatzen dute Oiartzungo biztanleria.

Emakumeen eta gizonen kopuruak parekoak dira adin tarte guztietan, batean izan ezik: 80 urtetik gorako hiru biztanleetatik bi emakumeak dira. Beraz, Oiartzunen ere gure gizartean ematen den zahartzaroaren “feminizazioa” antzematen da, emakumeen bizi itxaropena gizonena baino 9 urte luzeagoa delako.


2008KO OIARTZUNGO BIZTANLERIA  
9928 pertsona: 4956 emakumezko / 4972 gizonezko



# 1. LAN BILA DABILTZATENAK

## 1.1 INEM-EKO DATUAK

Lan bila dabiltzaten Oiartzuarren artean, hirutatik bi emakumeak dira, INEMen datuen arabera. 286 emakumek eta 170 gizonak INEMen izena emana zuten 2008ko irailaren 31ean. Sexu taldeen arteko desoreka estrukturala da, azken lau urteotako grafikoan ikusten den bezala.



Oarsoaldeako eta Oiartzungo datuak alderatuta, Oiartzunek duen egoera hobea islatzen da.  
2008ko irailaren 31an...

- Oarsoaldeako biztanleen langabezi tasa %8,3 zen.
- Oiartzuarren langabezi tasa, berriz, %6,8.
- Oiartzungo emakume eta gizon langabetuen tasa bereizita, hala ere, argazki ezberdina ematen du: **Oiartzun emakumeen langabezi tasa %8,3 da, eta gizonena %5,2.**

**INEMen izena emana duten 286 emakumeen egoera ekonomikoaren inguruan datu batzuk:**

180 INEMetik dirua kobratzen dute...

- 131 emakumek jasotzen dute “langabezia”, bakoitzaren aurreko kotizazioaren arabera.
- 49 emakumek jasotzen dute “subsidio” (hilean 413,5€)

Beste 106k ez dute INEMetik ezer kobratzen.

Beraz, hauen famili egoeraren arabera, gizarte laguntza eskatu behar izango dute.

Langabezian dauden 103 emakumek urtebete baino gehiago daramate egoera horretan.

**INEMen izena emana duten 170 gizonen egoera ekonomikoaren inguruan datu batzuk:**

170 gizonezko horietatik 123 langabezia edo “subsidio” kobratzen dute.

Beraz, langabezi dirusarrerarik gabe direnak 47 gizonezko dira.

Azkenean, **Oiartzunen emakumeek gizonen baino langabezi tasa altuagoa dute, eta ezberdintasuna estrukturala dirudi, azken lau urteotan sexu taldeen proportzioa ez baita aldatu: hiru langabetuetatik bi emakumeak dira.**

## 1.2 LANBIDE – OARSOALDEA S.A. ENPLEGU ZERBITZUA

Oarsoaldea S.A. Enplegu Zerbitzura / Lanbidera jo dutenen sexu kopuruak berdintsuak dira:

2008ko urtarrilatik urrira bitartean 346 Oiartzungo emakumezko eta 332 gizonezko zerbitzu honetan atendituak izan dira. Izan ere, pertsona guzti hauek ez daude zehazki langabezian. Horietako askok enplegua badute –denboraldi baterakoa / jardunaldi murriztekoa / kualifikaziorik gabekoa-, eta Oarsoaldea Enplegu Zerbitzura jotzen dute lan egokiagoa edo finkoa bilatzeko, edo formakuntza konplementarioa jasotzeko. Beraz, datu hauetan gaurko lan merkatuaren ezegonkortasuna islatzen da, eta ez zehazki langabezia.



arsoaldea S.A. Enplegu Zerbitzua eskualdeko Lanbide zerbitzu modura hitzartuta dago (Eusko Jaurlaritzarekin hitzartuta). Baina Lanbide zerbitzuaz gain beste zerbitzuak ere eskeintzen ditu. 2008ko lehenengo hamar hilabeteotan **Oiartzuarrei emandako enplegu zerbitzua datu hauetan laburbildu dugu:**

- 193 enplegu kontratuen bitartekaritza:  
106 emakumezko eta 87 gizonezko.
- 155 orientazio prozesuak:  
67 emakumezko eta 88 gizonezko.

- **Lan praktikak** bilatu dituzte 19 pertsonentzako (Txekinbide / Sarbide / Merkataritzan): **13 emakumezko eta 6 gizonetzko.**
- **Oarsotek programan 3 emakumezko** kontratatu dira (gehienez 3 urtez lanean)
- **Auzolan programan 2 emakumezko eta 2 gizonetzko** kontratatu dira **6 hilabetez.**
- **Enplegu- formakuntza programen** bitartez (EJK diruzlagunduta, gehienez urte beteko kontratazioa) **emakumezko bat eta 8 gizonetzko** kontratatu dira, 8ak Ahalbide Programan.
- **Enplegu Sustapenerako programan** (INEMek diruzlagunduta) **3 gizonetzko eta emakumezko bat** kontratatu izan dira (4-6 hilabetez).
- **Formakuntza okupazionala:** gizonetzko bat.
- **Sortu eta Txertatu tailerretan** –gizarte laguntza jasotzen duten pertsonak- hiru oiartzuar parte hartu dute: **2 gizonetzko eta emakumezko bat.**

Datuak aztertuta, Oarsoaldearen Enplegu Zerbitzuaren bitartez bai emakumeek bai gizonen enplegua eskuratu dutela esan dezakegu (aldi baterakoa edo finkoa), eta berez **kontrataturako emakumeen kopurua gizonena gainditzen du: 113 emakume eta 101 gizonetzko** nolabaiteko lan kontratatua sinatu dute enplegu honen bitartekaritzarekin.

**Diruzlagundutako enplegu programen bitartez, hala ere, kontratatutako gizonetzkoen kopurua emakumezkoen kopurua gainditzen du** (enplegu-formakuntza programak –EJ- eta enplegu sustapenerako programak –INEM-): **11 gizonetzko eta 2 emakumezko.**

**Oiartzungo Udalak eta Oarsoaldeak batera sortutako programan –AHALBIDE- 8 gizonetzko** kontratatu izan dira, aldi baterako kontratuekin. Programa honetan parte hartzeko baldintza nagusia langabezian egotea eta tratamendu psikiatrikoa jarraitzea da, eta egoera horretan lan bila dauden Oiartzuar gehienek, dirudienez, gizonetzkoak dira. Bestalde, programa honen bitartez **egiten diren lanak kanpoaldean izaten dira, herri infrastrukturen pintura eta konpontza lanak**, hain zuzen ere. Programa honetarako kandidatoak bilatzeko orduan, Oiartzungo Gizarte Zerbitzuak Osakidetzako Beraungo Psikiatria Zentroarekin koordinazioan aritu ziren. **Oso gutxi izan ziren irizpideak betetzen zituzten emakumeak.** Gainera, deitutako emakumeak ez zuten beren burua gai ikusten kanpoko konponketa lan hauetan aritzeko, edo ez zitzaien proposaturako lana interesatu.



## LAN BILA DABILTZATENAK: EMAITZAK

- INEMen izena eman duten hiru Oiarzuarretatik bi emakumeak dira.
- Oarsoaldearen bitartez lana bilatzen dutenen artean erdia emakumeak dira, eta erdia gizonak. Hauen artean batzuk langabezian daude, eta beste batzuk lan hobekuntza edo lan egokiagoa bilatzen dute.
- Oarsoaldea Enplegu Zerbitzuaren jarduera memorieta sexua eta herria (Oiarzun) aldagaiak oso gutxitan gurutzatzen dira. Beraz, memoriaren bitartez ia ezinezkoa da jakitea zein den zerbitzuaren eragina emakumeen edo gizonengan. Datu batzuk eskuratu ditugu eskaera berezia egin ondoren, memorian ez baita sexua eta herria modu horretan bereizten.
- Oiarzuingo Udalarekin batera bultzatutako enplegu programan (Ahalbide) momentuz 8 gizon kontratatu izan dira. Aldi baterako kontratuak dituzte (6 hilabetekoak). Programaren helburuak eta irizpideak kontuan hartuta, ez da aurreikusten honen bitartez emakumeentzako enplegua sortzea (tratamendu psikiatrikoan egotea eta kanpoaldeko lanak egitea).
- Baina emakumeak dira Oiarzunen gehien enplegu falta pairatzen dutenak. Beraz, emakumei zuzendutako beste ekintza bat antolatu beharko litzateke, langabezian dauden emakumeen interesak eta egoerak kontuan hartuz. Horretarako emakume hauen egoera aztertu beharko litzateke. Gizarte zerbitzuen arabera, gizarte laguntza eskatzen duten hainbat emakumek ezin dute lan ordainduan aritu, egun osoko famili zaintza ardurak dituztelako (ezinduak edo haur txikiak bakarrik beren kargu).

## 2. GIZARTE LAGUNTZA BEHAR DUTENEK

Oiartzungo gizarte zerbitzuetan hainbat datu eskuratu ditugu, eta beste hainbat ezin izan ditugu lortu datuen sistematizazio mekanismoak erabiltzen ez direlako, eta beraz sexu datuak eskuratzeko eskatzaile guztien kasuak banan banan begiratu behar direlako. Honetaz gain, zerbitzu honek duen lan saturazioa dela eta, ez dute aukerarik izan eskatutako datu guztiak ateratzeko.

Hala eta guztiz, hainbat datu eskuratu ditugu, atal honetan aurkezten ditugunak.

### 2.1 UDALAREN GIZARTE LARRIALDIETARAKO DIRULAGUNTZAK (GLD / AES)

2007an Oiartzungo Udalak 88 pertsoneri edo famili unitatei oinarrizko beharrak ordaintzeko dirulaguntza eman die, gehienbat etxeko alokairua ordaintzeko, baina baita beste oinarrizko gastuentzako, hala nola, oinarrizko etxeko tresneria edo aseguratza sozialean onartzen ez diren osasun gastuak (dentista, betaurrekoak).

56 emakumek eta 32 gizonek dirulaguntza hau eskatu eta eskuratu dute 2007an, beraiantzako eta beraien famili unitateentzako. Beraz, hemen islatzen dugun datua zera da: laguntza eskatu eta eskuratu dutenen sexu datua. Lehen aipatutako arazoengatik, ezinezkoa izan da aztertzea dirulaguntza hau benetan zenbat pertsonen beharretarako izan diren, hau da, eskatzaile bakoitzaren famili unitatean zenbat pertsona zeuden.

Gizarte Zerbitzuen arduradunaren arabera, emakumeak dira gehienbat gizarte zerbitzuetara jotzen dutenak, hainbatetan bakarrik famili zaintzaz arduratzen direlako (ama bakarrak etab.), edo gizonen lotsa gehiago ematen dielako dirulaguntza eskatzea.



Gizarte larrialdietarako laguntzaren onuradun datu batzuk:

### **56 EMAKUMEZKOAK DIRA: horien erdia baino gehiago famili zaintzaile bakarra da.**

- **24 dira guraso bakarreko familiak** (ama eta seme-alabak).
- Beste 8 emakumek ezinduak diren senidetaz arduratzen dira, adineko gurasoak, ezinduak diren seme-alabak etab..
- 6 emakumezko eskatzaile bakarrik bizi dira.
- Beste 8 emakumek bestelako famili egoera dute (bikotea eta seme-alabak edo bestelakoa).

Beraz, gutxienez 32 eskatzaile, enplegua lortuz gero ere, ezin dute lanaldi osoa etxetik kanpo eman, famili zaintza kargak dituztelako.

### **32 GIZONEZKOAK DIRA: horien erdia baino gehiago bakarrik bizi da.**

- 2 dira guraso bakarreko familiak (aita eta seme-alabak)
- Beste 4 gizonezko gurasoekin bizi dira, horietatik batzuk aita edo ama zaintzen dute.
- Beste 8 gizonezko beste famili egoera dute.
- **18 bakarrik bizi dira:** eskatzaile guztien erdia baino gehiago bakarrik bizi da.

Beraz, gizonezko onuradunen artean erdia baino gehiagok bere buruarentzat laguntza eskatzen du, bakarrik bizi baita, eta gainontzeko 16 gizonetatik batzuk famili zaintza ardurak dituzte. Bi dira guraso bakarrak, seme-alabekin bizi direnak.

Azkenean, **emakumeen pobrezia faktore nagusia famili zaintzaile bakarra izatea da. Emakumezkoen eskatzaileen erdia baino gehiago famili zaintzaile bakarra da, seme-alabena edo familikide ezinduen.**

## **2.2 OINARRIZKO ERRENTA**

Foru Aldundiaren dirulaguntza honen helburua pobrezian bizi diren pertsonen oinarrizko errenta bat ziurtatzea da. Beraz, oinarrizko errenta kobratzeko irizpide nagusia hau da: batere dirusarrerik ez izatea, edo oso dirusarrera murrizak izatea.

Oiartzunen zenbat emakumek eta zenbat gizonek dirulaguntza hau eskatzen duten ezin izan dugu jakin, Foru Aldundiak sexu datuak emateko arazo informatikoak alegatu dituztelako, eta gizarte zerbitzuek duten lan zama dela eta ezinezkoa izan da datua eskuratzea.

Hala eta guztiz, gizarte zerbitzuen arduradunaren arabera, gizarte larrialdietarako laguntza eskatzen duten gehienek ere oinarrizko errenta eskatzen dute. Beraz, eskatzaileen sexu kopuruak antzekoak izango dira.

2007an Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn) Oinarrizko Errentaren eskatzaileen %68a emakumeak ziren.

### **2.3 ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA**


Zerbitzu honen helburua eguneroko oinarrizko ekintzak gauzatzeko zailtasunak dituzten pertsonen laguntzea da. Beraz, onuradun gehienek nolabaiteko ezintasuna dute, arazo psikosozial, arazo fisiko edo adinarengatik. Batzuk ezintasun mailaren onarpen ofiziala dute, beste batzuk “autonomoak” kontsideratzen dira, oinarrizko betebeharrak teorikoki gauzatzeko ahal dituztelako, baina hala ere laguntza behar dute, gehienbat arazo psikosozialengatik.

Foru Aldundiak “autonomoak” ez direnei arreta emateagatik sortzen den gastu ekonomikoa bere gain hartzen du. “Autonomoei” emandako zerbitzuaren gastua, berriz, Udalak bere gain hartzen du.

Etxez etxeko langileei dagokionez, guztiak emakumeak dira. Beraz, emakumeak soilik lanpostu hauetara aurkezten dira. 2008an bi lanpostu berrien oposaketa egin zen, eta azterketa guztietara aurkeztu ziren guztiak emakumezkoak ziren.

Zerbitzua jasotzeko zain daudenen zerrenda luzea da (24 pertsona).

**ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA  
ZERBITZUAREN ESKATZAILEAK:  
ONURADUNAK ETA ZAIN ZERRENDA**



**Zerbitzuaren 2008ko datuak honako hauek dira:**

**ATENDITUAK: SEXU KOPURU PAREKOAK DIRA**

2008an 46 pertsona etxez etxeko laguntza zerbitzua jaso dute:

- 24 emakumezko: 16 ez dira autonomoak, eta 8 bestelako arazoak dituzte.
- 22 gizonezko: 17 ez dira "autonomoak", eta 5 bestelako arazoak dituzte.

**ZAI ZERRENDAN DAUDEN PERTSONAK: LAUTATIK HIRU EMAKUMEAK DIRA**

2008aren azaroan 24 pertsona zerbitzuaren zai zerrendan zeuden. Pertsona hauek zerbitzua jasotzeko irizpideak betetzen dituzte, baina ezin zaie zerbitzurik eman, eskaerari aurre egiteko langile nahikorik ez daudelako.

**Zai zerrendan daude:**

- 18 emakumezko: horietatik 13 ez dira "autonomoak", hau da, ezintasuna ofizialki onartua dute.
- 6 gizonezko: horietatik 5 ez dira "autonomoak".

2009rako bi lanpostu berri sortu dira, eta horrek neurri batean gutxituko du zain zerrenda, baina hala ere ez da aurreikusten eskaera guztiari erantzunik eman ahal izatea (langile bakoitzak batez

beste 6 etxeetara joaten da). Bi langile berriak arratsaldean lanean hasiko dira, orain arte eskeini ez den ordutegian. Beraz, aurreikusten da eskaera ere arratsalderako sortzea.

Beraz, zain zerrenda dauden guztiak zerbitzuaren laguntza behar irizpideak betetzen dituzte, baina momentuz ez dute zerbitzua jasotzen, langile nahikorik ez baitago.

**Zerbitua eskuratzen dutenen artean emakumeen eta gizonen kopuruak parekoak badira ere (24 eta 22), eskatzaile guztien kopurua kontuan hartuz gero (42 emakume / 28 gizon) beste egoera bat azaleratzen da: beharra dutenen artean emakumeak gehiago dira, baina horietako askok ez dute zerbitzua eskuratzen, zain zerrendan daudelako.**

18 emakume eta 6 gizon zain zerrendan daude. Hau da, zerbitzua behar duten eta jasotzen ez dutenen 4 lagunetatik 3 emakumeak dira. Beraz, zerbitzuaren defizita eragina izaten du, batez ere, emakumeengan.

Gizarte Zerbitzuen arduradunaren arabera, familiko emakumeak dira, gehienetan, laguntza eskaera egitera hurbiltzen direnak. Emakumezko zaintzaile hauek gizarte zerbitzuetara jotzen dute egoera “gainezka” egiten duenean, hau da, zaintza zama benetan eraman ezina denean.

Hau guztia kontuan hartuta, azpimarratu behar da **zerbitzuaren defizita eragiten dio zerbitzua eskuratzen ez duen eskatzaileari, baina baita ere zerbitzuaren falta nolabait konpensatzen duen famili zaintzaileari, gehienetan emakume bat.**

Azkenean, gogoratu behar dugu **zerbitzu honen langile guztiak emakumeak direla, eta zuzenean Udalak kontratatutako langileak dira.** Horrek babesten du neurri batean langile hauen lan baldintzak –ez dira azpikontratatutako enpresa baten langileak-, eta modu horretan **bermatzen da zerbitzuaren kalitatea.** Hala ere, **langile hauei egokitutako kategoria (E) ez dator bat langile hauek bete behar dituzten ekintzekin** (pertsonezko ezinduei, altheimerra dutenei edo beste arazo psikosozialak dituztenei laguntzea). 2008an izandako bi lanpostuen oposaketan eskatzen zen ezagutza formakuntza zehatz bati dagokio (etxez etxeko laguntzaile formakuntza), beraz langile hauen kategoria ez litzateke formakuntza zehatza eskeintzen ez duen batena izan behar.

- **Gizarte laguntza eskatu behar dutenen bi heren emakumeak dira.** Beraz, EAE mailan gertatzen den bezala, Oiartzunen ere pobrezia feminizazioa antzematen da.
- **Etkez etxeko laguntza zerbitzuak zain zerrenda luzea du.** Zerbitzua jasotzen ez duten 4 eskatzaileetatik 3 emakumeak dira (18 emakume eta 6 gizon). **Zerbitzuaren defizita eragin negatiboa du** bai beharra duen pertsonarentzat bai behar hori nolabait konpensatu behar izaten duen pertsonarentzat, askotan zaintza zama handia duen familiko emakume bat.
- **Zerbitzuaren langileak zuzenean Udal langileak izatea zerbitzuaren kalitatea, baita langileen lan baldintza egokiak, bermatzen du.**

**Langile hauei egokitutako kategoria (E) beraztertu beharko litzateke,** egiten duten lanerako ezagutza espezifikoa beharrezkoa baitute, azken oposaketan eskatzen zen bezala. Kontuan hartu behar da etkez etxeko laguntzaileek hainbat gaixotasun psikoko (Alzheimerria, senilitatea...) edo ezintasun fisikoa (tetraplejikoak...) duten pertsonen zaintzan lan egiten dutela, eta beren lanetan kasu bakoitzean nola jardun, eta pertsonen autonomia nola sustatu, jakin behar dute. Beraz, ez da inondik ere ezagutza espezifikorik gabeko lana.

### 3. ADINEKOENTZAKO ZERBITZUAK


Oiartzunen adinekoei zuzendutako **bost zerbitzu daude**.

- **Petra Lekuona Adinekoen Egoitza:**  
Bertan 63 adineko pertsona bizi dira.
- **“Aiton-Etxe” Eguneko Zentroa:**  
35 adineko pertsona bertan eguna ematen dute.
- **Bidez Bide Zerbitzua:**  
Sakabanaturik bizi diren adineko pertsonen garraiorako zerbitzu berria (2007an sortua).  
70 adineko pertsona horren erabilera egiten dute.
- **Bide-Lagun Zerbitzua:**  
Sakabanaturik eta bakarrik bizi diren adineko pertsonak taldeka eta astean behin baino gehiagotan irteerak egiteko zerbitzua. Zerbitzu berri honek momentuz bost onuradun ditu.
- **Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua:**  
Zerbitzu honen onuradunak ez dira soilik adineko pertsonak -gehiengoa adinekoa bada ere- baizik eta orokorrean eguneroko beharrak betetzeko zailtasunak dituzten pertsonak: adinekoak, gaixotasun fisikoa edo psikikoa pairatzen dutenek, ezinduak, zailtasun psikosozialak dituztenek, etab.. Hori dela eta, **zerbitzu honen datuak aurreko atalean eman ditugu** (3. *Gizarte Laguntza behar dutenek: gizarte zerbitzuen datuak*).



### 3.1 PETRA LEKUONA ZAHARREN EGOITZA

Zaharren egoitzan 63 pertsona bizi dira. Hamarretatik zazpi emakumezkoak dira. Oartzunen 80 urtetik gorako hiru biztanleetatik bi emakumeak dira. Beraz, egoitzan ematen den sexuen arteko proportzioa logikoa da, adinekoen artean gehiengoa emakumeak baitira.




#### ADINA ETA SEXUA:

Orokorrean, bertan bizi diren emakumeak gizonak baino dexente zaharragoak dira.

Gizonezkoen gehiengoak ez ditu 80 urte bete (%27 soilik 80 urtetik gorakoa da).

Emakumezkoen gehiengoak, berriz, 80 urtetik gorakoa da (%84).




## INTIMITATE MAILA: GELA KONPARTITUAK ETA BANAKAKOAK

Residenteen %30a gela indibiduala du, eta beste guztiak gela konpartituan lo egiten dute.

Sexuari erreparaturaz, **gizonen erdia banakako geletan dago: 19 gizonetatik 9 banakako geletan.**

Emakumeek, berriz, gehienetan gela konpartitua dute.

Emakumeen %23a soilik banakako gela du, hau da, **44 emakumeetatik 10 dute banakako gela.**



### 12 Oiartzuar egoitza batera sartzeko zain.

Adinekoen egoitza batera sartzeko zain daude 12 Oiartzuar: 6 emakume eta 6 gizon.

Bi gizonetzko iadanik dute sartzeko data.

### 3.2 EGUNEKO ZENTROA: "AITON-ETXE"

"Aiton-Etxe" Eguneko Zentroa duela lau urte sortu zen egunean zehar adinekoen laguntza eta sozializazio beharrei erantzuna emateko. Zentro pribatua da, baina hainbat plaza Foru Alduarekin hitzartuak ditu. Bertako onuradun gehienak Oarsoaldekoak dira (Oiartzun, Erretereria...).

AITON-ETXE PRAKTIKAN "AMON-ETXE" DA: 30 EMAKUME ETA 5 GIZON

"Aiton-Etxe" izeneko eguneko zentroa errealitatean "amon-etxe" da, bertan 30 emakume eta 5 gizon eguna ematen dutelako. Hiru emakumezko onuradunetatik bik 80 urteko muga gainditua dute. Gizonezkoen artean 3 dituzte 80 urte baino gehiago, eta bi dira 80 urte azpikoak.

### **3.3 BIDEZ-BIDE ZERBITZUA: AUTONOMIA SUSTATZEKO GARRAIO ZERBITZUA**

2007an Oiartzungo Udalak eta Behemendi Landa Garapen Elkarteak programa hau martxan jarri zuten, sakabanaturik bizi diren adineko biztanleen bizitza kalitatea hobetu nahian.

**Berez sakabanaturik bizi diren adineko pertsonen garraio programa da.** Oiartzunen autobus garraio zerbitzu arrunta ez da hainbat auzoetara heltzen. Auzoetara iristeko taxi zerbitzua jarri zen duela urte batzuk, baina horren bidaiak ordu zehatzetan izaten direnez, askotan ez du pertsonen behar indibidualei erantzunik ematen. Hori guztia ikusita, Bidez-Bide zerbitzua sortu zen 2007an.

Bidez-Bide zerbitzuarekin, mugikortasun arazo handiak dituzten pertsoneri eta landa ingurunean bizi diren adineko pertsoneri aukerak ematen die “ez ohiko” eginkizunak (medikura joatea, erosketak egitea etab.) beren kabuz egin ditzaten. Horretarako, furgoneta egokitu baten zerbitzua eskaintzen da astelehenetik ostiralera goizeko 08:00tatik 12:00tara.

Momentuz, **zerbitzuaren** erabilera egiten dute 70 onuradunek: 39 emakume eta 31 gizon.

**Beraz, onuradunen %55a emakumezkoa da, eta %45a gizonezkoa.**

Zerbitzua momentuz astean zehar eta goizez lau orduz ematen da. Furgoneta eta gidari bakarra du, beraz ibilbideak hitzartuak izan behar dira, bidaietan ahal bada pertsona ezberdinen beharrei erantzuna emateko.

### **3.4 BIDE-LAGUN ZERBITZUA: BAKARDADEA SAIHESTEKO ZERBITZUA**

Bide-Lagun Zerbitzuaren helburu nagusia sakabanaturik edo bakarrik bizi diren adineko pertsoneri, eta bereziki mugikortasun arazo handiak dituztenei, beste lagunekin elkartzeko eta irteerak egiteko aukera ematea da. Beraz, etxearen bakardadea saihesteko eta beste pertsonekin elkartzeko programa da. Astean hirutan izaten dira irteerak.

Zerbitzu honen garapena Bidez-Bide Zerbitzuarena baino motelagoa izaten ari da. Momentuz astero hiru emakumek eta bi gizonek horren erabilera egiten dute.

- Emakumeak gizonek baino luzeago bizi direnez, adinekoei zuzendutako zerbitzuek eragina handiagoa dute emakumeengan. Emakumeak onuradunen gehiengoa osatzen dute zaharren egoitzan (%70) eta eguneko zentroan (%86). Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eskatzaile gehienek ere emakumeak dira (%69). Bidez-Bide eta Bide-Lagun zerbitzuen onuradunen artean emakumeen kopurua ere gizonena gainditzen du (%56).
- Emakumeak autonomia maila altuagoa dute zahartzaroan: beranduago eskatzen dituzte zerbitzuak. Petra Lekuona eta eguneko zentroan dauden emakume gehienek 80 urtetik gorakoak dira. Gizon gehienek, berriz, 80 urte azpikoak.
- Zaharren egoitzan lau emakumeetatik batek bakarrik banakako gela du. Gizonen artean, berriz, bitatik batek du banakako gela.
- Aitonetxe praktikan “amonetxe” da: erabiltzaileen %86 emakumeak dira.

## **4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: SEXISMOAREN ALDE GOGORRENA**

Atal honen hasieran, azken urteotako emakumeen aurkako indarkeria datuak aurkezten ditugu, hau da, gizonen emakumeei eragindako indarkeria datuak. Ondoren indarkeria honi aurre egiteko erabiltzen diren baliabideak eta mekanismoak aztertu ditugu.

Indarkeria matxistaren biktimek zer nolako laguntza jasotzen ahal duten, eta herri mailan indarkeria matxista prebenitzeko zer nolako mekanismoak martxan dauden aztertu dugu, baita jardura hauetan ematen diren oztopoak eta ahuleziak.

### **4.1 OIARTZUNGO DATU BATZUK**

Beste herrietan gertatzen den bezala, Oiartzunen ere urtero hainbat genero indarkeria egoera berriak salatzen edo detektatzen dira. Txosten honetarako eskuratu ahal izan ditugu datuak -Udalaren Gizarte Zerbitzuak eta Errenteriko Ertzaintza Komisaldegian egindako salaketen kopuruak- ez dute, hala ere, indarkeria honen dimensio osoa adierazten, hainbatetan gizonen bikotekideek eragindako indarkeria ez baita inon salatzen. Osasun zentroko langileek ere (medikuek eta erizainek) hainbatetan indarkeria mota hau detektatzen dute, baina osasun datuen sekretua dela, zentroko zuzendariak ezin izan digu esan zenbat kasu izan diren azken urteotan.

#### **ERRETERIA-ORERETAKO ERTZAINZA KOMISALDEGIAN...**

**guztira gizonen aurkako 24 salaketa egin ziren azken bi urteotan. Biktimak Oiartzungo emakumeak ziren.**

**2007an gizonen kontrako 13 salaketa ipini dira, emakumeen kontrako indarkeria fisikoa edo psikikoa erabiltzeagatik:**

- 9 salaketa gizonen bikotekidea edo bikotekide-ohia erasotzeagatik.
- Beste 3 salaketa gizonen bikotea ez den beste familikide bat erasotzeagatik.

**2008aren lehenengo 11 hilabeteotan beste 10 salaketa ipini dira (2008ko urtarrila-azaroa)**

- 9 salaketa gizonen bikotekide edo bikotekide-ohia erasotzeagatik.
- Beste salaketa bat gizonen batek beste familikide bat erasotzeagatik.

## **OIARTZUNGO GIZARTE ZERBITZUEK azken hiru urteotan detektatu dituzten kasuak:**

**18 emakumeen aurkako indarkeria kasu detektatu dira** 2006tik 2008ko azaro bitarte.

Kasu horien erdia ofizialki salatu da epaileen aurrean (9 kasu). Beste erdiak ez du salaketarik jarri izan nahi. Bi kasutan Gizarte Zerbitzuek erasotzailearen kontrako salaketa jarri dute, nahiz biktimak urrats hori ez egin. Bi kasu hauetan arrizkua handia zela baloratu zen, eta emakumea babesteko salaketa ipini zen.

Txosten hau osatzerakoan (2008ko bukaeran) **Gizarte Zerbitzuen jarraipena izaten ari diren egoerak 6 dira**, eta horietatik bitan bakarrik biktimek salaketa jarri nahi izan dute.

**Datuak aztertuta argi azaleratzen da Oiartzunen urtero batez beste 6 kasu berri agertzen direla, eta txosten hau idazteko momentuan 6 kasuen jarraipena egiten ari dela, hau da, Udalak sei indarkeria egoeren berri du.**

Kontuan hartzekoa da hauek ez direla **Oiartzunen ematen diren emakumeen aurkako indarkeria egoera guztiak, biktimek hainbatetan egoera isilpean eramaten dutelako**, lotsa edo etsipena sentitzen dutelako.

Horregatik izaten da hain garrantzitsua **gai honi trataera publikoa ematea, urtean behin gutxienez honen inguruan ekintzak antolatzea**, eta biktimeei ahalik eta babes sozial gehien ematea. Gainera, egoera hauek azaleratzea ez da bakarrik biktimen ardura, baizik eta gizarte osoarena. Baina hortarako sensibilizazio lan iraunkorra egin behar da, eta hori ez da gizarte langileen oinarrizko betebeharra. 2008an puntualki sensibilizazio ekintza batzuk antolatu izan dira, Udalak berdintasun teknikaria kontratatua zuelako.

### **4.2 INDARKERIA HONI AURRE EGITEKO BALIABIDEAK**


Oiartzungo Gizarte Zerbitzuek eskeintzen duten laguntza emakumeen egoera eta eskaeraren araberakoa da. Hau da, Gizarte Zerbitzuek egoeraren jarraipena egiten dute, baita beste erakundeen baliabideak eskuratzeko bitartekaritza (Foru Aldundikoak edo Justizia Sailakoak). Beraz, Udalak eskeintzen duen zerbitzua oinarrizkoa da.

Orokorrean, Gipuzkoa mailan eskuratzen ahal diren baliabideak honako hauek dira:

- Dirulaguntza ekonomikoak:  
Udalaren larrialdietarako dirulaguntzak (alokairua).  
Oinarrizko Errenta (Gipuzkoako Foru Aldundia)  
Renta de Inserción Activa (INEM, salaketa behar da)
- Laguntza psikologikoa:  
Foru Aldundiak badu psikologo en zerrenda bat, bertan aukeratzeko, eta 18 ordu ordaintzen ditu. Erasotzaileak ere laguntza psikologikoa izateko eskubidea du.
- Enplegurako orientabidea: Oarsoaldearen enplegu zerbitzu orokorra.
- Etxetik atera behar izatekotan, hotela gehienez hiru egunetarako (Lintzirin erabili izan da), edo babes etxea behar izatekotan, Gipuzkoako hainbat udalek duten babes etxeen sarearen bitartez (balorazioaren arabera hilabete baterako, sei hilabeterako edo urtebeterako).
- Doako justizia edo aholkularitza juridikoa.

Ondorengo kuadroan ibilbide eta baliabide orokor guztiak islatu ditugu, Gipuzkoan eskeintzen direnak. Hasieran esan dugunez, emakume bakoitzaren eskaera edo egoeraren arabera erabakitzen da ibilbidea. **Baina zer gertatzen da emakumeak, indarkeriaren biktimak, ez badu bere bikotea salatu nahi?** Formalki, nahiz biktimak (emakumeak) salaketarik ez jarri nahi, gizarte zerbitzuek egoeraren parte eman beharko lukete epaitegiko fiskaltzari. Baina hau oso gutxitan gertatzen da, hau da, Oiartzungo gizarte zerbitzuek zuzenean salaketa jarri izan dute bi aldiz soilik, kasu horietan emakumeen bizitza arrisku egoeran zegoela baloratu dutelako. Osasun zentroko langileek, udaltzainek eta beste eragileek ere derrigorrez salaketa jarri beharko lukete kasu bat detektatzen dutenean, nahiz biktimak salaketa jarri nahi ez.

# GIZONEN INDARKERIA JASATEN DUTEN EMAKUMEEN LAGUNTZA IBILBIDEA





## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: EMAITZAK

- Udalaren gizarte zerbitzuek **gai honi aurre egiteko baliabide orokorren bitartekaritza eta kasuen jarraipena eskeintzen du.**
- Udalak ez ditu **beste baliabide propioak egoera espezifiko honi aurre egiteko, eta ez du gai honen inguruan sensibilizazio, prebentzio edo bestelako jarduera komunitariorik antolatzen.** Beraz, lantzen dena da biktimen banakako egoera, eta biktima horien eskaeraren arabeko baliabideen bitartekaritza.
- Biktimak etxetik ateratzeko beharra izan dutenean, beste herrietara joan behar izan dute (batzutan seme-alabekin batera), **Oiartzunen ez baitago babes etxerik egoera hauetarako.** Gertatu izan da emakumeak Zumarragaraino lagundu behar izatea, etxe gertuagorik libre ez baitzegoen. Kasu batzuetan distantzia jartzea ezinbestekoa izaten da, baina beste batzuetan ez, eta orduan distantzia horrek emakumearen eta seme-alaben txarrerako da. Edozein kasuan, Oiartzunen horrelako espaziorik ez dagoen bitartean, emakumeen larrialditasun egoerentzako babes etxerik ez dagoen bitartean, ezin da horrelakorik eskeini.
- **Udal edo herri mailan ez da inoiz gai honen inguruko formakuntza zehatzik antolatu.** Indarkeria jasaten duten emakumeek beren egoera adierazten ahal dute hainbat tokitan, laguntza bila joaten direnean. Baina hainbatetan egoera isilpean bizitzen dute. **Gizarte langileek, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren langileek, medikuek eta erizainek, udaltzainek, ertzainek, bake epaitegiko langileek edota emakumeen taldeko kideek** detektatzen ahal dituzte horrelako egoerak, eta horregatik komenigarria da eragile guzti hauek egoera horretan laguntza emateko jarrera eta informazio egokia izatea.
- Bestalde, herri mailan ez da **erakundeen arteko koordinazio mekanismo zehatzik definitu.** Hau da, ez da aztertu nola transmititzen den gai honen inguruko informazioa arretan parte hartzen duten eragileen artean: gizarte zerbitzuak, udaltzaingoa edo ertzaintza, osasun zentroa eta bake epaitegia.
- **Orokorrean, eragileak horrelako formakuntza eta koordinazio mahai batean parte hartzeko prest agertu dira. Gizarte zerbitzuko, udaltzaingoko eta osasun zentroko arduradunek interesa agertu dute sensibilizazio edo koordinazio ekintzetan parte hartzeko.**

- Herritar guztiei zuzendutako **sensibilizazio ekintzak** ere antolatu beharko lirateke urtero, azaroak 25 indarkeria honen kontrako nazioarteko egunaren inguruan.
- **Prebentzio lana** egin beharko litzateke: **gaztetxoei zuzendutako saioen bitartez** (eskolekin hitzartuta), sexismoa aztertzeke eta parekidetasuna bultzatzeko aukera sortu beharko litzateke. 2008an egin izan da, Oiartzungo DBHko hainbat ikasleekin (1.DBH + 3.DBH), baina momentuz ez da aurreikusten aurrerantzean ere horrelakorik antolatzea.

## 5. ELKARTEEN SUSTAPENA

Oiartzungo Gizarte Zerbitzuek elkarteei banatutako dirulaguntza bi atal ditu: (1) emakumeen taldeei banatutakoa eta (2) beste elkarteei banatutakoa.

**5.1 Oiartzungo emakumeen elkarteek urtero Udalaren dirulaguntza jasotzen dute beren jarduera garatu ahal izateko.** Gizarte Zerbitzuek dirulaguntza hori banatzen du, nahiz jarduera bera gehienbat kultur jarduera izan. Elkarte bakoitzaren jardueraren arabera banatzen da dirulaguntza.

Oiartzungo emakumeen taldeek 2008an jaso duten dirulaguntza honako hau da:

TALDEA	Dirulaguntza
Kilirikupe Emakumeen Taldea	3.500
Oiartzungo Emakume Taldea HELTA	21.402

**Oiartzungo Emakume Taldeak** herrian ematen diren **Helduen Tailerrak** antolatzen ditu.

Aurten guztira 790 ikaslek izena eman dute Emakumeen Taldeak eskeini dituen 55 ikastaroetan. Talde honek duen antolakuntza maila izugarria da, hau da, beste herrietan Udalak antolatzen dituen helduentzako kultura eta kirol ikastaro guztien parekoa da. Emakumeen Taldeak orain dela 12 urte tailerrak antolatzen hasi zen, eta proiektua urtez urte gero eta arrakasta handiagoa izan du. Antolakuntza lana erabat bolondreskoa da. Herritarren parte-hartze handiak, bereziki emakumeena, talde honek herriaren alde egiten duen lanaren garrantzia islatzen du. Helduen Tailerren informazio zehatzagoa jaso dugu diagnostiko honen KULTURA kapituluaren 9. atalean.

**Kilirikupe Emakumeen Taldeak** psikologiaren inguruko formakuntzak antolatzen ditu.

Urtero gai berri bat jorratzen dut. 2008-2009ko ikasturtean lantzen ari diren gaia emakumeen sexualitatearen ingurukoa da: "Emakumea eta biografia: sexualitatearen inguruko elkarrizketak. Bi taldetan antolatzen dira, aipatutako formakuntza bai euskaraz bai eta gazteleraz eskeini ahal izateko.

**5.2 Gizarte Zerbitzuek** beste elkarteei emandako dirulaguntza guztia 21.302 eurokoa izan da.

Atal honetan elkarte ezberdinak agertzen dira, batzuk Oiartzunen soilik jarduera dute eta beste batzuk Gipuzkoa osoan. Atal honetan dago Harri Beltza Elkarte (IHESAREN prebentzio ekintzak) eta El Watan Sahararekiko elkartasun elkarte.

## ELKARTEEN SUSTAPENA: EMAITZAK

Emakumeen elkarteek urtero Udalaren dirulaguntza jasotzen dute, hau da, beren proiektuak aurrera eramateko sustapen iraunkorra dute. Jasotzen duten dirulaguntza garrantzitsua da, antolatzen duten jarduera ere herrian eragin handia duelako. Jarduera horren dimensioa izugarria da: aurten 800 ikasle baino gehiago bi talde hauen ikastaroetan parte hartzen dute.

Bestalde, Oiartzungo Emakumeen Taldeak lokal arazoak ditu, hau da, 10 toki ezberdinetan jarduera antolatu behar izaten dute elkarte modura lokal bakar bat dutelako. Honen inguruan informazio zehatzagoa jaso dugu diagnostiko honen Kultura kapituluaren 9. atalean.

## 6. ZAILTASUN EGOERAN DAUDEN EMAKUME BATZUEN BALORAZIOA

Hiru zailtasun egoeretan dauden emakumeen balorazioa ere jaso nahi izan dugu, hau da, jakin nahi izan dugu ea udal mailan eskeinitako baliabideak beren arazoei aurre egiteko lagundu ahal izan dieten.

- Ezintasuna pairatzen duten emakumeak
- Ezintasuna duen pertsona baten zaintzaileak
- Indarkeria matxista pairatu duten emakumeak

Indarkeria matxista pairatu duten emakumeekin ezin izan dugu kontaktatu, gizarte zerbitzuen aldetik ezinezkoa izan baita egoera hori gainditu duten emakumeekin kontaktuan jartzea. Etxez etxeko zerbitzuaren zain zerrendan dagoen emakumeren batekin ere hitz egin nahi izan dugu, baina pertsona hauen kontakturik ere ez dugu eskuratu. Beraz, azkenean beste bi egoeretan dauden hiru emakumeekin izan gara soilik. Hemen jasotzen ditugu beraiek aipatutako kontu batzuk:

- Orokorrean, elkarrizketatutako **emakumeak gizarte zerbitzuetan jasotako arretaren balorazio positiboa egiten dute**. Aholkularitza eta laguntza egokia jaso dutela uste dute, eta gizarte langileek beraiei entzuten eta laguntzen ahalegindu direla uste dute.
- **Etxez etxeko zerbitzua jasotzen duen emakume batek zerbitzuarekin gustora dagoela aipatu du, baina zerbitzu horren langileek pertsonen autonomia nola sustatu eta ez murriztu aztertu beharko luketela uste du**. Bere kasuan, zerbitzua hasieran jasotzerakoan gai honen inguruan eztabaidatu behar izan zuen etxez etxeko langilearekin, garbiketa intimoan eta janzerakoan absolutoki lagundu nahi ziolako, eta emakume hau oraindik gai da, bere zailtasunekin, ekintza hauek burutzeko.
- Ibiltzeko arazoak dituzten bi emakumeek aipatu dituzte **garraio arazo batzuk**:
  - **Herriaren barnean ibiltzen den autobusik ez egotea** (adibidez Altzibarretik plazara igotzeko). Nahiz zerbitzu berezi batzuk hortarako sortu diren (auzo-taxi eta bidez bidez), ez dago garraio zerbitzu arrunta auzoen artean mugitzeko. Plazatik Altzibarrera jeisteko Donostiako autobusa hartzen ahal da, baina ez kontrako ibilbidea egiteko.
  - **Eusko Tren-eko nasa (Donostiatik etortzeko) trenaren altuera azpikoa izatea, hau da, gurpilezko aukiarekin trenetik jeisteko laguntza behar izaten da, 10 zentimetroko ezberdintasuna dagoelako.**

- **Euskal Herria plazako lur azpiko aparkalekuetan ezinduentzako plaza erreserbatuak baterian jarriak izatea (ezin ziurtatu beste kotxerik ez duela gertuegi aparkatuko).**
- **Gurpilezko aulkian dagoen emakume bat Oiartzungo tabernetan komun egokiturik ez egotea kexu da. Bestalde, Udaletxeko atea gurpilezko aulkiarekin sartzeko ezinezkoa dela ere aipatu du, oso astuna delako.**
- **Bidez bide zerbitzua egotea positiboki baloratu dute, nahiz eta momentuz ez dutela eskatu behar.**

ZAILTASUN EGOERETAN DAUDEN EMAKUME BATZUEN BALORAZIOA: EMAITZAK
---

- **Elkarrizketatu ahal izan ditugun emakumeak oso gutxi direnez, ezin izan dugu atal hau behar den bezala burutu.**
- **Hala ere, elkarrizketatu ditugun emakumeek gizarte zerbitzuen balorazio positiboa egiten dute. Etxez etxeko laguntzaileen formakuntza arazo batzuk aipatu dira, formakuntzaren bitartez hobetuko ahal liratekeenak.**
- **Gehien aipatutako arazoak mugikortasun arazoak dira: garraio publikoa, tabernen komunak eta erakundeen atea.**

## 7. ATAL GUZTIEN EMAITZEN BILDUMA

### LAN BILA DABILTZATENAK: EMAITZAK

- INEMen izena eman duten hiru Oiartzuarretatik bi emakumeak dira.
- Oarsoaldearen bitartez lana bilatzen dutenen artean erdia emakumeak dira, eta erdia gizonak. Hauen artean batzuk langabezian daude, eta beste batzuk lan hobekuntza edo lan egokiagoa bilatzen dute.
- Oarsoaldea Enplegu Zerbitzuaren jarduera memorieta sexua eta herria (Oiartzun) aldagaiak oso gutxitan gurutzatzen dira. Beraz, memoriaren bitartez ia ezinezkoa da jakitea zein den zerbitzuaren eragina emakumeen edo gizonengan. Datu batzuk eskuratu ditugu eskaera berezia egin ondoren, memoria ez baita sexua eta herria modu horretan bereizten.
- Oiartzungo Udalarekin batera bultzatutako enplegu programan (Ahalbide) momentuz 8 gizon kontratatu izan dira. Aldi baterako kontratuak dituzte (6 hilabetekoak). Programaren helburuak eta irizpideak kontuan hartuta, ez da aurreikusten honen bitartez emakumeentzako enplegua sortzea (tratamendu psikiatrikoan egotea eta kanpoaldeko lanak egitea).
- Baina emakumeak dira Oiartzunen gehien enplegu falta pairatzen dutenak. Beraz, emakumeei zuzendutako beste ekintza bat antolatu beharko litzateke, langabezian dauden emakumeen interesak eta egoerak kontuan hartuz. Horretarako emakume hauen egoera aztertu beharko litzateke. Gizarte zerbitzuen arabera, gizarte laguntza eskatzen duten hainbat emakumek ezin dute lan ordainduan aritu, egun osoko famili zaintza ardurak dituztelako (ezinduak edo haur txikiak bakarrik beren kargu).

## GIZARTE LAGUNTZA BEHAR DUTENEK: EMAITZAK

- **Gizarte laguntza eskatu behar dutenen bi heren emakumeak dira.** Beraz, EAE mailan gertatzen den bezala, Oiartzunen ere pobrezia feminizazioa antzematen da.
- **Etxez etxeko laguntza zerbitzuak zain zerrenda luzea du.** Zerbitzua jasotzen ez duten 4 eskatzaileetatik 3 emakumeak dira (18 emakume eta 6 gizon). **Zerbitzuaren defizita eragin negatiboa du** bai beharra duen pertsonarentzat bai behar hori nolabait konpensatu behar izaten duen pertsonarentzat, askotan zaintza zama handia duen familiko emakume bat.
- Zerbitzuaren langileak zuzenean **Udal langileak izatea zerbitzuaren kalitatea, baita langileen lan baldintza egokiak, bermatzen du.** Hala ere, **langile hauei egokitutako kategoria (E) beraztertu beharko litzateke,** egiten duten lanerako ezagutza espezifiko beharrezkoa baitute, azken oposaketan eskatzen zen bezala. Kontuan hartu behar da etxez etxeko laguntzaileek hainbat gaixotasun psikiko (Alzheimerra, senilitatea...) edo ezintasun fisiko (tetraplejikoak...) duten pertsonen zaintzan lan egiten dutela, eta beren lanetan kasu bakoitzean nola jardun, eta pertsonen autonomia nola sustatu, jakin behar dute. Beraz, ez da ezagutza espezifikorik gabeko lana.

## ADINEKOEN ATALAREN EMAITZAK

- Emakumeak gizonek baino luzeago bizi direnez, adinekoei zuzendutako zerbitzuek eragina handiagoa dute emakumeengan. Emakumeak onuradunen gehiengoa osatzen dute zaharren egoitzan (%70) eta eguneko zentroan (%86). Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eskatzaile gehienek ere emakumeak dira (%69). Bidez-Bide eta Bide-Lagun zerbitzuen onuradunen artean emakumeen kopurua ere gizonena gainditzen du (%56).
- Emakumeak autonomia maila altuagoa dute zahartzaroan: beranduago eskatzen dituzte zerbitzuak. Petra Lekuona eta eguneko zentroan dauden emakume gehienek 80 urtetik gorakoak dira. Gizon gehienek, berriz, 80 urte azpikoak.
- Zaharren egoitzan lau emakumeetatik batek bakarrik banakako gela du. Gizonen artean, berriz, bitatik batek du banakako gela.
- Aitonetxe praktikan "amonetxe" da: erabiltzaileen %86 emakumeak dira.



## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: EMAITZAK

- Udalaren gizarte zerbitzuek **gai honi aurre egiteko baliabide orokorren bitartekaritza eta kasuen jarraipena eskeintzen du.**
- Udalak ez ditu beste baliabide propioak egoera espezifiko honi aurre egiteko, eta ez du **gai honen inguruan sensibilizazio, prebentzio edo bestelako jarduera** komunitariorik antolatzen. Beraz, lantzen dena da biktimen banakako egoera, eta biktima horien eskaeraren arabeko baliabideen bitartekaritza.
- Biktimak etxetik ateratzeko beharra izan dutenean, beste herrietara joan behar izan dute (batzutan seme-alabekin batera), **Oiartzunen ez baitago babes etxerik egoera hauetarako.** Gertatu izan da emakumeak Zumarragaraino lagundu behar izatea, etxe gertuagorik libre ez baitzegoen. Kasu batzuetan distantzia jartzea ezinbestekoa izaten da, baina beste batzuetan ez, eta orduan distantzia horrek emakumearen eta seme-alaben txarrerako da. Edozein kasuan, Oiartzunen horrelako espaziorik ez dagoen bitartean, emakumeen larrialditasun egoerentzako babes etxerik ez dagoen bitartean, ezin da horrelakorik eskeini.
- **Udal edo herri mailan ez da inoiz gai honen inguruko formakuntza zehatzik antolatu.** Indarkeria jasaten duten emakumeek beren egoera adierazten ahal dute hainbat tokitan, laguntza bila joaten direnean. Baina hainbatetan egoera isilpean bizitzen dute. **Gizarte langileek, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren langileek, medikuek eta erizainek, udaltzainek, ertzainek, bake epaitegiko langileek edota emakumeen taldeko kideek** detektatzen ahal dituzte horrelako egoerak, eta horregatik komenigarria da eragile guzti hauek egoera horretan laguntza emateko jarrera eta informazio egokia izatea.
- Bestalde, herri mailan ez da **erakundeen arteko koordinazio mekanismo zehatzik definitu.** Hau da, ez da aztertu nola transmititzen den gai honen inguruko informazioa arretan parte hartzen duten eragileen artean: gizarte zerbitzuak, udaltzaingoa edo ertzaintza, osasun zentroa eta bake epaitegia.
- **Orokorrean, eragileak horrelako formakuntza eta koordinazio mahai batean parte hartzeko prest agertu dira. Gizarte zerbitzuko, udaltzaingoko eta osasun zentroko arduradunek interesa agertu dute sensibilizazio edo koordinazio ekintzetan parte hartzeko.**

- Herritar guztiei zuzendutako **sensibilizazio ekintzak** ere antolatu beharko lirateke urtero, azaroak 25 indarkeria honen kontrako nazioarteko egunaren inguruan.
- **Prebentzio lana** egin beharko litzateke: **gaztetxoei zuzendutako saioen bitartez** (eskolekin hitzartuta), sexismoa aztertzeke eta parekidetasuna bultzatzeko aukera sortu beharko litzateke. 2008an egin izan da, Oiartzungo DBHko hainbat ikasleekin (1.DBH + 3.DBH), baina momentuz ez da aurreikusten aurrerantzean ere horrelakorik antolatzea.

### ELKARTEEN SUSTAPENA: EMAITZAK

Emakumeen elkarteek urtero Udalaren dirulaguntza jasotzen dute, hau da, beren proiektuak aurrera eramateko sustapen iraunkorra dute. Jasotzen duten dirulaguntza garrantzitsua da, antolatzen duten jarduera ere herrian eragin handia duelako. Jarduera horren dimensioa izugarria da: aurtan 800 ikasle baino gehiago bi talde hauen ikastaroetan parte hartzen dute.

Bestalde, Oiartzungo Emakumeen Taldeak lokal arazoak ditu, hau da, 10 toki ezberdinetan jarduera antolatu behar izaten dute elkarte modura lokal bakar bat dutelako. Honen inguruan informazio zehatzagoa jaso dugu diagnostiko honen Kultura kapituluaren 9. atalean.

### ZAILTASUN EGOERETAN DAUDEN EMAKUME BATZUEN BALORAZIOA: EMAITZAK

- Elkarrizketatu ahal izan ditugun emakumeak oso gutxi direnez, **ezin izan dugu atal hau behar den bezala burutu.**
- Hala ere, **elkarrizketatu ditugun emakumeek gizarte zerbitzuen balorazio positiboa** egiten dute. **Etxez etxeko laguntzaileen formakuntza** arazo batzuk aipatu dira, formakuntzaren bitartez hobetuko ahal liratekeenak.
- **Gehien aipatutako arazoak mugikortasun arazoak dira:** garraio publikoa, tabernen komunak eta erakundeen atak.

**IX OIARTZUNGO OSASUN ZERBITZUA**

## **AURKIBIDEA: OSASUN ZERBITZUA**

*Sarrera*

- 1. Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzioa eta medikuen jarduna**
- 2. Nahigabeko haurdunaldien prebentzioa**
- 3. Lan ordaindua eta famili zaintza lana uztartzea: arratsaldez irekitzeko asmoa**
- 4. Emaginaren ardurapean dauden programak**
- 5. EMAITZAK**

Mikel Bagües Osasun Zentroaren arduradunarekin elkartu gara herriko osasun zerbitzuaren inguruko hainbat galdera egiteko. Bagües Errenteria, Lezo eta Oiartzungo osasun zentroyen arduraduna da. Bereziki emakumeengan eragina duten osasun kontuen inguruan informazioa jaso dugu.

Osasun datuak legez oso babes zorrotza dutenez, ezin izan ditugu hainbat datu eskuratu. Adibides, Bagües-ek ezin izan digu esan zenbat emakumeen aurkako indarkeria kasuak detektatu diren Oiartzunen azken urteotan, edo zenbat nahigabeko haurdunaldi kasuak izan dituzte (hurrengo eguneko pilula zenbat neska gazteek eskatu duten...). Baina zenbakiak alde batera utzita, hainbat kontuetaz informazioa eman digu Bagüesek, orri hauetan islatzen duguna. Honako hauek izan dira aipatutako gaiak:

### **1. Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzioa eta medikuen jarduna**

Gutxi badira ere, urtero indarkeria kasu berriak detektatzen dira osasun zentroan. Hau da, gizonak eragindako emakumeenganako indarkeria egoerak detektatzen dira, bai Oiartzunen bai Errenterian eta Lezon. Medikuek legez behartuta daude horren salaketa egitera, nahiz biktimak horren kontra agertu, EAEko “Protocolo Sanitario ante Malos Tratos Domésticos” (euskaratu gabe) dokumentuan zehazten den modura. Bagüesek azpimarratu duenez, “salaketa jartzea derrigorrezkoa da, hortarako ordaintzen zaio medikuari, biktima babesteko”.

Tratu txarren seinaleekin agertzen diren emakumeak askotan ez dute bikotekidea salatu nahi, eta gainera askotan ez dute onartzen beraiek tratu txarrak jasaten dituztela. Bagüesek azaldu digunez, tratu txarrak jasaten dituzten hainbat emakumek nahiago dute gertatzen zaiena ukatu, eta beren buruarengatik baino gehiago kezkatuta daude bikotekidearengatik. “Bera gaizki dago” edo “hau bakarrik gertatzen da edaten duenean” dira behin baino gehiagotan entzundako esaldiak. Zoritxarrez, emakumeek gutxitan lehenesten dute beren osasuna.

Ea tratu txarren biktimeei gizarte zerbitzuen inguruko informazioa helarazten dieten galdetu diogu Bagüeseri. Dirudienez medikuek biktimei horren berririk ematen diete, hau da, gizarte zerbitzuetan

laguntza eskatzen ahal dutela esaten diete. Hala ere, ez diete paper zehatzik ematen, eta agian interesgarria litzateke osasun zentroari informazio gehiago eskeintzea, informazioaren transmisioa ahalik eta modu egokienean egiteko.

Osasun zentroko langileek gizarte zerbitzuen informazioa eskuratzen dute urteko hiruzpalau bileren bitartez, baina zentzu horretan bilera gehiago beharko liratekela aipatu du Bagüesek, medikuek eta erizainek beti zerbitzuen inguruan ongi informatuak egoteko, informazioa nolabait fresko mantentzeko.

*Bagüesek emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko edozein sensibilizazio edo formakuntza ekintza interesgarritzat jo du, baita ere osasun zentroko langileentzat.*

## **2. Nahigabeko haurdunaldien prebentzioa**

Oiartzungo anbulategian eskuratzen ahal da “**hurrengo eguneko pilula**”. Hau da, nahigabeko haurdunaldia izateko arriskua gertatu baldin bada, 24 orduko epean emakumeak hartzen ahal du “hurrengo eguneko pilula” arrizku hori saihesteko. Pilularekin batera antisorgailuen inguruko informazioa eta kondoiak ere eskuratzen dira, prebentzio kanpaina modura.

Anbulategia itxia dagoen egun eta ordutegietan (arratsaldez edo asteburuetan), aipatutako pilula urgentzi zerbitzuetan eskuratzen ahal da (astelehenetik ostiralera Errenteriko anbulategian, eta asteburuetan Donostiako urgentzietan).

## **3. Lan ordaindua eta famili zaintza ardura uztartzea: arratsaldez irekitzeko asmoa**

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak EAEko osasun zentroen %80a arratsaldez ere irekitzea helburua onartu du. Horien artean kokatzen da Oiartzungo anbulategia. Osakidetza aztertzen ari da ea Oiartzungo anbulategia arratsaldeko 17:00ak arte edo 20:00ak arte irekiko duten. Bagüesen espero du helburu hori lehenbailehen betetzea, baina oraindik itxaron beharko da, eta ezin izan digu esan noizerako irekiko duten arratsaldez.

Emaginaren esku diren programak, hala ere, ez dira arratsaldez eskeiniko, emaginak goizez bakarrik lan egiten dutelako, eta orokorrean beste emagin bat kontratatzeke arazoak dituztelako (dirudienez emagin titulazioa duten profesionalen defizita dago).

*Arratsaldez irekitzea lagungarria izaten ahal da lan ordainduaren eta famili zaintzaren ardurak uztartzeko. Baguesen arabera, oraindik emakumeak dira, gehienetan, haurrak eta zaharrak medikura laguntzen dietenak. "Eta gero eta gehiago dira Ekuadorreko emakumeak zaharrekin etortzen direnak, horiek baitira gaur egun zaharren zaintzaz askotan arduratzen direnak". Hala ere, Baguesek ez du uste arratsaldeko eskaera handia izango denik. "Errenterian arratsaldez irekitzen dugu, baina herritar gehienek medikua goizez nahi dute".*

#### **4. Emaginaren ardurapean dauden programak**

Emaginak asteko bi egunetan Oartzungo emakumeak atenditzen ditu. Emagina honek eramaten du Oartzungo eta Lezoko biztanleriaren emagin beharrak. Beraz, normalean oso lanpetuta dabil. Hala ere, haurdunaldien jarraipena lehentasuna du bere agendan. Beste programak bigarren tokian daude, eta hainbatetan luzez itxaron behar da errebisio ginekologikoa egiteko.

Bere ardurapean garatzen dira programak honako hauek dira:

- **Erditze prestakuntza eta arreta programa**

Erditze prestakuntza ikastaroa goizez ematen da. Gizonek ere parte hartzen ahal dute programa honetan, baina oso gutxi dira etortzen direnak (10 emakumetatik bat agertzen da bikotearekin). Berez, legeak emakumeei lanetik ateratzeko baimena ematen die horretarako, baina ez gizonei.

Ikastaro honetan bai erditze momenturako bai ondorengo haur jaioberriaren zaintzarako informazioa eskuratzen da. Beraz, gizonentzako ere interesgarria litzateke bertan parte hartzea. *Inoiz ez da aztertu prestakuntza hau arratsaldez eskeintzea, gizonen parte hartzea errazteko (gizonek ezin dira lanetik atera . Hala ere, Baguesen arabera, arratsaldez eskeini nahi izanez gero ere ez litzateke posible izango, emaginek goizez bakarrik lan egiten dutelako.*

- **Puerperio arreta programa**

Programa honetan ere emakumeak ia soilik parte hartzen dute.

- **Menopausia arreta programa**  
menopausiaren eraginen inguruko programa, emakumeei zuzenduta.
- **Minbizia prebentzio programak**  
Utero, `cervix` edo bular minbiziaren detekzio programa.



### **1. Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzioa eta medikuen jarduna**

Medikuek eta erizainek badakite indarkeriaren aurrean protokolo bat jarraitu behar dutela (EAEko protokoloa). Baina azken finean protokoloa liburu bat da, eta ez du gai honen inguruan sensibilizatzen.

Osasun zentroko arduradunak komenigarritzat jo du sensibilizazio ekintzaren bat antolatzea, eta herriko beste erakundeekin baliabideen informazio trukaketa hobetzea. Urtero lau edo bost aldiz biltzen dira gizarte langileekin, baina gai hau ez da inoiz zehazki jorratu.

Beraz, emakumei bereziki afektatzen zaien bi gai gehiago jorratzea komenigarria litzateke. Hortarako, gizarte zerbitzuen informazio bilerak areagotzea eta eskuorriak ematea egokia litzateke:

- Menpekotasuna dutenen zaintzaileentzako laguntzak / zerbitzuak
- Genero indarkeriaren biktimentzako eskuorria mediku eta erizainekin aztertzea.

### **2. Nahigabeko haurdunaldien prebentzioa**

Interesgarria litzateke gazteei jakinaraztea zer nolako baliabideak dituzten haurdunaldien prebentziorako. Behintzat jakin dezatela “hurrengo eguneko pilula” osasun zentroan eskuratzen ahal dela.

### **3. Lan ordaindua eta famili zaintza ardura uztartzea: arratsaldez irekitzeko asmoa**

Arratsaldez irekitzeko asmoa hainbat pertsonentzako lagungarria izango da lan ordaindua eta famili zaintza ardurak uztertu ahal izateko.

### **4. Emaginaren ardurapean dauden programak**

Jaiotzerako prestakuntza ikastaroan haur jaioberriaren zaintzarako informazioa ematen da da. Beraz, gizonentzako ere interesgarria litzateke bertan parte hartzea. Gizonek parte hartzen ahal dute, baina praktikan oso gutxi dira joaten direnak, agian goizez soilik delako. Inoiz ez da aztertu prestakuntza hau arratsaldez eskeintzea, gizonen parte hartzea errazteko (gizonek ezin dira hortarako lanetik atera).



**X HIRIGINTZA ETA GARRAIO KONTUAK**

## AURKIBIDEA: HIRIGINTZA ETA GARRAIO

### *Sarrera*

1. HIRIGINTZA KONTUAK
2. GARRAIO KONTUAK
3. EMAITZAK

### *Sarrera*

**Zenbat kale dute emakume baten izena eta zenbat gizon batena?**

**Oiartzungo erakunde publikoetan haur kotxearekin edo erosketa karruarekin sartzeko edo mugitzeko oztoporik al dago? Eta komunetan parda aldatzeko mahairik al dago emakumeen eta gizonen komunetan?**

**Zenbat emakumek eta zenbat gizonek erabiltzen dute garraio publikoa Oiartzunen?**

**Zenbat dute Lurraldebus txartela?**

**Auzoetara iristeko zer hutsuneak daude garraio publikoan?**

**Ezinduek garraio publikoa erabiltzeko oztoporik al dago?**

Gai hauen inguruan hainbat datu eta ekarpen jaso ditugu. Ondorengo bi ataletan jasotako informazioa islatzen dugu: hirigintza kontuak eta garraio kontuak. Hemen jaso ditugun kontu gehienek lantaldetan agertu dira, beste gaiekin lotuta, eta gurasoen inkestan (haur txikiekin egoteko herriko baliabideen atalean).

## 1. HIRIGINTZA KONTUAK

Hainbat kontuen inguruan informazioa jaso dugu, ondoren aipatzen ditugunak:

- **Kaleak eta plazak: emakumeen izenik ez**  
Oiartzungo kale gehienek ez dute pertsona baten izena baizik eta baserrien edo tokien izenak. Hala ere, gutxienez zortzi kale dute gizonen izenak<sup>2</sup> (hiru santuak dira), eta bakar bat ez emakume baten izena. Oiartzungo emakumeen presentzia herriko historian ez da inoiz espreski jaso, eta beraz ez dira ezagutzen herriko emakumezko erreferente historikoak, edo ezagutzen badira ere ez dira erabili izan kaleak izendatzeko. Gizonezkoen ekarpena berriz jaso izan da herriaren historian, baita gaur egun egiten diren ikerketetan. Hori dela eta, Oiartzunen topatzen al dugu Rafael Pikabea edo Sebastian Mendiburu izena duten kaleak.
- **Haur txikiekin egoteko espazio publikoen beharrak**
  - **Egun euritsuetan hurrekin egoteko jolas espazio itxiak edo aterpetuak.:** saltogela moduko gela zabala, jolas gutxi batzuekin, gurasoekin batera egoteko.
  - **Aterpea duen kanpoko jolastokia.** Madalensoron, adibidez, aterpe moduko teilatu bat dago (beheko atearen aurrean), eta horren aurrean dagoen zementozko plaza ez da momentuz ezertarako erabiltzen. Aterpea zabalduz gero, eta jolastoki jarritz gero, egun euritsuetan jolasteko espazio ederra sortuko litzateke.
  - **Liburutegian bebeteka bat sortzea, haur txikientzako aparteko espazio bat.** Beste herrietan horrelakorik egiten da kristalezko paretekin, beste liburutegiko erabiltzaileei haur txikien zarataz babesteko. Helduekin egoteko espazioa da (gurasoekin edo).
- **Mugikortasun oztopoak:**  
Oiartzunen oraindik emakumeek gizonen baino famili zaintza ardura gehiago asuminzen dute, eta beraz gehiagotan arduratzen dira haur txikien zaintzaz, erosketetaz, eta orokorrean eguneroko bizitzarako egin behar diren lanetaz. Hori dela eta, emakumeak dira gehienetan **haur karruarekin edo erosketak karruarekin** herrian mugitzen direnak. Egoera horretan topatzen al dituzten mugikortasun oztopoak ugari dira:  
(1) **Hainbat auzoetan eta auzoen artean ibiltzeko ez dago espaloirik** (Ergoien, Gurutze...).

---

<sup>2</sup> German Ugarte kalea, Manuel Lekuona etorbidea, Mendiburu kalea, Rafael Pikabea etorbidea, Yon Oñatibia Etorbidea, Done Eztebe Plaza, Done Petri kalea, Donibane kalea, Frantzisko Urdinola kalea, Frailen bide.

Oiartzungo erdigunea azken urteotan zentzu honetan hobetu da, espaloiak kaleko altura berdina baitute, eta erdigunetik Arraguara ere espaloia jarri da.

(2) **Liburutegira ezin da igo** haur karruarekin, ezta Udaletxeko ganbarara ere ez, eskailerak daudelako.

(3) **Udaletxera atea astuna** da, eta kostata sartzen da haur karruarekin.

- **Haur txikien pardela aldatzeko tokirik ez:**

Oiartzungo Liburutegian, Udaletxean eta Kirolddegiko tabernan ez dago tokirik haur txikien pardela aldatzeko. Hau da, bertan dauden komunetan ez dago hortarako mahairik. Kiroldegi barnealdean probadore misto batean badago horrelako mahaia.

Bidegorriko komunetan ere ez dago horrelakorik.

## 2. GARRAIO KONTUAK

Oiartzunek bi garraio publiko aukera ditu:

- **Lurraldebus zerbitzua (Oiartzun-Donostia):**

Asteazken zehar 20 minutuko autobusa dago. Lurraldebus zerbitzua Gipuzkoako Foru Aldundikoa da, eta duela bi urte txartela sistema du (erabiltzaileek eskatzen ahal duten txartela personalizatua eguneroko garraioren gastua gutxitzeko). Aldundiaren Lurraldebus arduradunari (Antonio Majó Trecu) Oiartzungo erabiltzaileen sexu datuak eskatu dizkiegu (zenbat emakumek / gizonek duten Lurraldebus txartela), baina momentuz ez dituzte datu estatistikoak ematen, pertsonal falta dela eta argudiatuz.

- **Euskotren (Donostia-Oiartzun-Irun):**

Oiartzungo tren geltokian mugikortasun arazo bat dago, oraindik konpondu gabea. Nasa baten altuera (Donostiatik etortzeko) ez dator bat trenaren altuerarekin. Izan ere, gurpilezko aulkiarekin trenetik jeisteko laguntza behar izaten da, 10 zentimetroko ezberdintasuna dagoelako.

Euskotren-eko Oiartzungo erabiltzaileen sexu datuak eskuratzea ezinezkoa da.

- **Bestalde, Oiartzunen dago auzo taxi zerbitzua, hau da, egunean hainbat aldiz auzoetara joateko edo hortik etortzeko erabiltzen ahal den taxia, autobus txartelaren prezioan.** Balorazio ona badu ere, ez da beti praktikoa, ordu zehatzetan soilik pasatzen delako.

### 3. EMAITZAK

- Oiartzungo emakumeen izenak ez dira espazio publikoan agertzen: ez dira erabili izan kaleak edo plazak izendatzeko.
- Haur karruarekin edo erosketa karruarekin ibiltzen direnen beharrak ez dira bereziki kontuan hartzen: ez dago pardela aldatzeko mahairik Oiartzungo eraikin publikoetan (udaletxea, liburutegia, kiroldegiko taberna, komun publikoak).
- Hainbat auzoetara iristeko autobus zerbitzu arruntik ez dago. Auzo taxia badago, baina ordu zehatz batzuetan bakarrik hartzen ahal da, beraz askotan ez da egokitzen pertsonen beharretara.
- Euskotren geltokiaren nasa batek ez dator bat trenaren altuerarekin. Beraz, gurpilezko aulkian daudenak ezin dira laguntzarik gabe trenetik jeitsi.



## BIBLIOGRAFIA

*Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra las mujeres.* Naciones Unidas (1979).

*Protocolo de la CEDAW.* Naciones Unidas (1999)

*Aplicación del Mainstreaming en el ámbito local: Proyecto CERES.* Madrid: Comunidad de Madrid (1998)

*Manual para la integración de la perspectiva de género en el desarrollo local y regional* Instituto Vasco de la Mujer-EMAKUNDE.

*Errenteriko Aukera Berdintasun Diagnostikoa,* Elhuyar, Errenteriko Udala (2008).

*Hernaniko Emakumeen Egoeraren diagnostikoa,* Hernaniko Udala (2001)

*Diagnóstico para la realización del I Plan de Igualdad de Oportunidades para Mujeres y Hombres de la Comunidad Foral de Navarra: 2006-2010,* Departamento de Bienestar Social del Gobierno de Navarra (2006)

*EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV Plana, VIII. Legealdirako Jarraibideak,* EMAKUNDE (2006)

*EAEko Emakumeentzako III Ekintza Positiborako Plana.* EMAKUNDE (1999-2003)

*III Plan de Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres Instituto de la Mujer. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales(1997-2000).*

*Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako eta Genero Politikentzako I Plana.* Bizkaiko Foru Aldundia (2000-2003)

*Barakaldoko Emakumeen eta Gizonen I Aukera Berdintasun Plana* (2000-2004)

*Zierbanako Emakumeentzako I Ekintza Positiborako Plana* (2001-2003)

*Ermuako Emakumeentzako II Aukera Berdintasunerako Plana* (2000-2003)

*Portugaleteko Emakumeen Egoeraren inguruko ikerlana* (2000)

